

"Egiptoarrekin
berbetan, usain
zenezakeen
ze zetorren"

Ane Irazabal

'Freelance'-a Ekialde Hurbilean | 8



Fagorren gaia,
martxoaren
13ra arte

Frantzia tramitera
onartu dute Cevitalen
eskaintza | 5

Gaur estreinatuko dute 'Zazpi aldiz
elur' ikuskizuna, Oñatin | 33



Sexologia zerbitzua abiarazi
behar dute Oñatin | 11



Gida 2014 egunotan iritsiko da
debagoiendarren postontzietara | 4

DEBAGOIENeko KIROLARIAK ARGAZKITAN

Aritz Gordo argazkilariak ibarreko kirolariak
hartzen ditu bere argazkietarako modelo;
Flickr-eko galeriak 760.000 bisitari baino
gehiago izan ditu | 28



Josu eta Iñaki
Viejo eskalatzaile
arrasatearrak,
Besaiden.

ARITZ GORDO

HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

"Akordio bitartez
hartu ditugu
erabakirik
garrantzitsuenak"

INAZIO
AZKARRAGURIZAR
Arrasateko alkatea | 14



Milaka urtetako tradizioa beteko da



Neolito hasierarekin lotzen dituzte Aratustek | 2

Oraingo asteaz geroztik, mozo-
roak, desfileak, kukumarroak,
hartza, Txapel-Txin, sorgin-
dantza, sardina... azken finean,
Aratustek dira protagonista.
Herri guztiek bat egiten dute
milaka urtetako tradizioa duten
jai horiekin, Eguen Gizenetik
hasi eta egubakoitz, zapatu,
domeka eta Aratuste-martitze-
nean bukatu arte. Egitarauak
herriz herri lantzen dira bai-
laran. | IKUS 'HERRIAK' SAILA

SINADURAK



Eskandalua! | 6
JOXAN LARRAÑAGA



6 | Gura ez izatea, euren arrazoia
ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Behoko solairua | 40
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11
KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

ARATUSTEAK

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN
ASTELEHENA, 20:00, 21:00 ETA 22:30

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA
EGUENA, 22:00

BABESLEA:
ARETXARGI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



goiena

Zumaian
bizi

RESIDENCIAL
Ortiz
BIZIGUNEA

Facebook.com/inmoloiola



aukeratu etxebizitzarik egokiena

edo zure 2. etxebizitza



AUKERA
Ere orain,
Zuri egokitutako
finantzaketa

ETXEBIZITZAK 170.000 €
+ IVA AUTOMA

inmo
loiola

ALTUNA Y URSUA S.A.

info@inmoloiola.com
606 957 532
www.vivirenzumaia.com / www.zumaianbizi.com

Aratusteak, milaka urtetako tradizio gaurkotua

Neolitoaren hasieran, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sorrerarekin, lotzen dituzte hainbat adituk sasoi hauetan egiten ditugun ospakizunak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Iritsi da etxeko ganbarara jo eta arropa zaharrei hautsa kendu eta mozorrotzeko garaia. Iritsi dira Aratusteak. Asteburu hone-tan kolorez jantziko dira gure herrietako kaleak. Egia esan, baina, azken urteotan festaren merkantilizazioa gertatu da. Garai batean, birziklapenean oinarritzen ziren. Etxeko armairuan edo ganbaran genituen arropa zaharrak erabiltzen genituen. Helburua ez zen modu berezi, ikusgarri edo apainean jantzea; nor ginen ezkutatzeko baizik. Inork ezagutu ezean, ez zuen axola apain edo zabar joan. Egun, kontzeptualizazio aldaketa gertatu da, ordea. Originala edo ikusgarria izatea baloratzen da. Baina zein da Aratusteen jatorria? Zergatik mozorrotzen gara?

Milaka urte atzera

Hipotesi, interpretazio eta teoria ugari daude, baina ez da ezer ziurrik. Dakiguna da Europako mendebaldean aspalditik ospatzen diren festak direla. Hori datatzea ez da erraza, ordea. Batzuek 2.000-3.000 urte aipatzen dituzte, beste batzuek 4.000-5.000, eta badira Inauteriak neolitoaren hasieran kokatzen dituztenak.

Greziako eta Erromako festekin lotzeko joera egon da, batez ere, zibilizazio horiek izan direlako euren jaien gaineko idatzizko aurrekariak utzi dizkigutenak. Etimologiari dagokionez ere, *karnabal* hitzaren atzean *carnevale* (haragi gabeko aroa) edo *carrus navalis* (ontziekin egiten ziren festak) egon daitezkeela pentsatu izan da. "Ez dago argi, baina, hori izan daitekeenik abiapuntua. Idatzizko lehen aipuak garai hartakoak izateak ez du esan nahi haietan sortu zirenik festa mota hauek. Gerta daiteke haiek ere gero kristautasunak egin zuen bezala aurretik zetozen hainbat festa beraien kulturara egokitu izana edo izena aldatu izana", zehaztu du Oier Araolaza antropologoak.

Bada, Araolazak atzerago jotzen du: neolito garaira. "Orduan sortu eta garatu ziren nekazaritza eta abeltzaintza. Horiekin lotura zuzena dute Aratusteen. Lanaren eta festaren banaketa

nekazaritza eta abeltzaintzako erritmoen arabera dago egina. Udaberrian abereak mendira eramaten dira. Nekazaritzan, berriz, inautetako, landatzeko edo goldatzeko garaia da. Horiekin lotuta daude neguko festa guztiak (Domu Santu egunez hasi eta Aratuste bitartekoak: Santamas, Urteberri, San Anton, Santa Ageda...).

Kristautasunaren eragina

Inauteriak festa paganoak direla pentsatzen duenik ere bada. "2.000 urte kristautasunean erabat murgilduta egon ostean, oraindik bere eragin gabe egun arte iraun duen ospakizunik egon daitezkeela pentsatzea absurdoa da", dio Araolazak. Hala, gaineratzen du bai Aratusteak eta baita beste festa batzuk ere kristautasunaren aurretikoak izan daitezkeela, eta hark bere egutegira egokitu eta izena aldatu dituela. Gaineratzen du joera hori oso ohikoa izan dela kristautasunean eta Inauteriak adibide garbia direla.

Hain zuzen, Aratusteetako data Aste Santuko igandearen arabera erabakitzen da. Pazko-igandea baino 49 egun lehenago (garizumako 40 egunak gehi bederatzi igandeak) izaten da Haus-terre-eguztana. Horrek zehazten du noiz izango den Inauteri-martitzena. Aste Santuko igandea noiz izango den zehazteko, berriz, ilargiari begiratu behar zaio: udaberriko lehenengo ilargi betearen ondorengo lehen igandea izaten da.

Hartzak badaki ilargiari begiratu behar zaiola Inauteria badatorren jakiteko. Horrela erabakitzen du lozorroan jarraitzea edo kanpora irtetea. Horrenbestez, Inauterien etorrera adierazten du hartzak, eta, hain zuzen, hura da Euskal Herriko herri askotako Aratusteetako sinbolo nagusia. Horrela da, esaterako, Antzuolan eta Bergaran ere.

Zomorroak

Asko eta asko dira gure Inauterietan azaltzen zaizkigun pertso-

naiak. Hartzaz gain, kukumarroak Eskoriatzan, adibidez. Menditik jaitsi eta herriko jendea zirikatzen eta beldurtzen ibiltzen dira. Hain justu, bada onaren eta txarraren arteko bereizketa hori ere Aratusteetan, baina, zenbaiten iritziz, festa hauetan ez dago onik. Batzuk txarrak dira eta besteak, okerragoak. Dauden teorien artean,

Juan Antonio Urbeltzek dio mozorroak zomorroak direla. Hau da, gizartearen intsektifikazio bat adierazten dutela. Izan ere, nekazari eta abeltzainek izaten dituzten arazoan artean larrienetakoa izurriteak izan ohi dira. Bada, Aratusteak izurriteen aurrean egiten diren konjuru edo errito bezala aurkezten ditu. "Zomorro jantziko gara eta irudikatuko dugu zomorro garela. Baserritarrei eskatuko diegu zerbait eta trukean ez gara itzuliko uzta garaian". Zomorroen talde horretan ezin onik aurkitu, txarrak eta are txarragoak ez badira.

Ziklo baten amaiera

Bestalde, sua ere azaltzen zaigu Inauterietan eta baita neguko festetan ere. Ziklo baten amaiera irudikatzen du. "Aurretik datorren guztia erre egiten da erabateko bukaera emanez eta errauts horietatik abiatzen da aro berria".

Horrela, pertsonaia zehatzak erretzeko ere erabiltzen da sua Inauterietan. Behin gauza txar guztiak bere gain jarrita, su ematen diogu eta erre, berriz ere hutsetik hasteko. Arrasaten, adibidez, sardinaren hileta egiten dute. "Ez dago garbi sardina horrek zer ordezkatzeko duen; izan ere, barrualdeko herrietan ere egiten da. Hala ere, bukaera bat irudikatzen du, heriotza". Beste pertsonaia batzuekin ere oso ohikoa da heriotza. Adibidez, hartza edo maskaradetako *Pitxu* hil eta ondoren berpiztu egiten dituzte. Oñatin, adibidez, kondea eta kondesa herritik bidaltzen



Sorgin-dantza Antzuolan, sardinaren hileta Arrasaten eta desfilea Aretxabaletan. | GOIENA



Kukumarroa, Eskoriatzan. | GOIENA



Hartza, Antzuolan. | I.G.



Txapel-txin, Aretxabaletan. | M.A.

Aratuste garaian pertsonaia ugari egiten digute bisita

Aratusteetan badira hainbat tokitan errepikatzen diren pertsonaiak, baina gure bailaran baditugu bereziak ere.

Tradizioa eta berrikuntza

Antzuolan hartza, hezitzailea eta tximinoa dituzte. Lehen biak Euskal Herriko beste herri batzuetan ere ikus ditzakegu, baina tximinoa ez. Ematen duenez, tximinoak garai bateko txerrena (deabrua) ordezkatzeko du.

Bergaran azken hiru urteotan hartza atera dute Eguen Zuri egunez, antzinako ohitura errekuiperatuta.

Eskoriatzan, bestalde, kukumarroak dituzte. Mendietan bizi diren basagizonak ei ziren. Negu

amaieran, menditik jaitsi eta herriko jendea zirikatzen eta beldurtzen saiatzen ziren. Loredun amantala eramaten dute aurrealdean, heltzeaz dagoen udaberriaren seinale; bizkarrean, berriz, ardi-larrua, bukatzeaz dagoen negua adierazita.

Oñatin pertsonaia ugari dituzte; besteak beste: hartza, senar-emaztegaia, elizmutila eta gauzaina. Aurten, berriz, pregoilaria eta borrarroak ere irtengo dira lehen aldiriz.

Aretxabaletan, bestalde, pertsonaia berria sortu zuten Aretxabaletako Karnabalen Lagunek duela zazpi urte: Txapel-txin. Txino-dantzatik datorkio izena eta Inauteriak badatozela iragartzen du Aratuste aurretiko zapatuan. Iaz berriro egin zuten.



zak dio azken urteetan gero eta gehiago izan direla ezaugarri propio horiek indartzeko ahaleginak eta gogoak. "Konturatzen dira horrek herria bera kohesionatzen eta nortasun berezi bat sortzen laguntzen duela". Hain zuzen, Oñatin Inauteri propioak egin zituzten iaz lehen aldiz.

Tradizio gaurkotua

Mozorro tradizional edo originalak erabili, argi dago asteburu honetan asko eta asko izango direla intsektifikatu edo pertsonifikatuko direnak; festaz, musikaz eta dantzez gozatzeko. Izan ere, argi dago milaka urtetako tradizio honek indarra izaten jarraitzen duela egun, gaurkotua bada ere.

Transgresioa eta dantza

Zarataz edo kaosaz ere lotu izan dira Aratusteak. Araolazak *transgresio* hitza erabiltzen du. "Hautura dakar, ohiko erritmoa aldatzea. Izan ere, mozerro horrek askatasunez jokatzeko edo ez garena pertsonifikatzeko aukera ematen digu".

Dantzak ere ohikoak dira. Antzuolan eta Bergaran sorgin-dantza egiten dute, Aretxabaletan txino-dantza eta Oñatin dantza propioak. "Inauterietan antzerki-dantza nagusitzen dela esan dezakegu, keinu bidez antzeztzen dutelako. Bikote arteko jokoak edo tirabirak izan ohi dira". Araolazak zehaztu du Frantzian dagoe-lan mota horretako dantzen jatorria. "XVIII. mende amaierako edo XIX. mende hasierakoak direla uste da eta horietan erabiltzen den doinuari (sorgin-dantzan eta txino dantzan) *fricasse* deitzen zaio. Oso bitxiak dira. Ez dakigu zehatz-mehatz noiz eta nola hasi ziren horrela egiten, baina Debagoineneko harribitxi politenetakoak dira horiek".

Identitate sortzaile

Inauteriak Europako eta mundu osoko festak dira. Toki bakoitzean, baina, ezaugarri bereziak dituzte eta komunitate horren identitatea egituratzen laguntzen dute. Euskal Herrian ere horrela da, baina, nazio mailako Inauteriez jardun beharrean, herriz herriko festez hitz egiten du Araolazak. "Esango nuke herriz herriko identitatean daukala indar handiagoa, estatu edo nazio mailakoan baino. Beti egon dira ahaleginak kontzeptu bateratu hori sendotzekoak, baina herri bakoitzak oso ezaugarri propioak ditu. Adibidez, Lantzeko Inauteriek ez dute Nafarroa ordezkatzeko. Arizkuneko edo Altsasuneko ezaugarri propioak dituzte". Hala, Araola-

Inauteriak sortzen edo berpizten

Azken urteotan gure bailaran ere izan da bertako Inauteriak indartzeko joera. Horren adibide dira Oñati eta Bergara.

Oñatin, Inauteri propioak

Oñatin herriko Inauteriak sortu zituzten iaz. "Azken urteetan beste herri batzuetako Inauteriak antzeztzen genbiltzan (Lantzekoak eta Luzaidekoak, esaterako). Parte-hartzea oso handia zen, ia 200 lagun. Beraz, zergatik ez herriko zerbait sortu? Hala, jai hauek Oñatin ezaugarri berezirik izan duten begiratzeko hasi ginen. Herriko historialariekin egon ginen eta esan ziguten ez dagoela ezer berezirik jasota. Beraz, Oier Araolazarekin egon ginen eta



Oñatiko Inauteriak. | IMANOL SORIANO

arketipo batzuk markatu zizkigun. Horrela hasi ginen geure Inauteriak sortzen", azaldu digu antolakuntzan dabilen Lierni Olmedok. Arropak egin eta dantzak asmatu zituzten. "Helburua da herriko beste talde eta eragileekin

aritzea, ahalik eta herritar gehienek parte hartzea ospakizun hauetan. Guztiondako berezi bilakatzea". Bihar irtengo dira dantzan, bigarrenegoz.

Bergaran, tradizioa berpizten

Bergaran, bestalde, azken hiru urteotan antzinako usadioa erreperatuz, hartza ateratzen dute eta sorgin-dantza egin, Eguen Gizen egunez. "Lehenengo ohiturak berreskuratzeko asmoz erabaki zen egitea", azaldu digu Maider Osak, Kultura teknikariak. Aurreko bi urteetan Antzuolako hartza erabili dute, baina atzo euren estreinatutako zuten. Pintxo-poteoa egiten den tabernetan txerri-hankak eta belarriak banatu zituzten.



GURE IKASLEEN AHOTAN



Garazi Madinabeitia | HUHEZIKo ikaslea

"HEMENGO JARDUERA ESTILOA BEREZIA DA"

Garazi Madinabeitia oñatiarra Lehen Hezkuntzako Atzerriko Hizkuntza ibilbideko bigarren maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI).

Zergatik aukeratu zenituen lehen hezkuntzako ikasketak?

Betidanik gustuko izan dut haurrekin aritzea. Haiekin eroso sentitu izan naiz beti eta etorkizunean haien artean egon nahi nuen. Egia esan, aukeraketa hau ez zen azken momentuko erabakia izan, argi bainean mundu honetan jardun nahi nuela. Zailtasunak izan nituen ikaslearen adina aukeratzeko unean, Haur Hezkuntzako haurren adin tartea ere interesgarria iruditzen zitzaidan, baina, azkenean, 6 eta 12 urte bitarteko ikaslearen esparrua lantzea erabaki nuen, nire izaerarekin hobeto zetorrelako.

Eta zergatik aukeratu zenuen HUHEZI – MONDRAGON UNIBERTSITATEan?

Oñatiko Txantxiku Ikastolan Batxilergoko bigarren mailan nengoela, Huheziko heziketa programaren informazioa ematera bertako irakasle eta ikasle batzuk etorri ziren. Orduan izan nuen lehenengo kontaktua Huhezirekin eta aukera polita izan zitekeela iruditu zitzaidan. Ondoren, han antolatu ziren ate irekietara joan nintzen, eta, bertan eskaintzen zuten metodologiak erakarrira, nire ikasketak Huhezin egitea pentsatu nuen.



Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izan duzun esperientzia?

Orain arte bizi izandako esperientzia erabat aberasgarria izan da. Batetik, ikaskide talde jator batekin aritzeko aukera izan dut eta lagun berri asko egin ditut. Bestetik, irakasle bezala jarduteko beharrezkoak diren oinarriko ezagutzak garatzen ari naiz. Txantxiku Ikastolan ere praktikaldia egin dut eta honek ni neu irakasle paperean ikusten lagundu dit. Esperientzia honek guztiak pertsonalki garatzen ere lagundu dit.

Zelan definituko zenuke Huheziren hezkuntza eredua?

Gustura aritzen naiz bertan proposatzen dizkiguten ekin-tzetan. Ikasketa guztietan beza-

la, lan handia egin beharra dago, baina jarduera estiloa berezia da. Lankidetzan eta kooperazioan oinarritutako metodologiak sustatzen dira, eta, horretarako, talde-lan ugari egiten ditugu. Bestalde, hausnarketaren bitartez, ikasle kritikoak garatzea dute helburu, gure etorkizuneko irakasle jardueran esku-hartze egokiak egin ahal izateko.

Behin gradua bukatuta, zeintzuk dira zure asmoak?

Ikasketak bukatzen dituzten ikasle guztiek bezala, irakasleentzat jardun nahiko nuke. Baina badakigu etorkizuna nahi-ko beltz dagoela eta lanpostuak soberan ez daudela. Egoera hau kontuan izanda, esparru honekin lotutako beste ikasketa batzuk egingo nituzke.

Fagorren hemengo planten gaineko erabakia, itxi barik

Frantziako epaileek martxoaren 13ra luzatu dute Fagorrengatik proposamen berriak onartzeko epea

UBANE MADERA | DEBAGOIENA
Frantziako epaileek onartu egin dute tramitera Cevital enpresa aljeriarrek Fagorren Frantziako Brandt plantarengatik eta Gara-gartzako (Arrasate) eta Eskoria-tzakoengatik egindako proposa-mena. Baina era berean, mar-txoaren 13ra arte luzatu dute eskaintza "osoago eta hobeak" jasotzeko epea. Brandt, De Die-trich, Vedette, Sauter eta Easycook markengatik 25 milioi euroko eskaintza egin du Cevitalek.
Edozelan ere, Frantziako epai-leek proposamena onartu izanak esperantzarako bidea ematen du;

epaileak kontrako erabakia har-tu izan balu (proposamena ez onartzea), horrek automatikoki hemengo plantetikiko proposame-na bertan behera uztea ekarriko zukeelako.
Likidazio fasea
Bien bitartean, Fagor Etxetres-nen hartzekodunen lehiaketak aurre-ra segitzen du. Une honetan fase komunean daude. Bestela esanda, hartzekodunekin adostasuna posible den edo ez aztertzen den fasean. Eta hori posible ez bada, likidazio faseari ekingo diote, Fagorreko iturriek esandakoaren

arabera. Likidazio fase horretan aktiboen salmentarako proposa-menak egiteko epea zabalduko dute. Aktiboen artean, enpresak, makina, marka... saltzeko auke-ra izango da, eta nahiz eta azken erabakia epaileak izan, Fagorre-ko ordezkarien iritzia aintzat har dezaketela adierazi dute Fago-rretik. Eta jakinarazi dute liki-dazio fase hori prestatzen dihar-dutela, "martxoan, apirilean... ez dakigu noiz izango den", azal-du dute.
Fagor marka ez dago salgai
Aktiboen salmentarekin lotuta, hori bai, azpimarratu dute Fagor marka bera ezin dela saldu, ez delako Fagor Etxetresna Elektri-koena; Fagor Taldeak du haren jabetza, "baina saldu daiteke, adibidez, Edesa marka", diote Fagorretik.
Eta ez hori bakarrik. Izan ere, eta nahiz eta Fagor marka bera ez saldu, badago markaren era-bilerarako lizentzia edo baimena saltzeko aukera, "royaltie batzuk ordainduta eta baldintzak Fagor Taldearekin negoziatuta".
Dena delakoa ere, azken era-bakia uda aurretik hartuko dute-la azpimarratu dute.

Komunikazioko langileen etorkizuna aztertu dute

Gaur, hitzaldi sorta abiaraziko du unibertsitateak

IRATI GOITIA | ARRASATE
Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko ikasleek lehen eskutik ezagutu dituzte antzeko ikasketak egin dituzten gazteek lanerako abian jarritako ekin-tzailetasun eta lan-esperientziak: Amaia Elu –Hirudart 3D disei-nu-estudioko kidea–, Ruben Mateo –Beniwood ekoiztetxeko kidea–, Oihane Beñaran –Boli-vian Nazio Batuen Erakundean komunikazio teknikaria– eta Ane Irazabal –freelance kazeta-ri arrasatearra.
Hain justu, hori izan da asteen Garaia Berrikuntza Gunean egin duten Komunikal-dia jardunaldien helburuetako bat. Orokorrean, baina, komu-nikazioa landuko dutenen etor-kizunaren gainean jardutea izan da Huhezik antolatutako jardunaldion asmoa.

Dekano berria Huhezin
Bestalde, Huhezi aipatuta, asteen jakinarazi dute dekanu berria izendatu dutela bertarako: Begoña Pedrosa. Filologia Inge-leseko lizentziaduna eta Hiz-kuntzalaritza Aplikatuko dok-torea da, Hizkuntzalaritzako Masterra du eta 2002az geroztik Literatura eta Hizkuntzen Didak-

tika Departamentuko irakaslea da. 2014ko irailean jabetuko da karguaz eta, bien bitartean, gaur egungo dekanorekin, Nekane Arratibel doktorearekin, partekatuko du postua, ordezkatzeko-prozesua naturala eta antolatua izan dadin.
Gizarteko aldaketak berba-gai
MUnen berriekin bukatzeko, gaur, barikua, hitzaldia iragarri dute: Aretxabaletako campusean, *Gizarteko aldaketak eta iraun-kortasuna* hitzaldia egingo du Joseba Azkarraga soziologoak, 14:30ean. Hitzaldi sorta baten hasiera da gaurko hori.



Joseba Azkarraga. | MU

Pobreziaren eta prekarietatearen aurka, Bilbora

LABek pobreziaren aurkako agerraldia egin du Eibarren, eta dei egin dute astelehenean Bilbon izango den protestara joateko. Autobusak antolatu dituzte, Bergaratik. Askapenak, berriz, Arrasatetik antolatu ditu autobusak.



Istripu ikusgarriak, baina, zorionez, 'arinak'

Eguraldi euritsua eta obrak *lagun*, asteen istripu bat baino gehiago izan da gure errepideetan. Ikusgarriena eguazten iluntzean Bergaran Biltoki parean gertatutakoa izan zen (argazkian). Bi autok elkar jo ostean, errepidea moztu egin zuten Arrasaterako noranzkoan. Lau zauritu izan ziren. Atzo goizean, berriz, hiru autok elkar jo zuten, Arrasaten, Eroski inguruan. Ez zen inor zauritu.

Sortu, Ernai eta LABen estrategia azaltzeko, herri batzarretarako deia

U.M. | DEBAGOIENA
"Ezker abertzale osoak (Ernai, LAB eta Sortu) estrategia egoe-ra berrira egokitu eta berau garatzea erabaki du. Azken helburuek berdinak izaten jarraitzen dute, euskal estatu sozialista, euskalduna eta femi-nista eskuratzea". Hori abia-puntu oinarri nagusiak landu dituztela jakinarazi du Deba-goieneko Sortuk, eta helburuok lortzeko "bidea egitea erabaki du Ezker Abertzaleak. Gu bagoaz, guk erabaki eta eraiki-tzera, euskal bidea egitera".
Hori jakinarazteaz bat, dato-zen egunotarako herri batza-rretarako dei egin du Sortuk: Bergaran eguaztenean (mar-txoaren 5ean), 18:30ean, Irizar jauregian; Antzuolan martxoaren 8an, 10:00etan, Olaran etxean; Oñatin martxoaren 22an, 10:00e-tan, gaztelekuan; eta Arrasaten, Aretxabaletan eta Elgetan data jartzeko dute.

Lehentasanak
Batzarrotan aurkeztuko dituz-tenen artean, jakinaraziko dute lehentasanak hiru direla: "Gatazkaren ondorioak kon-pontzea" (preso eta iheslarien etxeratzea eta ETaren arma-gabetze ordenatu eta adostua, besteak beste); "gatazkaren arrazoiak konpontzea" (eraba-kitzeko eskubidea) eta "nazio eraikuntza eta eraldaketa sozia-la" (euskal lurraldeen arteko batasun politiko eta instituzio-nala eta euskararen ofizialta-suna, besteak beste).

Gamarrako Ostalaritza Eskolatik pasa diren debagoiendarrei bazkarirako gonbita egin diete

Gamarrako Ostalaritza Eskolak 25 urte betetzen dituela-eta, ekai-naren 1ean bazkaria egingo dute. "Eskolatik pasa direnekin bildu nahiko genuke bazkari horretan, bai ikasleekin eta baita eskolako langileekin ere (...) Eta hainbat irakasle bailarakoak gara, zer esan ikasle izan direnei, direnei eta izango direnei buruz...", diote anto-latzaileei. Eta jakinarazi dute izena maiatzaren 10a baino lehen eman behar dela, hemen: 945 25 80 25 telefonoan edo *gamarra@kaioa.hosteleriaigamarra.com* helbidean, 25 euro ordainduta.

Gida 2014 egunotan iritsiko da debagoiendarren postontzietara

Interneteko gida berritu, osatu eta erakargarriago egiteko saiakera egin da

UBANE MADERA | DEBAGOIENA
Lau hilabeteren ostean, atzo (egue-na) hasi ziren Goiena Komunikazio Taldearen Gida 2014 banatzen. Astebetez egongo dira banaketa lanok egiten, 20.000 ale banatu behar dira eta Debagoiengan. Hiru dira banatuko dituzten gidak: Oñatirakoa, Bergara-Antzuola-Elgetarakoa eta Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Aramaio-Leintz Gatzagarakoa.

Gida eskuratuko dute Goiena Klubeko bazkideek, egubakoitze-ko GOIENA papera jasotzen dutenek eta gidan azaltzen diren negozio-dunek, guztiek doan, betiere, norberari dagokion herriko edo esparruko gida bada. Edozein modutan, "herri batekoak beste herri batekoa jaso nahi izanez gero, aukera dago diru kopurutxo bat ordainduta gainontzeko horiek ere jasotzeko. Gurekin harremanetan jarri besterik ez dago", azpimarratu du Mireia Larrañagak, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari komertzialak.


Internetekoa indartuta
Edozelan ere, azken urteotan moduan, papereko formatua ez da izango Goienaren gida esku-ragai izateko modu bakarra. Teknologia berrietara egokituta dago zeharo zerbitzu hori, eta Interneten eta smartphoneetan ere era-

bilgarri izango da. Smartphoneetan negozio edo komertzioetara deitzeko aukerarekin, gainera.

Are gehiago, aurtun Interneteko gida berritzera, osatzera eta erabiltzaile zein bezeroarendako erakargarriago egitera bideratu ditu indar asko Goienako talde komertzialak. "Badira pare bat urte paperean agertzen diren komertzio eta negozioak Interneten ere ateratzen ditugula, baina iaz egin genuen saiakera inportantea bezeroei erakusleihoa emateko Interneten, eta erabaki genuen aurreago ere joan behar genuela, euren produktua kudeatzeko aukera emanda. Hala, negozioaren gaineko informazioa sartzeaz gain, saltzen dituen produktuak erakusteko aukera dute. Jarri ahal izango ditu, esaterako, eskaintza sasoian lehengo eta oraingo prezioak. Hori bai, ezingo dena da

bertatik erosi. Erakusteko leku bat da", azaldu du Larrañagak.

Gida, erakargarriago
"Gidako negozioei bidaliko diegu posta bat klabe batekin, euren erakusleihori kudeatzeko aukera izan dezaten. Edozelan ere, aurtun jarraipena egingo zaie, eta euren kabuz ez badira moldatzen, eskainiko zaie kudeaketa edo mantenua Goienak berak egitea. Izan ere, askotan, halako eskaintzak erakargarriak izan arren, laguntza baino gehiago buruhauste bilakatzen dira, eta, hori horrela, aholkularitza edo laguntza eskainiko zaie Goienatik. Era berean, teknologia berrien lanketa horrek gure gida erakargarriago bilakatu du negoziadunendako, eta guk uste dugu erakargarriago izango dela, baita ere, erabiltzaileendako", gaineratu du. Hori guztia *goiena.net* atarian dago erabilgarri. Hain justu, smartphoneetatik zuzenean negozioetara deitzeko aukera Goienaren Interneteko atariak ematen du: "Adibidez, zapatu gauean norabait afaltzera joateko telefonoa behar izanez gero, *goiena.net/gida* jarrita bilatzailean, direktorio guztia azalduko litzateke, eta bertatik eskuratzeko aukera izango da eta baita smarphonetik bertatik deitzekoa ere.



Banatzen diharduten hiru giden azalak. | IMANOL SORIANO

Laboral Kutxak 104 milioi euroko irabaziak izan ditu iazko jardunean

ENEO AZKARATE | DEBAGOIENA
Balorazio positiboa, finantza-negozioa gestionatzeko egoera "konplexu honetan", negozio-bolumenak oro har "jaiatsi direlarik", interes-tasak "minimo historikoetan" daudelarik eta berankortasun-mailak "goian" jarraitzen duelarik. "Are gehiago, datuek balantze orekatua erakusten dute,

kapitalizazio- eta hornikuntza-maila altuarekin".

Iazko jardunaren emaitzak eman zituen ezagutzera Laboral Kutxak. Dio datuek "ohiko negozioaren sendotasuna" jartzen dutela agerian eta horri esker Entitateak Gestio Planeko aurreikuspenak bete dituela: 104 milioi euroko mozkin konsolidatu garbiarekin.

Bategitea, "arrakastaz"
Bestalde, joan den ekitaldian Laboral Kutxak burututzat jo zituen finantza-negozioa eta Aseguruen sare komertziala bat egiteko prozesuak. Biak ala biak "arrakastaz" gauzatu direla dio Laboral Kutxak, bai "pertsonak bat egitean, bai prozesu komertzialetan, bai sistema informatiko eta bezeroekiko operatiboan". Guztietan ere "kalitate-maila altua eskuratu eta diseinuan aurreikusitako aurreikuspen eta epeak bete egin ditu" erakundeak.



Asier Agirre, baserrian landutako produktuekin. | UBANE MADERA

Asier Agirre | Erein Da Jan ekimeneko kidea

"Bertako produktu eta kontsumoaren gainean debate beharra dago"

Burokrazia lanak bukatzeaz, laster gorpuztuko da Erein Da Jan kooperatiba, lege ikuspuntutik

U.M. | DEBAGOIENA
Asier Agirre (Aramaio, 1974) Erein Da Jan ekimeneko kidea da. Datorren asterako mahai-inguru irekia antolatu du Erein Da Janek: eguaztenean, 18:30ean, Arrasaten, Kulturaten. Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista usurbildarra, Amaia Diaz de Monsterioguren dietista oñatiarra eta Pello Zabala frantziskotarra dira hizlari. **Zer nahi duzue azaleratu hizlari horien bitartez?**

Gizartean sensibilizazioa sortu beharra ikusten dugu. Debatea, bertako produktuen eta kontsumoaren gainean. Eta zer hobe hiru pertsona interesgarri horiek baino. Jakobak ibilbide oparoa dauka eta erreferente da lehen sektorean; batez ere, ekoizleendako. Amaia, berriz, ekologiarekiko eta kontsumo egokiarekiko oso kontzientziatuta dagoen dietista da; eta horren gainean hausnartzea merezi du, osasunean zuzeneko eragina duelako bertakoa jateak eta ondo jateak. Eta Pellok bertako ekonomiaren gaineko hausnarketa eragingo du. Hemen lehen ekonomia lokala zegoen lehen sektorearen gainean, bertatik familia asko bizi ziren eta garrantzi handia zuen. Hamarkada batzuetatik hona, baina, industriak hori guztia jan egin zuen. Pellok lehen zer zen eta orain zer den hausnarketa eragingo du. Eta azalduko du ze garrantzitsua den euroa (dirua) hemen mugitzea. Izan ere, dirua bailaratik edo Euskal Herritik kanpora bidaltzen dugun momentuan, hori ez dator bueltan. Eta Erein Da Jan-en kontsumituko duenak, berriz, bermatuko du diru hori ehuneko handiengan bertan geratzea: bertako ekoizle eta baserritarrei ematea. Eta bertako ekoizle horiek ere bertan gastatuko dute: zerbitzuetan, ostalaritzan, komertzioetan.

Mahai-inguruaren ostean beste-lako ekimenik baduzue esku artean?

Bai, bazkide-tza kanpaina abiarazi behar dugu. Erein Da Jan kooperatiba izango da; bertako bazkide izan ahal da kuota txiki bat ordainduta zein bertan kontsumituta. Eta kanpaina horrekin bazkideak egin gura ditugu, horrek berorrek ibilbide seguruagoa emango diolako kooperatibari.

Zelako garapena izan du Erein Da Jan ekimenak aurkeztu zenetik hona [urte eta erdi]?

Langile bat liberatuta dago lanaldi osoz, eta horrek ekarri du burokrazia lanak aurreratzea. Eta horri esker, epe motzean denda irekitzeko moduan izango gara. Era berean, orain arte ez da nahi izan bazkideak zoroen pare egiten ibili, ekoizleak marea-tzen ibili... oinarri sendo hori landu arte (burokrazia). Proiektu serioa planteatuko dugu, bailaran estrategikoa, eta herri guztietarakoa. Bestalde, orain arteko bidean laguntza handia eskuratu dugu Euskal Herri mailan antzerako helburuekin diharduten elkar-teengandik. Adibidez, azpimarratzekoa da Iruñeko Landare Produktu Ekologikoen Kontsumitzaileen Elkarte (landare.org). Guretzat erreferente dira. 21 urte daramatzate funtzionatzen, 2.300 bazkide dituzte, milioi bat euro pasako fakturazioa eta 17 langile. Eta bestalde, Gipuzkoako Diputazioarengandik babes eta diru laguntza handiagoa ere eskuratu dugu.

"Jende gaztea, ilusioa duena... erakarri nahiko genuke hitzaldira"

ZABALIK

JOXAN LARRAÑAGA
goiena.net/komunitatea/



Eskandalua!

Egunero bezala, bazkalostean sofan eseri nintzen berriak entzuteko; berri txarrak ematen ari ziren etengabe: hainbat eta hainbat enpresaren itxiera, konkurtso aurrekoak edo grebak, ixteko beldurrez daudelako.

2014ko urtarrilaren 31 zen, eta berri txar horien guztien atzetik hasi zen esataria BBVak eta La Caixak 2013an izan duten etekina aipatzen: BBVak 2.228 milioi euro (%33) eta La Caixak 513 milioi euro (%100) baino gehiago.

Haserrea sortu zitzaidan, amorrua, indignazioa. Zer-nolako mundua eratzen ari ote gara?

Krisialdi hau bankuen erruz sortu omen zen, estatuak dirua eman zien, eta krisia gordinik baino gordinago dagoen garaian hortxe dira, harro-harro, euren etekinak erakutsiz banku guztiak. Aspaldiko pentsaera dugu: diruak ez du ez aberririk, ez bihotzik, ez banderarik.

Hona sistemaren minbizia zein den: diruak agintzen duela, eta ez irizpide etikotik. Ez dakit nork izan behar duen, baina estatuak edo justiziak, etikaren izenean, elkartasunaren izenean, berdintasunaren izenean, kontrolatu beharko lituzke bankuek dituzten etekinak eta denon ongizatearen aldeko ekarpena egitera behartu.

Mundua aldatu nahi badugu, dagoena banatu eta gosea, sufri-mendua, pobreen eta aberatsen arteko desberdintasuna bukatu, etikak eta justiziak ekonomiaren gainetik egon beharko lukete.

Ekonomia eta merkaturia nagusitu dira munduan eta txotxongiloak bezalaxe tratatzen gaituzte ekonomiaren arabera. Nik uste dut iritsi dela aldatzen hasteko ordua.

Badaude alternatibak bai enpresetarako, baita bankuetarako ere, helburu nagusia irabazia eta etekinak ateratzea baino gehiago, justizia eta etika dituztenak: banku etikoak, guztien ona bilatzen duten enpresak, kooperatibismoa...

Beste mundu bat posible dela aldarrikatu behar dugu: ez gaitezen isildu!

"Sistemaren minbizia: diruak agintzen du, eta ez irizpide etikotik"

USTEAK USTE

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL | zvelez@goiena.com

Gura ez izatea, euren arrazoia

Gaur zortzi ezagutu genuen ETAk armak erabileraz kanpo uzteari ekin diola, eta ordutik, makina bat izan dira albisteak eragindako erreakzioak. Horietatik okerreana, nire ustez, nazioarteko egiaztatzaileek Auzitegi Nazionalen deklaratu behar izatea. Okerrena esan dut, logikatik kanpo geratzen delako; baina akaso, ona ere izan daiteke, estatuko mugetatik at agerian geratu baita gobernu espainolaren boron-daterik eza. Makina bat arrazoi emango dute euren jarrera justifikatzeko: zigilatutako armak aurretik ere zaharkituta zeudela; antzerki moduan kalifikatuko dute egindako urratsa... Egoerari konponbidea eman gura ez izatea da euren jarreraren arrazoia.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Futbolista gaztetxoek umezurtzak izan beharko lukete

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino/

"Futbolista gaztetxoek umezurtzak izan beharko lukete". Esaldi hau entzun nion orain hurrengo oinarritzko futboleko urte asko musu truk daraman gizonezkoari. Ez zuen esangura, jakina, futbolista gaztetxoek klubarenak izan beharko luketenik, gero eta gehiago direla baizik euren semeen futbol-zaletasuna gaiztotzen diharduten gurasoak.

Ez da kontu berria. Urteak dira, ikastolarteko futbol-lehiaketan sari-emaile azaldu behar izan nuelarik, erabat txunditu ninduela makinatxo bat gurasoren (aitaren) jokabideak. Urtebete inguru da, berriz, Athletic-ek gonbidatu ninduela parte hartu nezan Bizkaiko harrobiaz (edo harrobirik ezaz) eratutako mahai-inguruan. Hona non, besteak beste, gurasoen larregizko "ardura" edo "interesa" arazo bihurtu den

mutikoen mailako futboleko. Futboleko alegia, ez kiroleko. Hain zuzen ere, futbolaren kaltetan eta beste hainbat kirol-motaren mesedetan.

Futbol handi-mandiaren aparrak (arrakastak, ospeak, diruak...) zorabiatu ditu nonbait gurasoak, eta euren nahitaezinezkoek, sasi-anbizioek, jokoa errenta izan dadin grina eta itxaropen ustelek baldintzatu eta itxuraldatu dute semeen zaletasuna. Ariketa fisikoa, kirol-guraria, denborapasa, lagunartekoa edo jolasaldia izan beharrean, norgehiagoka gordina bihurtu da mutikoen futbola, borroka latza, lehia zorrotza, elkar gaiztatu eta erasan beharreko joko gotorra.

Ez dut gogoratzen gure aita zena sekula joan zenik Txantxa-Zelaira ni futboleko ikustera. Esango nuke esan birritan-edo joan nintzela nire semeren bat apa-apal animatzera Ipuruara. Gaur egun, ordea, partida ofizialetara ez ezik entrenamendu guztietara orroaz joan ohi den gurasorik ere bada. Segurutzik lehengo gurasoak ardurabako samarrak izan ginen. Baina egungo asko eta asko zeharo zoraturik daude. Hori bai, orduko guraso ganorabakook elastiko proposa erosteaz

arduratu ohi ginen, eta oraingo guraso interesatuek, oster, ekipamendu guztia inork ordaindu behar diela uste dute.

Egungo gurasoek jakin badakite euren semea dena taldeko abilena, jokalaririk trebeena eta etorkizunik onena duena. Gauza dira entrenatzailea astintzeko euren semea hautatzen ez badu, ez dute inoiz bakean uzten erreferiaren ama eta txitean pitean haserretzen dira gainerako jokalarien gurasoekin, taldekideak izan ala ez.

Badira hamabi urte inguruko mutikoen gurasoak euren semeek zenbat minututan jokatzen duten jakiteko (eta gero entrenatzaileari kontu hartzeko) estatistikak egiten dituztenak. Badira gurasoak astegun buruzuriko entrenamendu guztietara joaten direnak, eta partida amaitu ondoren semearen arropa-zorroa euren bizkar hartzen dutenak, etxeko "izarrak" lagunekin whatsappatzen duen bitartean.

Eta, aldi berean, izan ere badira gurasoak semea futboletik atera dutenak, beste edozein kirol inguruko giroa zatia mesedegarriagoa delakoan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uliane Madera
Sailatuko arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Zieritz Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Nobedade gutxi

Ander Bolibar Zabala

Bergara

Gaur udal musika bandak eta orkestrak Aratusteetako kontzertuan Novedades zinema aretoaren azken saioa antzeztuko dute erabilera anitzeko frontoian. Bertan, zinemaren historian mugarri izan diren filmen soinu bandak entzuteko aukera izango dugu.

Zinema orain aldarria lehenaldian gelditzeak mintzen gaituenok ezin zinema areto baten beharraz mintzatzeko aukera baliatu gabe utzi. Zinema aretorik gabeko herri izateari buruz egindako *Eta orain zer?* dokumentalean argi diosku Asier Altunak: "Bere garaian zinema mantentzea ez zen lehentasuna izan".

Kulturxiliatuak gara askotan bergararrok. Kanpora mugitu behar herrian ikusi ezin dugunaz gozatzera. Inbidia pizten zaigu *Nuovo Cinema Paradiso* filmean lepo beteriko aretoa nahiko ez, eta irudiak plaza ere hartzen duenean.

Aldarria uler bedi, kritika ez doa Udalera zuzendua (zine-egotzietara, hitz jokoa barkatzen badidazue), herrikideok beharren zerrendatik aretoa etsitasun edo normaltasunez kentzeari baizik. Herri presioari autokritika.

Toberak gogoratu zigun Etxebestek erakutsia; itxurazkoak gara, itxuroso jantzi arren. Aratusteetan satiraz mozorrotzen bagara, gure buruaz barre egin, eta duguna baino, izan nahiko genukeena irudikatzen dugu. Zorionak gaurkoan herri zinemazale bat antzetztea erabaki duzenoi. Ospa dezagun dugun kultura musikala, ditugun gainontzeko gabeziak gogoratzeko bideratzen den bitartean, behintzat.

Zein borondatez ari haiz heu, Aitzol?

Euge Arrizabalaga Olaizola

(Antzuolako EAJ-PNVko udal taldeko kidea)
Antzuola

Aitzol Iturberen idatzi txikia *(Ze ote da borondatea?)* irakurri dudanean irribarreari ezin eutsi izan diot. Ez da izan borondate txarreko barrea, ez pentsa, lasaitasunezkoa baizik, ez baitzait erraza zinegotzi "parakaidista" izanik, Antzuolako zinegotzi izateak berekin duen lanari behar bezala erantzuten diodan zalantzari aurre egitea. Ahal dudan neurrian saiatzen naiz, baina batetik urruti bizitzeak, bestetik herriaren ezagutza mugatuak eta, nola ez, kanpotarra izanda herritarrei zor diedan

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

begiruneak berak dezente baldintzatzen naute.

Zerrendan joateari baietz esan nionean borondate onez egin nuen, eta batez ere, konpromiso politikoari men eginez. Antzuolako herri-eragile eta auzolanean dihardutenek herri-konpromisoari lotzen dioten bezala beren lana, nik ere neure lanean horri heltzen diot: askok eta askok (baita antzuolarren artean ere askok) osatzen dugun proiektu politikoari.

Ez noski Aitzol Iturberen proiektuari, geureari baizik: EAJrenari. Zilegitasun osoz, esango nuke, portzierto, Aitzolen baimenaren beharrik gabe.

Zerbaitekin bat etorri banaiz beti hauxe izan da: bakoitzak bere iritzi politikoa izateko duen eskubidearekin. Aitzoli, nola ez, aitortzen diodan eskubidea, eta berari ez ezik, neure buruari ere aitortzea besterik geratzen ez zaidana.

Bestelako noranzkoan ematen al da eskubide horren errespetua? Iturberena irakurrita... ezetz dirudi.

Baina, gutxienez, eskertzen diot Aitzoli goian aipatutako zalantza argitu izana: nire muga guztiekin bada ere, Antzuolako Bildurentzat (edo hobeto esanda, Sorturentzat, iturbetarrak –ama, aita, anaia eta osaba– non dauden jakiteko adina ezagutuzen baitut Antzuola) deseroso samarra naiz. Eta erabateko gehiengoa duenarentzat "traba" izatea lortzeak ez pentsa ez duenik bere merezimendu txikia...

Dena den, argi gera bezaio Aitzoli ez dela nire borondatea traba egiteagatik traba egitea. Ez da hori gure asmoa, inondik inora, ez Mikel Leterena, ez nirea eta ez, oro har, EAJrena. Beraz, inork ez dit ez den helburua gauzatzeagatik ezer ordaintzen.

Gure asmoa geure iritzia azaltzea besterik ez da. Eta iritzia azaltze hutsa Aitzolek eta beste batzuek "traba egitearekin" nahasten badute, oso oker dabiltza. Etxekoetatik haratago, Aitzol, bada mundurik Antzuolan.

Nire "jarrera gaiztoengatik" "pikutara bidal nazatela" eskatzen du Iturbek... Akaso beretarrek eskatzen dutela eta asmoan jarraituko dionik izango da, baina konpromiso politikoarenak horrelakoak ere jasatera eramaten gaitu.

Tira, nire jarreraren "gaiztakeria" zertan antzematen ote duen harriduraz jakin nahian geratzen naizela, azken gogoeta bat: Ezker Abertzalearen oposizioa egiteko estiloa ondotxo eta ondo-ondotik ezagutzeko aukera izan dugunoi irribarrea nahi gabe ateratzen zaigu gobernatzen ari den Ezker Abertzalearen izaera milika agerian geratzen denean.

Oñatiko EAJ-PNVren aurkako erasoak, iraganeko garaien ispilu

Mikel Iturrospe

(Oñatiko EAJ-PNVren izenean)
Oñati

Azken egun hauetan Oñatiko kaleetan kartel eta pegatina iraingarriak ikusi ditugu Lourdes Idoiagaren, udaletxeko gure bozeramailearen, irudia erabiliz. *Lourdes lapurra* lelopean, iraganeko salaketak egin dituzte kanpaina honen egileek. EAJ-PNVren eta bereziki Lourdes Idoiagaren aurkako kanpaina honen helburua alderdia eta pertsona beldurtzea, desprestigiatzea eta oñatiarren gogoan eragitea baldin bada, 119 urte dituen alderdi politiko abertzale honek, EAJ-PNVk, argi eta garbi esaten die aurpegia estalita kartel hauek jartzen ibili diren *balienteei* iraganeko garaietan kokatuta jarraitu nahi badute oñatiar eta euskaldun guztion bake nahiari bizkarra eman diotela. Diana batean pertsona bat jartzea oso erraza da eta ezker abertzalearen praktika izan da urte askotan zehar. Giza eskubideen aldeko apustua egin du beti EAJk, bakearen aldeko apustua eta normalizazio politikoaren aldekoa, eta horrelaxe jarraituko dugu.

Oñatiko kanpaina honekin batera, denbora berean, Eskoriatzako batzokian ikurrina desagertu da, eta gure alderdikide batek idatzi duenez, ez dirudi Ynestrillas eta bere lagunak izan direnik, hortik metro gutxitara dagoen beste ikurrina bat bakean utzi baitute. Ynestrillas ez, baina

kanpaina hauen egileak ultraeskuindar espainolak praktikatzen duen faxismoaren parekoak dira oñatiar enkaputxatu baliente hauek bezalaxe. EAJ-PNV ez da kikilduko ekintza hauen aurrean. Kartelak jarriko dituzte demokrazian eztabaidetan aritzeko argumenturik ez daukaten *ekintzaile* hauek, pertsonak eta bere ibilbideak zalantzan jartzen eta iraintzen saiatuko dira, baina gauza bat esan nahi diegu argi eta garbi: ez gara probokazioetan jausiko. EAJ-PNVk beti egin du giza eskubide guztien alde, beti egin du bakearen alde eta, batez ere, sinesten dugu Euskal Herri baketsu eta normalizatu baten bidean gaudela, eta horren aldeko apustuan jarraituko dugu. Oñatiko *komando kartel*-eko baliente hauek zeren aldeko apustua egiten dute? Oñatiarren arteko liskarraren alde? Argumentu eta metodo patetikoen alde? Ala Euskaldunon normalizazio eta bakearen aurka? Zuen salaketaren harira, ez zarete nonbait oraindik ohartu gaur egun ideia politiko guztiak daudela legalizatuta, guztiok duzuela ahotsa emateko eskubidea, baina aurrez aurre, aurpegira, ez duzue kaputxaren beharrik eta gauez kartelak jartzen ibili beharrik. Esan beharrekoa esan egiguzue egunez, oñatiarren aurrean eta aurrez aurre.

Juananekua

Maite Aginagalde Garitano

(Zubittan hazitakoa)
Bergara

Bergarako Zubitta kalean dagoen denda da Juananekua. Zubittak gaur egun dauzkan bi dendetarikو bat da eta bera otsail bukaeran itxiko da, Arantzak ondo merezitako erretiroa hartzea pentsatu baitu.

Izan dira beste batzuk ere arrazoi berarengatik edota beste batzuegatik itxi direnak. Gure haurtzaroko mapakoak dira Joxe Marireneko harategia, Zesteruanekua, Arandonekua, Joakinanekua, Beheko denda... Denak ere harribitxiak. Kanpora begirako apaingarri gutxikoak, barruan izan dutelako distira.

Zubittan izan diren beste denda guztiek bezalaxe,

Juananekuak ere ez dauka hizki handiko kartel ikusgarririk ateburuan; hala ere, ezaguna da ez auzoan eta herrian bakarrik, baita bailaran ere. Arantza baino lehenago, Juana eta Daniel ezagutu genituen bertan (jende diskretu eta goxoa, inondik ere). Zenbat pena goxatu ote dituzte, penarik kontatu barik, mostradore aurre horretan! Sal-eroste hutsa baino askoz gehiago eskainiz beti.

Mila-mila esker denagatik eta ondo bizi, Arantza!

Euskal Herria ez da nazio

Jon Otero Uribarren

Arrasate

Gai polemikoa da, batez ere nafar abertzaleendako. Baina zer da nazio bat? Estatu berezi bat sortua duen edo sortu nahi duen herrialdeen batasuna. Hau da, Jaurilaritzarako azken hauteskundeetan Gipuzkoan gehiengoa izan ginen abertzaleak, baita Bizkaian ere, eta, ozta-ozta, baina Araban abertzaleok irabazi genuen. Beraz, hiru herrialde horietan nazio bat dago, borondate bat independentziarako. Nafarroan ez: azken hauteskundeetan abertzaleok ginen %30. Han UPN, PSN eta PP daude gehiengo erabat, espainolistak. Pozik daude Espainian. Beraz, herrialde hori ez da euskal nazio. Iparraldean berdin, %10 soilik gara abertzaleak; beraz, Iparraldea ez da euskal nazio.

Gure herria bai, gure herria Euskal Herri osoa da, Zazpiak Bat. Baina gure nazioa Hirurak Bat da. Aberria ez dakit, Tuteran orain dela 2.000 urte galdu zen euskara, eta nire aberria euskara da. Han non egiten den euskara, han dago nire aberria. Baina gure nazioa Euskadi da, hots, Hirurak Bat. Euskadi bai da euskal nazioaren izena.

Baina Euskadiko alderdi abertzaleek nahi dute Nafarroa eta Iparraldea atxikitu demokratikoki independentzia aldarrikatzeko autodeterminazio erreferendum bidez. Hala ere, frantsesek ez dute nahi eta nafar espainolistek ere ez dute nahi autodeterminaziorik, eta are gutxiago independentziarik. Zer arraio, beraz! Bada, abertzaleek nahi dute itxaron 50 urte edo Iparraldearen kasuan 200 urte, Iparraldea demokratikoki abertzaletu arte, eta, nola ez, Nafarroa. Hemendik 50 urtera posible izango delakoan gehiengoak eskatzea Hego Euskal Herriaren independentzia. Eta ordura arte, itxarotea. Nik ez dut horrenbesteko pazientziarik, nik berehala nahi dut Euskadi aske ikusi. Itxaron beharrik gabe Nafarroaren urrats abertzaleei.

Ane Irazabal | 'Freelance' kazetaria Ekialde Hurbilean

"Nire miresmen guztia daukate Ekialde Hurbilean ezagutu ditudan emakumeek"

- Arrasatearrak Palestinan eta Egipton dihardu bere kontura berriak mundura zabaltzen
- "Batzuetan bakarrik sentitzen zara, galduta, batere erreferentziarik barik" dio

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Ane Irazabal (Arrasate, 29 urte) Ekialde Hurbileko kazetari berriemaile ezaguna da. Sarri ikusi izan dugu ETBn Egiptoko egoeraren berri ematen, besteak beste. Izan ere, han dihardu lanean, gaur egun, *freelance* modura. Gutxitan etortzen da Euskal Herrira, baina oraingo astean gurean da. MUko Ikus-entzunezkoen Komunikazio campusak antolatutako Komunikaldian parte hartzera gonbidatuta etorri da.

Freelance kazetaria naiz eta harro nago izan da Komunikaldian egin duzun berbaldiaren titulua. Gustura?

Bai, bere gauza on eta txarrak ditu lanbide honek, eta zaila da norbere kontura munduan zehar gertatzen diren gauzak kontatzen ibiltzea, baina posible da. Nire pasio bat ogibide bihurtu dut. **Ikus-entzunezkoak ez ezik, Historia ikasketak ere eginak dituzu.**

Beti gustatu izan zait historia. Halere, Batxilergoa amaitu nuen zaila izan zela Zientzia Politikoak ikasten hasi nintzen Bartzelonan. Berehala konturatu nintzen hura ez zela nik gura nuena eta Euskal Herrira itzuli nintzen Historia ikastera. EHUn, Gasteizen, ikasi nuen eta amaitzen nengoela MUko Ikus-entzunezkoetan ere hasi nintzen ikasten.

Eredu zara, neurri baten, Aretxabaletako campusean ikasten dau denendako, ezta?

Beno, nik neuk ere ez dakit hemendik hilabete bira non egongo naizen lanean. Oso ezegonkorra da lanbide hau, oztopoz beterikoa. Balio duzu zure azken kronikak balio duena.

Nondik datorkizu kazetaritzarako eta jendeari historiak kontatzeko har hori?

Betitik. Nazioarteko kazetaritzak asko erakartzen nau. Berezik, Historia ikasketak egin nituenetik. Egungo Historian espezializatu nintzen, II. Mundu Gerraren ostetik aurrerakoan. Izugarri interesatzen zait zela izan ziren deskonolizazio prozesuak munduan. Beti eduki izan dut mito modukoa bat Palestinako gatazkaren inguruan eta beti gura izan dut hango berri eman.

Oinarri historiko eta kultural aberatsa eman dizu Historia ikasketak egin izanak?

Bai. Kazetari izateko irakurri egin behar da asko. Ez ditut ulertzen irakurri eta idazten ez duten kazetariak, nahiz eta, gero, telebistan edo irratan jardun. Oina-

rrri ona edukitzea eta testuingurua osatzeko elementuak edukitzea oso inportantea da.

Karrera amaitu eta Palestinara joan zinen lehenbizi. Zergatik?

Karrera amaierako proiektua 2010ean aurkeztu eta irailean Palestinara joan nintzen. Belengo albiste agentzia txiki batekin jarri nintzen harremanetan: International Middle East Media Agency. Eta lortu nuen hiru hilabete haiekin lanean aritzea. Bisatua amaitu zitzaidanean itzuli egin nintzen etxera, baina ordu-rako erabakita neukan neure buruari aukera eman eta neure kontura albisteak ematera Ekialde Hurbilera joatea.

Gero, Palestinara itzuli zinen 2011-ko apirilean?

Bai, eta Udaberri Arabiarraren eraginarengatik protestak izan ziren Palestinan ere, gazteen artean bereziki, Fatah eta Hamasen arteko gatazka konpontzeko eskatzeko. Lortu zen akordioa eta oso interesgarria izan zen. Baina konturatu nintzen momentu hori ganoraz jarraitzeko ez zela nahikoa Palestinan geratzea eta protesta uholde haiek jarraitu nituen Tunisian, Egipton...

Une erabakigarrian eta dagokion tokian egotea tokatu zitzaizun.

Bai, zortea izan nuen. Orain iraultza haren biharamuna tokatzen da. Baina une hura ilusio handikoa izan zen eta albiste ugari sortu zuen.

Udaberri Arabiarrak; Palestina eta Israelen artekoa. Konponduko da inoiz gatazka hori?

Uste dut ezetz. Konponduko da benetan nazioarteko komunitateak bere erantzukizuna hartzen badu, baina ez dut uste hori gertatuko denik. Geroago eta argiago ikusten dut bi estaturen arteko irtenbidea ez dela posible. Israelek geroago eta kolonia gehiago ditu Zisjordanian okupatuan eta Ekialdeko Jerusalem. Zigorgabetasun osoz jarduten duten bitartean ez dauka atzera itzulera. Gainera, ez da Israel bakarrik, *lobby* sionista guztia dauka. Izugarrizko eragina dauka nazioarteko politikan.

Une gordin-gordinak gertutik jarraitzea tokatu izan zaizu.

Iaz, Gazaren aurkako eraso oso gertutik jarraitu nuen, bertatik bertara, eta gogorra izan zen. Gazatarrek sentitzen duten inpotentzia gogorra da. Zaila izan zen horren berri ematerakoan inpotentzia hori islatzea, erabat blokeatuta baitzaude dagoen toki batetik berri ematen. Badakizu



Ane Irazabal martitzenean Arrasateko Garaian, Komunikaldian. | ENEKO AZKARATE

"Kazetaritza eta historia uztartuz, pasio bat ogibide bihurtu dut"

"Egiptoarrekin hitz eginda, usain zenezake ze etor daitekeen"

"Palestinarrekin justizia egin dela kontatzeak asko poztuko ninduke"

kazetari izatearren ez zaituztela erasotuko, baina erasotua izaten ari den herri batetik informatzen zabilta eta hori gogorra da. Orain arte kontatu ditudan kronikarik gogorrenak handik egin ditut. **Egipton, Kairon, zaude orain eta tokatu zaizu mundu guztia hara begira dagoenean zu zeu bertan egotea. Zortea?**

Intuizioak gidatzen nau, baina jakin egin behar da dagokion tokian eta unean egoten. Apustua egin dut azkeneko urtean Egipton geratzeko, gauza asko gertatzen ari dira-eta. Palestinatik harantz egin nuen. Egiptoarrekin hitz eginda, usain zenezake ze etor daitekeen. Esaterako, iazko estatu kolpea iragar zitekeen. Sinadura kanpaina antolatu zen Morsiren aurka hauteskundeak aurrera zitzala eskatuz. Morsik ez zuen kasurik egin. Manifestazioak antolatu ziren eta militarrek hori aprobetxatu zuten estatu kolpea emateko.

Aukera horiek aprobetxatzen jakin behar du kazetariak?

Bai, *freelance* naizen aldetik, are gehiago. Izan ere, esaterako, ETBko Ekialde Hurbileko berriemaile Mikel Aiestaran da.

Zelakoa da zure egunerokoa Kairon?

Asko irakurtzen dut, kalean asko kuxkuxeatzen dut eta gero proposamenak bidaltzen dizkiet hedabideei. Gaiaren arabera, hedabide bati edo besteari proposatzen diot. Esaterako, gazteen gaineko kontua bada, *Gaztezulo*-ri; gai sakonagoa bada, *Argia*-ri; politikako erreportajeak, *Berria*-ri... Gero, Euskadi Irratian astero sartzen naiz eta zerbait handia gertatzen bada, ETBrako egiten dut. Txileko aldizkari espezializatu batzundako ere egiten ditut kronikak...

Zein da freelance moduan aritzearen gauzarik onena eta txarrena?

Zeu zarela zeure buruaren jabe, eta horrek askatasuna ematen dizu hein baten. Eta okerrrena da, batzuetan, bakarrik sentitzen zarela, galduta, erreferentziarik barik eta zu zeu zarela erreferentzia bakarra, nahiz eta beste kazetari batzuegandik ikasi.

Ze albiste emango zenuke gustura? Palestinarrekin gutxieneko justizia egin dela kontatzeak asko poztuko ninduke.

Baldintzatu du zure lana emakume izateak?

Ez dut hori pentsatu gura. Egia da une batean emakumeen aurkako erasoak egon badira, inteligentia dela hara ez joatea emakumea bazara... Baina ez dut sentitu emakume izatearren gauza ez naizela leku batuetara iristeko. Gainera, emakume izatea, batzuetan, balio erantsia ere bada, emakumeekin sortzen den harremanarengatik. Eta Ekialde Hurbileko emakumeak dira benetako indarraren adibiderik garbiena. Nire miresmen guztia dute Ekialde Hurbilean ezagutu ditudan emakumeek. Niretako, haiengana heltzea, emakume izanda, abantaila bat da, kazetari gizonetzkoen aurrean. Egia da, beste batzuetan, kostatu izan zaidala batzuek serio hartzea emakume izatearren. Halakoetan, distantzia markatu, tinko jarri, eta lanera zoazela argi utzi behar diezu, serio har zaitzaten. Halakoetan oso gogorra naiz.

Elkarriketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





Tertulia

Gaurkotasuneko eztabaidak

Larraitz Zeberio aurkeztuta

► Egubakoitza, 19:00, 22:00 eta 00:20



Harira

Herri ordezkariekin elkarrizketak

Eneko Azkaratek aurkeztuta

- Martitzena, 22:00 eta 00:20.
- Parte hartzeko:
 - Posta elektronikoz: harira@goiena.com
 - Twitter: #harira
 - Whatsapp: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
 - Telegram: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
 - Erantzungailu automatikoa: 688 69 00 17

Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara

Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50




DUELA 10 URTE

2004-01-23

Torrebasoko hotela eraikitzen

Badira hamar urte hasi zirela Torrebaso industrialdeko hotela egiten (Mendigoia). Eta harekin batera, industrialde hori egokitze lanekin segitu zuten. Asmoa zen 50 bat enpresarendako eta jatetxe batendako lekua egokitzea, 36.800 metro koadrotan. Eta baita gaur egun horrenbeste herritarrek erabiltzen duten bidegorria eraikitzea ere. Hain justu, 1999an hasi ziren Torrebaso industrialdea eraikitzen, hainbat fasetan.



Industrialdea, bidegorri barik. | AINTZANE GARDOKI

2004-02-09

Osasun etxe berriko lanak

Osasun etxe berriko lanekin ere buru-belarri zebiltzan Eskoriatzan orain hamar urte. Kasu honetan, Eduardo Gorosarri plazan egokitu zuten osasun etxe berria. Besteak beste, ordura artekoak baino zerbitzu gehiago jarri zituzten berrian. 347.555 euroko aurrekontua bideratu zuten obretara. Eraikinaren ezaugarriei dagokienez, berriz, 408,27 metro koadro ditu guztira, eta horitatik, 347,48 metro koadro erabilgarri.

DUELA 5 URTE

2009-01-30

Labea berreskuratzera

Zubietako labearen balioa indartzeko proiektua onartu zuen Eskoriatzako Udalak, eta 96.526 euroko kostua aurreikusi zuen lanen lehen faserako. Ibarraundi museoaren barruan dago Zubietako labea, 2005ean Eskoriatzako Udalak eskuratu zuen zeramika labea, alegia. XIX. mendeko labea estilo arabiarrekoa da.

ESKORIATZA

HERRITARRAK

Josu Pagaldai Ganaduaekin mendian egotea eta hura zaintzea du zaletasun eskoriatzarrak. Harakin moduan 10 urte egin ditu eta lan horretan asko ikasi zuen abeltzaintzaz. | IMANOL BELOKI

"Nork bere zaletasunak ditu; nik ganadua zaintzea dut gustukoen"

Josu Pagaldai eskoriatzarra hamar urtez harakin lanean ibilitakoa da eta denbora librearen zati handi bat ganaduari eskaintzen dio. Hala ere, ez da bizi sektore honetatik, fabrika egiten du lan, baina abeltzaintza du afizio. Beti izan ditu gustuko behiak eta hainbat abentura ditu kontatzeko.

Zein da zure ogibidea?

Fabrika egiten dut lan. Soraluzeko langilea naiz, baina Ordizian egiten dut lan. Mantentze ikasketak egin nituen eta hori dut ogibide. Abeltzaintzako sektorea nire zaletasuna da soilik, baina ez da nire lanbidea. Lan honetatik bizi izatea zaila da; intentsiboago lan eginda, errendimendu handiagoko arrazekin... agian bizi daiteke. Araban, adibidez, lur-eremu asko dituen pertsona asko dago sektore honetatik bizi dena.

Gaztea zara, eta denbora librean abeltzaina, ez da ohiko irudia...

Nork bere zaletasunak ditu. Nik neuk ganadua zaintzea dut gustukoen. Gainera, ganaduzale asko dago herrian, gazteak ez izan arren.

Zein lan egiten ditu ganaduzale batek? Lan gogorra da?

Ganadua gobernatu, lursaila pixka bat garbitu, jaten eman, txahalak gizentzean harategira eraman... Ez da lan gogorra, baina ordu asko kentzen ditu. Gustura egiten den lana ez da gogorra izaten.

Zein abere mota eta zenbat dituzu?

Gehien gustatzen zaidan behi mota behi terreina edo bertako behia da. Mota honetako zazpi behi ditut eta mestizoak, aldiz, bederatzi. Betizu motako behiak ere asko gustatzen zaizkit, baina hauek lan handiagoa ematen dute. Nik ditudanak mendirako onak dira, eta okela ateratzeko



Josu Pagaldai, Bolibar auzoan duen etxola ondoko hesi gainean eserita. | IMANOL BELOKI

"Txahalak salduta galtzen irteten gara askotan; parra eginda, pozik"

"Ez da lan gogorra; gustura egiten den lana ez da gogorra izaten"

zaintzen ditut normalean. Esnea ematen duten behiak ez zaizkit gustatzen, lan handia ematen dute.

Zer da lanbidearen onena?

Udaberria da lanbidearen onena. Behiak sekulako distiraz egoten dira eta mendian garai horretan egotea asko gustatzen zait. Ganadutik ez dut etekin ekonomiko handirik ateratzen, baina lan honek ematen didan lasaitasunak ez du preziorik.

Zer diote zure lagunek zure afizio honetaz?

Ba, ez dakit zer esan... [Barre] *Ganadier* deitzen didate adarra jotzeko, baina ez didate besterik esaten. Txahala noiz jan behar dugun ari dira beti galdezka.

Krisia dela-eta eragin handia izan du sektore honek?

Pentsua igo egin da eta okelaren prezioa ez da igo. Behi asko dituztenak lehia daitezke merkatuan, baina bi edo hiru behi dituenak

ezin du ezer egin. Askotan, txahalak gizendu eta salduta dirua galtzen irteten gara; parra egin da, pozik gelditu behar...

Herrian harakin izan zinela eza-gutzen zaituzte askok; zer moduzko lana da?

Lan polita da, baina ordu asko sartu behar dira negozioa ondo joateko. 10 urte harategian egon ondoren, duela hiru urte utzi nuen lana. Pena eman zidan lan hura uzteak, baina asko ikasi nuela esan dezaket. Bezeroak haragi ona estimatzen du, bertakoa, eta, orokorrean, ondo jaten dute herritarrek. Hori bai, aste guztiak ez dira berdinak izaten eta batzuetan okela hobea ateratzen da beste batzuetan baino. **Ganadu-ferietara joaten zara sektoreaz gehiago ikasteko eta kontaktuak edukitzeko?**

Beharrezkoa da ganadu-ferietara joatea, baina gutxi joaten naiz. Normalean, Arrasateko feriara

eta Orozkokora bakarrik joaten naiz. Eraman izan ditut behiak, baina erakustera bakarrik. Behiak ez ditut inoiz saldu, ezta erosi ere ferietan.

Abereez gain, zein beste zaletasun dituzu?

Musika entzutea, lagunekin irteeta, lagun arteko afariak egitea eta, batez ere, bertsoak egitea. Azken hau ikustea ez zait askorik gustatzen, baina bertsoak egiten ikastea gustuko dut.

Istoria kuriosoren bat?

Askok ditut kontatzeko. Behin, behiekin ari nintzen Leteko inguruetan. Orduan, behi batek ihes egin zidan eta txakurrarekin atzetik joan nintzen. Behia galdu eta mendi aldera joan zela pentsatu nuen. Eguerdian, bazkaltzera jaitsi nintzenean behia herrian ari zela esan zidaten. Herriko plazatik pasatu eta behia pilotaleku ondoan harrapatu zuten herritar batzuek.

NIRE HERRIAN

KUADRILLEN ARTEKO GIROA

Gure kasuan, betiko lagun-taldea mantentzen dugu eta hori pozgarria da. Gainera, denok ezagutzen dugu elkar herrian, eta, adin askotarikoak izanda ere, ondo konpontzen gara guztiok. Horrez gain, herrian antolatzen diren ekintzak puntu positibo moduan hartzen ditut, hainbat ekitaldi antolatzen baitira.

GIROA JAITSI EGIN DA

Gauza asko daude herrian gustuko ez ditudanak. Batez ere, Aretxabaleta ondoan edukitzea [Barre]. Adarra jotzeko bakarrik esaten dut... Orain, serio esanda, herriko tabernetan giroa asko jaitsi da eta taberneak ez dute lehen zuten xarma. Krisia dela-eta, tabernak hutsak daude eta lehen zegoen giroa faltan sumatzen dut.

HERRIAK

ONATI

Sexologia aholkularitza martxoaren 7tik aurrera

- Desirak enpresak emango du eta 12 urtetik gorakoentzat da, baita guraso eta irakasleentzat ere
- Aurrez aurrekoetarako, gaztelekuan egongo dira egubakoitzetan, baina beste hainbat bide badira

JULEN IRIONDO | OÑATI

Herrian sexologia aholkularitza zerbitzua jartzea erabaki du Oñatiko Udalak –Gazteria eta Berdintasun sailetatik–, eta datorren egubakoitza da martxan hasteko aukeratutako eguna. 12 urtetik gorakoentzako doako zerbitzua da –adin mugarik gabe–, eta guraso eta irakasleek ere, adibidez, jo ahal izango dute bertara, seme-alaben edo ikasleren baten inguruan izan ditzaketen kezken berri ematera.

Lanerako esparrua izango da sexualitatea hitzaren adiera zabalenean. Zerbitzua emango duen Desirak enpresako Nahia Rojok dio gaur egun tresna eta bide asko ditugun arren ez dela beti informazioa, informazio egokia: "Mezu asko daude, eta toki askotan: Interneten, telesailetan... Adibidez, *La que se acerca* da gazteentzat *El libro gordo de Pete*te; eta, jakina, hor agertzen dena helduen begiekin ikusi behar da, eta jakin behar da dela parodia bat edo errealtatearen karikatura, eta arazoa da askotan gazteek ez dutela filtrorik".

Halakoen ondorioz estereotipoak sortzen direla dio Rojok: "Maitasun ereduaren inguruan eta gorputz ereduaren inguruan; nola, nola izan behar den neska bat mutil bati erakargarri izan dakion... Edo jarraitzen dugu pentsatzen mutilak defendatu behar duela neska, eta jelskoritasunaren bitartez erakusten dela maitasuna".

Aurrez aurreko zerbitzua gaztelekuan emango dute –bulego batean–, egubakoitzetan, 17:30e-



Lagun bat beste bat laztantzen. | GABRIEL DELGADO

tik 19:30era; lagun taldeka ere egin ahal izango dira kontsultak, eta aholkularia aukeratu ahal da, gizonetako edo emakumetako. Bestalde, telefonoz (943716094), e-postaz (txantxiku.sexu aholkularitza@gmail.com), facebook bidez (Oñatiko sexu aholkularitza) eta twitter-ez (@Sexu aholkuak) ere galdetu ahal da.

Sare sozialak, baina, ez dituzte kontsultetarako bakarrik erabili nahi, baita dinamizaziorako ere: "Ikusteke dago, baina planteatuko genituzke galderak, eztabaidak sortu, edo artikulatuak eta argazkiak igo; gustatuko litzaiguke zerbaite interaktiboa izatea

bili nahi, baita dinamizaziorako ere: "Ikusteke dago, baina planteatuko genituzke galderak, eztabaidak sortu, edo artikulatuak eta argazkiak igo; gustatuko litzaiguke zerbaite interaktiboa izatea

eta jendeak parta hartzea". Eta izan liteke tailerrak-eta egitea ere, "gazteriaren atentzioa deitzeko": "Tuppersex antzerakoren bat egingo dugu agian, edo tailerren bat ligatzearen inguruan; jendeak ezagut gaitzan".

Bestalde, preserbatiboak ere jarriko dituzte bulegora doazen eskura. "Helburua ez da jendea kondoi bila joan dadila", dena den, baizik eta gazteak erakartzea nahi dute, haiekin jarduteko, antisorgailuez edo beste gai batzuei buruz, Rojok dioenez.

Udaleko Gizarte Zerbitzuekin eta osasun zentroarekin elkarlanean jarduteko asmoa ere agertu dute: "Adibidez, emaginari galderearen bat egiten badio baten batek, hark izan dezake medikuntzaren ikuspegia, baina agian komeni zaio beste ikuspuntu bat; beraz, kontaktuan egongo ginateke".

Desirak: esperientzia

Desirak enpresa "sexologian eta berdintasun kontuetan adituak" diren pertsonak osatzen dute –Oñatitik kanporakoak dira–, eta formazioan aritzen dira: "Ematen ditugu sexu heziketa, genero ikastaroak eta aniztasun sexualaren inguruko ikastaroak Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan; eta ematen dugu formazioa irakasleentzat eta gurasoentzat ere". Eusko Jaurlaritzaren *Berdindu* izeneko zerbitzurako ere egiten dute lan.

Nahia Rojok argi uzten du berdintasuna eta sexologia "guztiz lotuta" daudela, eta berdintasuna "asko" bultzatzen dutela. Oñatiko sexologia zerbitzua abiarazteko, martxoaren 7rako merien-datxo bat antolatuko dute.

Berdintasuna bultzatu nahi du Udalak


Oñatiko Udaleko Berdintasun batzordeko buru Maialen Urzelaireren arabera, "garrantzi handikoa da genero parekidetasunaren printzipioak oso presente egotea zerbitzu honetan". Eta zerbitzuaren zergatiak buruz, ondorengo dio: "Batzordean egin dugun hausnarketa da gai hau landu izan dela eskoletan nahikoa modulu konkretu eta motzekin, baina agian ez dituztela asetzen adin tarte zehatz batean egon daitezkeen kezkak".

ESANAK

"Interaktiboa izatea, jendeak parte hartzea nahi dugu"

"Irakasleentzat eta gurasoentzat ere ematen dugu prestakuntza"

NAHIA ROJO | DESIRAK



GORKA SORALUZE

ARKITEKTO TEKNIKOA
ERAIKUNTZA INGENIARIA

www.gsarkitektoteknikoa.com

615 79 44 89

gorka@gsarkitektoteknikoa.com
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

- Eraikinen ikuskaritza teknikoak.
- Eraikinen ebaluazio txostenak.
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak.
- Merkataritza lokalak: jarduera proiektuak.
- Eraikin, etxebizitza eta merkataritza lokalen eraberritzeak.
- Aldamioen proiektuak.
- Eraikuntza lanen zuzendaritza.
- Peritatze judizialak.



Aratusteak: alaitasuna, kolorea eta umorea kalean

Festa gaur hasiko den arren, egun nagusiak bihar eta martitzena izango dira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Ohikotasuna alaitasunez mozo-rrotu eta kaleak poztasunez janzteko garaia iritsi da. Askorentzat mozorroak euren benetako aurpegia ezkutatzeko modua izan arren, beste askorentzat barruan duten alaitasuna kaleratzeko beste aitzakia bat dira.

Azken urteotan indar handia hartu duen eguna zapatua izan da. Bihar eguerdian astronautek pregoia irakurri ostean, festaren eta alaitasunaren txanda iritsiko da. Hasiera ordua zehaztua dagoen arren, amaiera ordua zehaztea zailagoa izango da.

Martitzena, aldiz, etxeko txikiei zuzendutako eguna izango da. Arratsaldean batzuek herriko plazako desfilean parte hartzen duten bitartean, etxeko txikienek Potxin eta Patxin pailazoen ikuskizunarekin gozatuko dute Amaia antzokian. Zapatuan bezala, martitzen gauean ere dantzaldia egongo da.

Gaztetxeko bazkaria

Aratuste jaietako komisioak aurtien bazkaririk antolatuko ez zuela iragarri ostean, gaztetxeak hartu du haren testigua. Festa giroari eutsi guran, herri bazkaria antolatu dute. Bihar, desfilearen, sari banaketaren eta ondoren etorriko den beharrezko poteoaren ostean, 14:30ean AGAKOK antolatutako bazkaria egingo dute Biteri plazako *gasolinera* ezagunean.

Arrasate Musikal

Jaiegun handia bihar izango den arren, herriko musika akademiak gaur ekingo dio Aratusteak ospatzeari. Arratsaldeko sei eta erdietan kontzertua eskainiko dute Amaia antzokian.

Festak, baina, kalean gozatzen dira; horregatik, herriko antzokiko erosotasuna albo batera utzi eta gero, Arrasate Musikaleko bandak girotuko du zapatu goiza. Lehenbizi, jaietako pregoiaren osteko desfilea girotu dute herriko musikariek. "Musika alaitasuna da, eta Aratusteetan ezin da alaitasunik eta musikarik



Urtero moduan, mozorroz beteko dira herriko kaleak. | JOSETXO ARANTZABAL

falta", horrela laburtzen du Edorta Aiastuik Aratusteetan bandak izango duen zeregina. Lehen emanaldi horren ostean, arratsaldeko seieta, desfilearen alaitasuna kutsatzeko, musikariek kalejira egingo dute.

Zapatukoa, baina, ez da Arrasate Musikalek festa hauei egingo dien ekarpen bakarra izango. Tradizioari eutsiz, martxoaren 9an, 12:30ean, Amaia antzokian,

Arrasate Musikaleko banda nagusiak Aratusteetako kontzertua eskainiko du.

Zoritzarrez, Aratusteek ez dute horren luze iraungo. Martitzen gauean (20:30) Zerrajeratik irtengo da sardinaren hiletaren segizioa. Ordu erdi geroago, Herriko Plazan sardina erretzeaz bat, Aratusteen alaitasuna gris kolorez jantzi, eta garizuman murgilduko gara guztiok.

ARATUSTEETAKO EGITARAUA

GAUR

18:30 Arrasate Musikaleko ikasleen Inauteriko kontzertua.

BIHAR

12:00 Pregoa Biteri plazan.

12:15 Desfilea Arrasate Musikaleko txarangak lagunduta.

13:30 Sari banaketa Herriko Plazan.

18:00 Kale animazioa Arrasate Musikaleko txarangarekin.

19:30 Dantzaldia Haitzama taldearekin.

22:30 Dantzaldia Haitzama taldearekin.

MARTITZENA

17:00 Mozorro desfilea Herriko Plazan.

17:00 Potxin eta Patxin pailazoen *Oihan koloretsua*.

17:30 Kale animazioa Samasiku txarangarekin.

18:30 Erraldoi eta kiliki konpartsarekin kalejira.

19:30 Dantzaldia Laiotz taldearekin.

21:00 Sardinaren hileta. Segizioa 20:30ean Zerrajeratik irtengo da. Desfilea plazan amaituko da eta sardina bertan erreko dute.

22:30 Dantzaldia Laiotz taldearekin.



IMANOL GALLEGO

Ikerketa kriminala barrutik

Eguaztenean Goienagusik antolatuta, Pako Etxeberría auzitegi-mediku ospetsuak hitzaldia eskaini zuen. Bere lan esparrua azaltzeko, Alcazserko nesken hilketa bezalako kasu ezagunak ekarri zituen gogora.

Bide Bidek duen lehen postua eskuratu nahi du Mondragon Unibertsitateak

IMANOL GALLEGO | ARRASATE
Zuri-moreek oso lehia bizia dute donostiarrekin; bi taldeen artean puntu bakarreko aldea dago eta gure mutilek sailkapeneko gailurrera iritsi nahi dute. Azken partiduan Atletico San Sebastian menpean hartu ondoren, lehenengo postua aste bukaera honetan lor dezakete.

Aratusteak direla eta, partidua ordutegia berezia izango da: MU gaur lehiatuko da,

Iturripen (20:00), Goierri-Verkol taldearen kontra. Urretxuarrak sailkapenean beherago dauden arren, ez da erlaxatzeko nor-gehiagoka izango.

Ford Mugarrik atsedena
Eskubaloiko mutilek, aldiz, aste bukaera honetan atsedena izango dute. Bada, Arandoren mutiak martxoaren 8an indarberrituta bueltatuko dira Iturripeko kantxara.



LORAMENDI ELKARTEA

Bazkaria mende erdia ospatzeko

50. urteurreneko ospakizunekin segitzen dute Bedoña auzoko Loramendi elkarteak, eta, hain zuzen, bazkaria egin zuten zapatuan. Aza, txorizo, buzkantza, saiheski eta urdaiarekin lagunduta, babarrun goxoak dastatu zituzten. Ondoren, giroa alaitzeko, Asier eta Gorka batu zitzaizkien alboka jo, bertso ederrak abestu eta txisteak kontatzera.



Martitzenean aurkeztu zuten Arrasate Andradetan plana. | MARTIN LARREA

Emakumeen parte-hartze soziopolitikorako plana

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE
Asteon aurkeztu dute *Arrasate Andradetan* plana, emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren sustatzeko ekimena.

Hain zuzen, Berdintasun zinegotzi Maider Morrasken aipatu du Arrasateko Udalak berdintasunaren arloan aitzindari izaten segitzeko lan egiten duela.

Azken urteotako bilakaeraren hausnarketa eginda udal plana egitea da helburua; baina Bagarako kide Iraitx Agirreren arabera, bidea helburua bezain garrantzitsua izango da, bertan hainbat gauza ikertu eta ikasiko dituztelako prozesu parte-hartzaile baten bitartez.

Besteak beste, emakumeek zenbait esparrutan aritzeko dituzten zailtasunak identifikatzen saiatuko dira, parte hartze soziopolitikoaren gainean eztabaida kolektiboa eginda, betiere, emakumeen ikuspegitik.

Prozesuak hiru fase izango ditu: hasieran, diagnosi fasea egingo dute; ondoren, erronkak identifikatuko dituzte saio irekietan, ekintza plana zehazteko; eta amaitzeko, udal plana idatzi eta garatuko dute.

Bada, Udalaren berdintasun planaren ardatz izango den ekimen hori martxoaren 4an erakutsiko diete herritarrei, 18:30ean, Kulturaren.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Sport in tus bragas - Fidel & Discipulos	5-3
Birigarruak - Haizea's Weah	0-4
Lasagabaster - Betrayer	2-2
Dribling - Sonografos	1-2
Iluntz - Jibaros F.C.	8-3
Cantauri - Ostantz	1-2

SAILKAPENA

TALDEA	J	P
1 Dribling	12	30
2 Sonografos	12	25
3 Haizea's Weah	12	24
4 Iluntz	12	23
5 Aldatz	11	23
6 Betrayer	12	23
7 Lasagabaster	12	23
8 Sport in tus bragas	12	16
9 Fidel & discipulos	12	14
10 Ostantz	12	13
11 Abokajarro	11	12
12 Jibaros F.C.	12	9
13 Cantauri	12	5
14 Birigarruak	12	0

Etenaldia ligan

Aste honetan Aratus-teak direla-eta, aste bukaeran ez da jardunaldirik egongo. Etenaldi horren ostean, ligak bere ohiko erritmoari eutsiko dio.

Partidu bat atzeratuta

Aldatz eta Abokajarro taldeen arteko partidua atzeratzea eskatu zuen Aldatzek. Gogoan izan behar da atzerapena aurreko domekan eskatu behar dela.

ARRASATE

ARATUSTEAK

2014

GIROK ONENA GEUREAN!

Bengoa • Itzala • Okoretégi • Rumba • Txoko II • Ezkiña

Inazio Azkarragaurizar | Arrasateko alkatea

"Akordio bitartez hartu ditugu erabakirik garrantzitsuenak"

Inazio Azkarragaurizarrek hainbat gairi buruz egin digu berba: Polemetasa eraikinari buruz, TAO sistemaz, hondakinen mahaiaz...

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Agintaldiaren hirugarren urtean murgilduta dago Inazio Azkarragaurizar eta esku artean hainbat gai ditu: hondakin sistema berria jartzea, lehen sektorea indartzeko egitasmoa, mugikortasun plana... Gai horietaz eta beste batzuetaz egin zuen berba Eneko Azkaraterekin Goiena telebistako *Harira* saioan, eta paperera ekarri dugu.

Polemetasa zaharreko gunea hustu eta eraisteko erabakia hartuta dago; noiz egingo da?

Gogora ekarri behar dugu 2008an lantegiak San Andres Berri enpresari saldu ziola lursaila eta krisiaren ondorioz hondoa jo zuen enpresak. Oraindik epaitegietan erabakitzeke dago eremuaren jabegoa norena den. Bitartean, Udalak bere gain hartu ditu urgentziazko neurriak, tokiaren egoera oso larria delako eta, irtenbidea ematen hasteko, gune horren aurri (ruina) edo hondamen deklarazioa egin dugu. Amianto jaso eta kudeatuko da eta horren ostean eraikina eraitsiko da. Martxoan zehar egingo da hori.

Eta gero zer egingo da bertan?

Esan bezala, gaia epaitegian dago, konkurtsoan; eta planteatzen dena

enkante bidez likidatzea da; administratzaile konkurtsalaren arabera, maiatz edo ekainerako egingo da enkantea. Eta gero, 2015erako bertan zer egin onartuta egotea espero dugu. Orain orubeak kalifikazio industrialak du eta ikusi beharko da nola kalifikatzen dugun: industriara edo etxebizitzak egitera bideratzen den... Plan Orokorren baitan txertatu beharko litzateke. Baina gune hori etxebizitzak eraikitzeke egokia izango zela erabaki zen aholku batzordean; dena dela, ikusi beharko dugu nola amaitzen den gauza.

Hiri hondakinak hartuko ditugu ahotan. Zertan datza sistema berria?

Azaro aldera organikoaren bilketa selektiboa egiten hasiko garela, horixe da azpimarragarriena. Zaborra biltzeko edukiontzi berdeak kenduko ditugu horretarako eta beste bi edukiontzi berri jarri, bata marroia –organikoa biltzeko– eta bestea grisa –errefusa biltzeko–. Edukiontzi horiek biek sarbide kontrola izango dute, edukiontzia irekitzeko. Baina hori baino lehen, beste pauso bat emango dugu: herrian zehar aske dauden edukiontzi

berdeak kenduko ditugu eta lau edukiontzitako guneak sortuko ditugu, birziklapena sustatzeko. **Beste herri batzuetan ez bezala, Arrasaten akordioa lortu duzue, hondakinen mahaiazi esker. Nola baloratzen duzu lortutako akordioa?**

Oso positiboki baloratzen dut eta talde lanean jarraitzen dugu, helburu komuna lortze aldera: Arrasaten hondakinak murriztea, berrerabilpena bultzatzea eta ahalik eta gehien birziklatzea. Asmoa %70eko birziklatze-tasa lortzea da, eta, gehiago lortuz gero, hobeto. Horretarako, kontzientziazio kanpaina egin behar da, informazio bulegoa ipiniko dugu, triptikoak banatu... Eta azarotik aurrera, bederatzi hilabetez egongo da proba moduan eta hiru hilabetean behin egingo dugu balorazioa. %70eko birziklatze-tasa lortuko ez balitz, atez atekoa ezarriko litzateke.

Nola funtzionatzen du hondakinen mahaiazi egun?

Ondo; hamabostean behin elkartzen gara eta bertan hondakinen bilketari buruz erabakiak hartzen ditugu: lauko gune berriak ipintzea, kanpaina informatiboak

egitea, informatzeko bulegoa ipintzea, eta abar.

Saiatu zarete sozialistekin berriz elkartzen?

Asmoa dugu hondakinen mahaian lortutako akordioa martxoko osoko bilkuran onartzeko, eta sozialistek izango dute hor bat egiteko aukera.

Eta auzo-konpostatzeetarako guneei dagokienez, nola baloratzen duzue lehenengo urtea?

Balorazio oso positiboa egiten dugu. Hiru gune daude martxan eta 110 familia inguruk hartzen dute parte; horrek 60 tona organiko inguru berezitatea jasotzea ahalbidetzen du. Lehendik ere baserrietan eta autokonposta egiten duten 300 familia ere badi-rela gogorarazi gura dut.

Gune gehiago jartzeko asmorik badu Udalak?

Azttertzen ari gara; baina kontuan izan behar dugu Arrasatek dituen lur-eremuak mugatuak direla.

Aurrekontuen harira, zeintzuk dira 2014ko lehentasunak?

2014ko udal aurrekontua 31.700.000 euro da, iaz baino 1.900.000 euro gehiago. Enplegua sustatzera, ongizatea bermatzera eta inbertsioak egitera bideratuko da igotzera hori.

Inazio Azkarragaurizar, Goiena telebistako platoon

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

Juan Karlos Gartiano | EAJko bozeramailea

"Elkarrizketari bidea eman diogu"

"Lehen bi urteetan Udal Gobernuaren lehentasuna atez atekoa ezartzea izan zen eta biztanleena zein EAJrena, ordea, krisiari aurre egitea. Hirugarren urtean Udal Gobernuak gure jarrerak kontuan hartzen ari da eta beste egoera bat sortu da. Hondakinen mahaiazi bidez, elkarrizketari bidea eman diogu, arazoari irtenbidea emanda. Esperientzia oso positiboa izan da harremanak normalizatzen hasteko; aurrekontuetan ere adostasuna lortu dugu. Elkarlanean gabiltza; horrek izan behar du lanerako giltza: errespetua, elkarrizketa, elkarlana, elkartasuna eta erabakia".

► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Aurrekontuak onartzeko orduan sistema bera erabili dugu beti, alderdi guztiekin egon gara, proposamenak egiteko aukera eman genien eta gure politika hasieratik elkarlanaren politika izan da. 2013an Fagorrek gertatutakoak gogor astindu du Arrasate; horrek gerturatu egin gaitu bi alderdiok. Oro har, adostasunak daude, eta batera lanean jarraitzeko asmoa daukagu; erraza izango litzateke gehiengoarekin guk erabakitzea, baina besteekin kontatuz egin behar da politika".

Laubideko aparkalekuak noiz arte egon behar du itxita?

"Harrituta geratu naiz Garitanok galdera hori egin duelako, badakielako zer gertatzen den Laubideko aparkalekuarekin. Urte askotarako kontzesio administratibo bat da; bere garaian obra bat egin zen eta parkinga kudeatzeko ardura enpresa batek –Biterikoa kudeatzen duena– hartu zuen. Baldintza jakin batzuetan egin zen eta egoera aldatzeko dirutza ipini beharko genuke. Irtenbide bat ematen saiatzen ari gara, baina momentuz zaila dela esan dezakegu; ez dago gure esku".

Aritz Arrieta | PSE-EEko bozeramailea

"Agintaldi absolutista izan da"

"Agintaldi lasaia izan da; ikusi ere ez dira egin burututako egitasmoak. Berritasuna da EAJk laguntza eman diola aurtan aurrekontuak aurrera eramateko; EAJ gobernuan sartzea ekarri du horrek eta honek txeki zuria eman dio Udal Gobernuari. Hondakinen agintaldia ere izan da; gobernua iristean erabakiak hartzen hasi ziren, asko oposizioak jakin gabe. Gehiengo duela eta gutxi elkartu da oposizioarekin. Aurrekontuetan alderdi sozialistak aurreko urtean aurkeztutako emendakinek kaxoian geratu dira. *Errodilloa* pasatu du eta agintaldi absolutista izan da".

► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Ez dut ulertzen esaten duena. Mahai batean eseri eta gai konkretu bat jorratzeko ahalegina egiten denean, eta adostasun batera iristeko prest zaudela diozunean, ez da *errodilloa* pasatzea. Helburuak batera betetzen ahalegindu gara eta ez da lortu. Egia da aurrekontuetan eta halako gaitan, esaterako, aurreneko lanketa guk egin behar dugula, baina gero alderdi guztiekin egon gara. Beraiek ez dute hori nahi, beraiek jakingo dute arrazoiak".



an, martitzenean. | ZV.D.M.

Enplegu arloaz egin dezagun berba aurrena.

Arlo horretan apustu sendoa egin dugu, agian aurtengo azpimarra-garriena. Gogora ekarri behar dugu enplegua ez dela udalon eskumenekoa, Eusko Jaurlaritzarena baizik; eta guk 350.000 euroko igoera egin dugu enplegua sustatzeko. Orain arte egin duguna indartu eta linea berriak zabalduko ditugu. EAJrekin batera plan bat landu dugu, eta espero dugu laster horren berri zehatza eman ahal izatea; zein ildo adostu den eta nola banatuko den dirua. Bestalde, enpresen laguntza programan igoera egin dugu; 2000. urtea ezkerro martxan dago eta ordutik hona ez da igoerarik izan. Testuinguru ekonomiko honetan esfortzu berezia egitea erabaki dugu.

Ongizatea ere aipatu duzu.

Besteak beste, gizarte larrialdietarako laguntzak banatzeko 400.000 euroko partida ezarri da; pobrezia-aren aurkako planerako 50.000 euro; eta arrasatearrei zerbitzu pertsonalizatuagoa ematen hasiko gara bulego berrietan. Eta oso argi dugu herritarren premiei erantzuteko beharrezkoa baldin bada diru gehiago jarriko dela horretarako.

Eta azkenik, inbertsioak daude.

Aurtengo aurrekontuetan %61,98ko igoera egin dugu, 4.373.311 euro bideratuta alor honetara. Inbertsio garrantzitsu batzuk aipatzearren, martxoan amaituko diren Ongizateko bulego berriko obrak daude; 739.000 euro bideratu dira horretara. Gainera, Udal Artxiboa lekualdatuko da Markuletera. Bestalde, San Josepe urbanizatzeko lehen zatia eta Udala auzoko urbanizazio proiektuaren jarraipena egingo dira, iaz atzeratu egin behar izan ziren bi proiektu. Mugikortasun arloan hobetzen jarraitzeko asmoa dugu, esaterako, Takolo-Goiru proiektua abiatuta. 2014an, proiektu horren baitan, bi lehentasun aurreikusten ditugu: Foruen plazaren eta Udala plazaren arteko zatiko lanak egitea eta Uribarri etorbidean konpontze lanak egitea.

Oro har, nola daude diru kontuak Udalean?

"Azaro aldean hasiko gara organikoaren bilketa selektiboa egiten"

"Uda aldean ekarriko dugu TAO sistema Arrasateko erdigunera"

"Lana, ongizatea eta inbertsioak dira aurtengo gure lehentasunak"

Osasuntsu. Aurtengo zorraren kopurua 1.286.000 euro gutxiago da aurreko urteaz alderatuta. Egungo zorra 4.359.000 euro da eta 2014 amaieran txikiagoa izatea espero da, joera zorra amortizatzen joatea da eta legalki ezarrita dagoen gehienezko zor mugetatik (%95) oso urruti gauden (%13).

Mugikortasun planari dagokionez, TAO sistema jarri da unibertsitate inguruan. Nolako harrera izan du?

Oraingoz, aurreikuspenen arabera doa dena, eta, orokorrean, harrera ona izan du. Gainera, komunikazio zuzena izaten ari gara bizilagunekin, komertzioekin eta unibertsitatearekin, ekarpenak jasotzeko.

Baina aparkaleku huts gehiago ikusten dira TAO dagoen tokian eta auto gehiago daude beste auzo batzuetan.

Gertatzen ari dena normala dela dio TAO kudeatzen duen enpresak. Hiruzpalau hilabete behar dira egoera egonkortzeko. Orain, hutsuneak detektaturik ditugu, eta, hain zuzen ere, horiek zuzentzeko TAO ordenantzan aldaketak egingo dira.

Mugikortasunaz jarraituz, noizko TAO sistema erdigunean? Eta bestelako egitasmorik badu Udalak?

Asmoa da uda alderako sistema erdigunera ekartzea. Bestela, badira bi urte alde zaharra oinezko bihurtu genuenetik eta esango nuke denok gaudela aldaketa-rekin gustura. Gakoa zenbait ohitura aldatzean datza, bizi kalitatea hobetzeko. Hain zuzen, horren harira, egitasmo ugari garatu ditugu jadanik agintaldi honetan, besteak beste: zirkulazio ordenantza berria egin dugu, ospitale inguruko aparkamenduen arazoa konpondu zen, herrian seinaleztapen berria jartzen ari gara... Orain, berri, mugikortasunaren aldeko beste apustu potolo bat dugu esku artean: Takolo eta Goiru arteko zatian egun errepidea den guztia kale bihurtuko dugu, oinezkoei eta bizikletel lehentasuna emanda, espaloiak zabalduta eta bidegorria txertatuta.

Bestalde, lehen sektorea indartzeko apustua egin eta Azoka Plaza biziberritzeko proiektua garatzen diharduzue.

Udal Azoka egonkorta eta hobetu gura dugu. Guretzat estrategiakoa da biziberritzea, sozialki eta ekonomikoki Arrasaten eragin handia izan dezakeelako. Azokako proiektu gidatzailea egiten ari gara eta fase ezberdinetan gautatuko da. Aurtun, igogailua jarriko da irisgarritasuna hobetzeko eta azokaren itxura aldatzeko egingo da azoka bera erakargarriagoa izan dadin.

Kirol arloan, oster, Aukearekin haserre daude hainbat erabiltzaile, kantxen erreserben harira. Zein da Udalaren jarrera?

Zerbitzua ganoraz emateko, beharrezkoa da ziurtatzea funtzionamendu ordenatua. Aspaldi ikusi zen erreserben funtzionamenduari buelta bat emateko beharra zegoela, erabilera okerra egiten zelako. Normala da funtzionamendua arautu denean haserretzea, baina beharrezkoa zen. Datozen hilabeteotan probatu eta balorazioa egingo dugu.

Elkarritzeta osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Hondakinen sistema berriko helburuak beteko ez balira, zer?

"Nik aurrena sozialistei eskatuko nieke akordioarekin bat egin dezatela. Izan ere, beti defendatu izan dute edukiontzi bidezko sistema dela onena eta horregatik ez dut ulertzen akordiotik kanpo geratu izana. Gonbita egiten diet berri ere. martxoko osoko bilkuran onartuko dugu sistema, eta orduan bat egiteko aukera izango dute. Bestalde, nik konfiantza daukat herritarrengan eta ondo egingo dutela uste dut; eta bestela, atez atekoa jarriko da".

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Udalak badu umeentzako jolasparke estalirik egiteko asmorik?

"Udalean sartu ginenetik bagabiltza gai honekin eta uste dugu arazo bat dela, euria-eta egiten duenean ezin direlako bertan jolastu neska-mutikoak. Irtenbidea bilatu behar zaio, baina, oraingoz, diru kontuak direla-eta ez dugu ezer egin. Ezin dugu ideia hori gauzatu ez delako gure lehentasunen artean sartzen. Baina egia da EAJrekin adostutako aurrekontuei begira puntuen artean ideia hori dagoela eta konpromisoa hartzen dugu dauden aukerak ikertzeko".

Aprendices eraikinaren auzia konpontzeko lanean ari da Udala?

"Argitu behar dugu eraikin hori ez dela Udalarena, Eusko Jaurlaritzarena, SPRIrena baizik. Galdera hori beraiei egin beharko litzaieke zuzenean. Bere garaian etxebizitzak eraikitzeak planteamendua zegoen, baina momentuan ez dago kalifikatuta horretarako, guene komertzial moduan jarduteko baizik. Bestalde, kulturgune aproposa izan daitekeela diote herritarrek, baina horretarako *erlojuaren* eraikina daukagu eta aukera ugari ematen ditu tokiak".

Garibaiko estalpeari beste erabilerarik emango zaio?

"Oraingoz, ez dugu ezer egiteko asmorik. Eraiki zen moduan egin zen estalpe hori, eta egia da arazoak sor ditzakeela, esaterako, xaflak erortzeko arriskua-eta egon delako; hala, konpondu egin behar dugu. Gainera, estalpe bat da, baina euria egiten duenean ezin da erabili. Eta badugu ideien bat beste erabilera bat emateko; jolasparkeak estaltzeko eta ditugun guñeak aprobetxatzeko ideiak uztatzeko asmoa dugu".

Herri barruan bizikleta erabilera sustatzeko bidegorririk ipiniko da?

"Aurtun Udalak 25.000 euro bideratuko ditu bidegorriak egokitze. Dena dela, herri barruan bizikletaren erabilera sustatzeko egin beharko liratekeen lanei dagokienez, aztertzen ari gara bidegorria nola txertatu ote daitekeen. Izan ere, ez da erraza, eta alternatiba ezberdinak daudela ikusi dugu. Hori horrela, edozein erabaki hartu aurretik, horiek Arrasaterentzat bideragarriak ote diren ikusi beharko dugu dauden aukerak aztertuta".

Berrikuntza askorekin hasiko dira bihar Aratusteak

Pertsonaia, dantza, musika eta arropetan egongo dira nobedadeak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Inauteriak taldearen eskutik, kalez kale ibiliko dira bihar 230 lagun inguru aurtengo Aratusteak ospatzen. Musika eta dantzak izango dituzte lagun, eta kopuruz gehitzen doan pertsonaia kuadrilla ere bai.

Bertakoa

Horrez gainera, berrikuntza bat baino gehiago izango ditu bihar-ko jaialdiak. "Bertako Aratusteak sortzeko eta indartzeko hasi ginen lanean joan den urtean, eta aurtengo berrikuntzetako bat da, adibidez, dantzetako bat guk geuk sortutakoa dela. Koreografia ere guk geuk prestatu dugu eta jendea gustura gelditu da, erraza da-eta", aurreratu du Oñatiko Inauteriak taldeko Arkaitz Bengoak.

Musikari dagokionez, Iñaxio Ibarrondo konpositore oñatiarrak egindako pieza estreinatuko dute bihar. "Propio egin duen pieza bat da. Lehengo dantza batek, beraz, doinu berria izango du, bertakoa hori ere", azpimarratu du Bengoak.

Arropei begiratuta ere izango dira aldaketak. Dantzarien txapelek zinta berde batzuk zituzten, aurpegia tapatzen zutenak. Aurtengo zinta horiek atzera botako dituzte eta aurpegi erdian, sudurretik gorakoan, gasazko tela zuri bat izango dute, eta sudurretik beherako aurpegi zatia margotu egingo dute, zikindu.

Antzezlan txikiak

Bestalde, aurtengo joan den urtean baino bi pertsonaia gehiago egongo dira. "Pregonera bat egongo



Dantzarien arropetan ere egongo dira berrikuntzak aurtengoan. | GOIENA

da eta berreroak ere bai, herri-tarrak zirikatzen ibiliko direnak", aurreratu du Arkaitz Bengoak.

Pertsonaia horiek, gainera, antzezlanak ere egingo dituzte. Horrela, biharko Aratusteetako kalejiran parte hartuko dutenek geldialdia egiten duten aldiro, pertsonaiek antzezlan txikiak egingo dituzte.

Ibilbidea bera ez da aldatuko. 11:30ean aterako dira Olakua auzotik. Handik Etxaluzeko parkera, gaztetxera eta Kale Barritik Portura jaitziko dira, eta handik

Kale Zaharrera joango dira. Arratsaldean, 17:30ean, kiroldegitik abiatu eta Bidebarrietara, Atzeko kaletik Kalegoienara eta Kale Barritik, goitik behera, Foruen plazara iritsiko dira. 20:00etan egingo dute han amaierako ekitaldia.

'Zazpi aldiz elur'

Zapatuan Oñatiko Aratusteetako dantzak erakutsiko dituzte, beraz, eta domekan Luzaidekoak. Ohi bezala, Oñatz dantza taldearen eskutik egingo dute, kalez kale.

Bi ekitaldi horiez gain, bes-telakoak ere antolatu dira aurtengo Aratusteak ospatzeko. Aipatzeko beste bat gaur, egubakoitza, Santa Anan egingo den *Zazpi aldiz elur* izeneko antzez-lana da. 22:30ean hasiko da. Mikel Laboa du gogoan lan horrek.

Eta astelehenean atsedean hartu ostean, Aratusteek aurrera egingo dute martitzenean. Umeen-dako antzerkia gaztelekuan, txokolat solidarioa Foruen plazan eta erromeria egongo dira, besteak beste.

Ikastetxeen egitaraua

TXANTXIKU IKASTOLA

- Gaur, egubakoitza, ospatuko dituzte Aratusteak.
- Haur Hezkuntzakoak kalejira txiki bat egingo dute 15:30ean. Bigarren Hezkuntzako ikasleen laguntza izango dute. Barraskiloz, erlez, matxingorringoz, kilkerrez eta tximeletaz moztutako dira.
- Lehen Hezkuntzakoak cowboy-z moztutako dira. Kalejira egingo dute 16:00etan. Bukatzean, dantzak egingo dituzte plazana.
- 16:30etik 18:30era, jaia egingo dute jolastokian.

URGAIN

- 15:00etan hasiko dute jaialdia, gaur.
- Kaldereroen jaia antzetzuko dute. Hungariako pertzegileen etorreraz izango da antzez-lana, aurrean hartza dutela.
- Ijito emakumeen kanta eta dantzak izango dira jaiaren osagarriak.
- Eguraldia txarra bada, kiroldegian izango da.

ELKAR HEZI

- Martitzenean, martxoak 4, ospatuko dituzte.
- Kalejira egingo dute 10:30ean hasita. Eskolatik Foruen plazaraino joango dira, eta eguerdirako berriz bueltatuko dira eskolara.
- Aurtengo, Euskal Herriko mitologiari hartutako herensugearen irudia aukeratu dute moztutakoak.
- Eguraldi txarra egiten bada, ikastetxe barruan ospatuko dute jaia.



ALOÑA MENDI

Sei domina ekarri dituzte karatekek Eibartik

Sei domina ekarri zituzten Aloña Mendiko karate saileko gaztetxoek joan den zapatuan Eibarren jokatu zuten Gipuzkoako gaztetxoek Uda Berri Txapelketatik. Alazne Untzuruntzaga, Xabier Porras, Danel Casais, Gaizka Leza, Karmele Egaña eta Imanol Astudillo izan ziren txapelketan lehiatu zirenak. Karate saileko presidente Rikardo Arrizabalagaren iritziz, "bikain" ibili ziren guztiak. Zorionak!

'OK Magazine' agerkari digitalak, urtebete bihar

Aratz Losada oñatiarrak zuzentzen duen *OK Magazine* kirol agerkari digitalak urtebete beteko du bihar, zapatua.

Ospakizun moduan, martxoaren 1erako 365 lagun batu gura ditu bai Facebooken eta baita Twitterren ere. Gainera, sare sozialetako jarraitzaileen artean Aloña Mendiren bigarren elastikoa eta bi lagunendako afari bat zozkatuko ditu. Parte hartzeko, atariko jarraitzaile baino ez da egin behar. Herritik kanpora ere kritika onak jaso ditu *OK Magazine*-k eta, hain zuzen, proiektu-ekin aurrera egin gura du sortzaileak, Aratz Losadak.

Ardo dastatzea egingo dute gaur iluntzean Etxe Aundi jatetxean

Ardo dastatzea egingo dute gaur, egubakoitza, iluntzean Etxe Aundin. Oñatiko Upain ardoteigiko ardoak probatuko dituzte. Jatetxeko ugazabak esandako moduan, 50 bat lagun elkartzeko dira dastatze hori egiteko. 19:00etan hasiko dira ardoak probatzen.

Oñatiko Etxe Aundi jatetxeak 25 urte bete ditu aste honetan, otsailaren 25ean. Joan den urtean hasita ekitaldi bat baino gehiago antolatu dituzte urteurren hori ospatzeko. Gaurko ardo dastatzea azkena izango da; horrek emango dio bukaera zilarrezko etzeiak ospatzeko antolatu duten egitarauari.

Martxoaren 7an eta 8an Txandaren 'outlet'-a

T.M. | OÑATI

Datorren astean, martxoaren 7an eta 8an egingo du Txandak aurtengo *outlet*-a: egubakoitzean egun osoan eta zapatuan, berriz, goizez.

Arropa eta opari dendak, optikak, loradendak... Guztira, askotariko 30 komertzio inguruk aterako dituzte euren produktuak denda aurrera, eta honetaz gain, Opel Berezaok Foruen plazan jarriko ditu bere autoak.

Txu-txu tren

Berrikuntza deigarri batekin etorriko da aurtengo *outlet*-a: txu-txu tren jarriko dute, bezeroak herrian egongo diren gune guztietara joan ahal izateko. Doakoa izango da bidaia, eta herrian zehar egingo duen ibilbidean bost geltoki izango ditu denera: Errementari plaza, Portu kalea, Unibertsitatea (BBVAn), Olakua eta Apaolaza-Etxaluze.

Outlet-a egingo duten bi egunetan egongo da txu-txu tren: egubakoitzean 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 20:30era eta zapatuan 09:30etik 13:30era.

Erlezainak eta eztigileak ere badatoz biharko zuhaitz azokara

Landare eta lore saltzaileak ere egongo dira, Natur Eskolak gonbidatuta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Urteroko zuhaitz azoka egingo da bihar, zapatua, Natur Eskolak antolatu dituen aurtengo ingurumen jardunaldien barruan. Ohi bezala, Foruen plazan izango da azoka eta zuhaitz landareak eta loreak egongo dira salgai. Baina ez hori bakarrik. Erleak ere bai.

Asiako liztorra

Zuhaitzen eta landareen polinizazioan erleek duten garrantziaz jabetuta, erlearen inguruko erakusketa bat jarriko dute azoka egingo den tokian bertan. "Erleek zerikusi zuzena, eta handia, gainera, dute landareen ugalketan. Erlerik gabe, akabo. Horregatik, erakusketa bat prestatu dugu biharko azokarako", azaldu du Natur Eskolako irakasle Jon Betanzosek.

Erakusketa horretan, erleari buruzko informazioa jasotzen duten panelak egongo dira. "Panel horietan jasoko da erleak zein lan eta nola egiten duen. Gainera, Gipuzkoako Erlezainen Elkartearekin harremanetan jarri gara eta elkarte horrek ere beste panel batzuk utzi dizkigu guk presta-



Joan den urtean egindako zuhaitz azoka. | GOIENA

Igartua omenduko dute Aloñan

Aloinako Lagunak taldeak deituta, urteroko zuhaitz landaketa egingo dute domekan Aloñan. 50 lizar landatuko dituzte. Aurtun, gainera, Juan Karlos Igartuari omenaldia egingo diote. Zuhaitz bat landatuko dute haren omenez, Lizartza inguruan, eta Aloña Mendi Kirol Elkarteko lehendakariak, Anton Intzak, lau berba eskainiko dizkio. 09:30ean elkartuko dira, Durun.

tutako erakusketa horretan erabiltzeko. Denak batera egongo dira ikusgai", aurreratu du Betanzosek.

Azkenaldian bertako erleari horrenbeste kalte egin dion Asiako liztorra ere ekarriko dute erakusketara. "Liztor inbaditzaile horren bi habia egongo dira, handiak, eta ze kalte egiten duen eta zelan ekidin daitekeen ere azalduko da", gaineratu du.

Bestalde, erlezainak eta eztigileak ere egongo dira landare eta lore saltzaileen artean.

Mintegiak

Erlearen gaineko informazio panelez eta ezties gain, zuhaitz landareak eta loreak ekoizten dituzten mintegiak egongo dira biharko zuhaitz azokan. Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Nafarroatik etorriko dira saltzaileak. Aurtun ere euren produktuak ekarriko dituzte. "Zuhaitzak, landareak, kolore guztietako loreak eta bestelako landare eta zuhaixkak dituzten mintegiak etorriko dira. Tartean egongo dira landare ekologikoak saltzen dituztenak ere.

Eguraldia

Zuhaitz azoka Foruen plazan egingo da 09:00etatik 14:00etara. Eguraldi txarra eginez gero, erakusketa plazako arkupeetan jarriko dute. "Postuei dagokienez, landareak berez egon daitezke euripean, baina saltzaileak erosoago egongo dira aterpean, duda barik. Egingo dugu tokia", dio Jon Betanzosek.

Lourdes Idoiaga jeltzaleak bere kontra agertu diren adierazpenak salatu ditu

Mikel Biain alkateak ere bere kontrako pintadak egin direla esan du

TXOMIN MADINA | OÑATI

Lourdes Idoiaga EAJko zinegotziak salatu du azkenaldian gutun eta kartel eran bere kontrako adierazpenak agertu direla herrian.

Horietan, lapurreta egitea leporatzen diote 2003an, ezker abertzalea legez kanpo zegoela egingdako hauteskundeen ostean zinegotzi kargua hartu zuelako. "Dena hasi zen udal aldizkarian agertu zenean *Lourdes Idoiaga Urkiak lapurtu egin zuen* izeneko idatzi bat. Iraingarria zen, baina larriena da Udal Gobernu buruen oniritziarekin argitaratu zela", dio Idoiagak, eta horrek emandako "inpunitatearen" ondorioz agertu direla kartelak: "Onartezina da".

Haren esanetan, Bilduk eta ezker abertzaleak eroan izan duten estrategia "erasotzailean" kokatzen dute gertatua: "Denbora luzean EAJren kontra jo izan da edozer gauzagarik. Horrek kultura bat sortzen du, eta kultura hori desarmatze batera eroan behar da".

"Bi eredu"

Idoiagak dio bi eredu daudela politikagintzan eta udalgintzan: "Horrelako erasoei guk ez diegu erantzuten euren armekin, hau da, kartelekin-eta; ez gara inora

joaten pintadak egitera". Gaineratu du Bilduko Udal Gobernuko inork ez diola adierazi elkartasun hitz edo keinurik, eta "mingarria" dela hori.

Alkatearen kontrako pintadak

Mikel Biain alkateak, bestalde, dio Lourdes Idoiagarekin pertso-

nalki egon dela gai honen inguruan, eta ez dagoela ados gertatu denarekin. Biainen esanetan, kritika politikoa zilegi den arren, kritikatzan denaz gain nola kritikatzan den ere garrantzitsua da: "Kasu honetan, forma eta eduki aldetik, ez da inolaz ere egokia".

"Herri honek badu bere historia, kasu askotan zoritxarrezkoa; esaterako, duela hamar urteko ilegalizazio garaia. Hori hor dago, baina egun beste klabe batzuetan egon behar dugu, aurrera begira. Ez dakit ze interes egon den berriz ere garai haietako mamuak ateratze horretan", gaineratu du Biainek, eta adierazi du euren konpromisoa izan dela kartelak ahalik eta bizkorren kentzea: "Nahi genuke aurrerantzean horrelakorik ez gertatzea, baina ezin dugu besterik egin; esan beharrik ez dago gertatutakoak gurekin ez duela zerikusirik".

Bere kontrako pintadak agertu direla ere salatu du Biainek, eta horren berri ere eman behar dela. Joan den astean agertu ziren pintadok Urrutxuko ekarpen gunean, eta horietan, atez atekoarekin lotuta, alkatearen kontrako irainak agertzen ziren.

ESANAK

"Denbora luzean EAJren kontra jo izan da edozer gauzagarik"

LOURDES IDOIAGA | EAJ-KO ZINEGOTZIA

"Esan beharrik ez dago gertatutakoak gurekin ez duela zerikusirik"

MIKEL BIAIN | OÑATIKO ALKATEA



Areto nagusia bete egin zen eguneko hitzaldian. | A.T.

Legea egiteko gizartea ezagutu behar dela azaldu diete ikasleei

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Herriko 160 ikasle inguruk zuzenean jaso zuten Lege Soziologiaren gaineko azalpena atzo, eguena, euren propio antolatutako hitzaldian.

Larraitz Ugarte-zuzenbidean doktorea eta Lege Soziologiako masterreko ikasle izandakoa-, antropologian doktore Jose Antonio Azpiazu, Lege Soziologian masterra egin zuen Iker Barbero eta zuzenbidean doktore den Adam Czarnota poloniarra izan ziren hizlariak. Lau hizlariak azaldu zieten ikasleei legea egiteko gizartea ezagutu behar dela.

Gizartea ezagutu

"Lege Soziologiaren masterra oso interesgarria da edozein

diziplina edo ikasketa egin dituenarendako. Izan ere, munduaren ikuspegia ematen du", adierazi zuen Larraitz Ugartek hitzaldia hasi aurretik. "Gaur egun, esaterako, mundu osoko ikasleak daude master hori egiten, Nigeria, Ipar Amerika eta Indiakoak, esaterako", gaineratu zuen.

Lege Soziologia zer den ez ezik, Santi Spiritus unibertsitatean dagoen liburutegiak zer garrantzi duen ere ezagutu zuten batxilergo mailako herriko ikasleek. Hitzaldi hori institutuaren sorreraren 25. urteurrena ospatzeko antolatu dituzten ekintzetako bat izan da. Maiatzean, esaterako, gai honi buruzko nazioarteko jardunaldiak egingo dituzte.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsita bakarrik

 NINIK Loradenda Ramon Maria Lili, 8 Bergara %10eko deskontua artikulu guztietan.	 ALZU, S.L Ehiza eta arrantza Arantzazuko Ama, 2 Oñati Arropetan %10eko beherapena.	 GAHIR Fisioterapia / Osteopatia Aranburuzabala 6 behe Eskoriatza %50eko deskontua lehenengo kontsultan.	 ESKO SPORT Kirol denda Intxaurtxueta 5 Eskoriatza Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.	 ESTACION SERVICIO ARRASATE Gasolindegia San Andres 7 Arrasate % 2ko gasolindegian erregaia erosit. % 2ko dendako produktuetan.
 ARRIKRUTZ Kobak Araotz Auzoa Oñati Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).	 NAREN Fisioterapia eta osteopatia zentroa Belorrieta 5 behe Aretxabaleta %15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).	 GAES Entzumen zentroa Otalora 18 Arrasate Zurradero 10 Bergara %10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)	 TXURI URDIN Itzotz jauregia Anoeta Ibilbidea 24 Donostia % 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia). % 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.	 MULTIÓPTICAS Optika Juan Carlos Guerra, 1 behe Arrasate Ibargarai, 16 Bergara %15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..
 MAGDALENA Gasolindegia Santxolopetegi auzoa Oñati % 2ko deskontua gasolindegian erregaia erosit.	 KUTTUNA Estetika Aranburuzabala 19, behe Eskoriatza %5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).	 ARGIA Aldizkaria www.argia.com %25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).	 OÑATI GARAJEA. Autoen garaje. Konponketak. Goribar Auzoa 9 Oñati Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.	 EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia Mikeletegi 43-45 Donostia Sarrera bat erosit eta kupoi+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.
 GUZTIZ EDER Estetika zentroa Kalebarria 29 Oñati %5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik). %10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeen.	 LASTAI Koltxoia eta umeentzako artikuluak Arkatza 1, 49 Pab Gasteiz %5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan. %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun – aukietan. %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aukietarako denboraldiko ehun-gaietan. %10eko deskontua denboraldiko hau-arropen. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).	 CARAVANAS OÑATE Galdaragintza. Bizikletak Otaui Zuhaiztia, 25 Oñati 50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).	 LILURA EDERTZE INSTITUTUA Estetika zentroa Bidekurutzeta 7 Bergara %15a laser depilazioan: hanka osoa + izter-rondoa (besapekoak opari). %20eko deskontua elikagai intolerantzia proban. %10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak. %10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan. Bazkidearentzat eta lagunarentzat	

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:
Goiena papera:

Astelehenetan ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin.

Deskontuak:

Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05 | kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Aratuste-zapatuko giroa berreskuratu nahi da

Horretarako, Oxirondo azokan egiten zen afaria aurten bazkari bihurtuko da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Oraindik Aratusteetako mozorroa prestatu gabe duzula? Mugi zaitetz, herrian atzo hasi baitziren Aratusteak. Ohiturak agintzen duen moduan, hartzak herriko haurrak izutu zituen atzo; aurten, gainera, dantzariak sorgin-dantza ere egin dute.

Lehen beroketa horren ostean, zapatua izango da Aratusteetako egun handia. Egunean zehar herriko giroa pizteko, gainera, ohiko Aratuste-afaria bazkari bihurtu da. 14:30ean seminarioko karpan egingo dute otordua, eta egunari gatz apur bat gehiago jartzeko Jakinekin txarangaren musika ere izango dute.

Bada, bapo bazkaldu ostean, lehen aldiz mozorro desfilea egingo da. 18:30ean San Martin plazatik irtenda, eta Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren laguntzarekin, erdiguneko kaleetan ibiliko dira. Desfileko parte-hartzaileen irudimena sustatzeko, Bedelkarrek eskainitako 160 euroko saria eramango du etxera mozorro originalenak. Gauean (23:00) Trikitzio taldeak borobilduko du eguna.

Ikuskizunetarako sarrerak

Herriko festetan musikak ezin du hutsik egin; horregatik, aste bukaera erritmo onarekin hasiko da. Gaur, 22:30ean, Bergarako Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko dute. Oraindik sarrera erosi gabe dutenentzat, pilotalekuko txartel-leihatila 21:30ean zabalduko dute eta kontzertuak 8 euroko prezioa dauka.

Etxeko txikiek ere ederto pasatzeko aukera izango dute bihar. Pirritx, Porrotx eta Mari-motots pailazoek *Bizipoza* ikuskizuna taularatuko dute 15:30ean



Bergara bizik egin dituen maskara erraldoiak. | IMANOL GALLEGO

eta 18:00etan pilotalekuan. Sarre-rarik erosi ez dutenentzat, pilotalekuko leihatila 14:30ean zabalduko dute; bertan, sarrerak 6 euroren truke erosteko aukera egingo da.

Martitzena, gaztetxoek eguna

Aste bukaeran nagusiek egingo duten burrunbadaren ostean, martitzena gaztetxoek eguna izango da. Gainera, Musika Eskolako gazteen bandak kalejira egingo du, 16:30ean, erdiguneko kaleak girotzeko.

Doinu dantzagarriagoak nahia-go dituztenentzat, berriz, Amaia Txintxurreta DJak jarriko dio erritmoa San Martin plazari. 16:30etik 19:00etara, Txintxurreta DJak irratietan gehien entzuten diren doinuekin erritmoz betetako dantzaldia eskainiko du.

Gaztetxoek algarek animatuko dituzte Aratusteetako azken orduak. Izan ere, kanpaiek gaueko hamabiak direla iragartzeaz bat, mozorroak erantzi eta garizumaren atea den Hausterre Egunaren txanda iritsiko da.

Aratusteak gozatu, herria mozorrotu!

Ekimen horren helburua da Bergara Aratusteetan murgiltzea eta gure kaleetan jai giroa zabaltzea. Horretarako, herriko bederatzi gunetan, besteak beste, frontoian, Ibargarai kalean eta erdigunean, merkatariek elkarlanean egindako maskara koloretsuak eskegi dituzte herria apaindu eta alaitzeko.

Hain zuzen ere, Bergarako Udalak, Bedelkarrek eta herriko hainbat merkatarik eta ostalarik elkarrekin bultzatutako *Bergara Bizi* ekimenarekin tokiko ekonomia sustatzeaz gainera, kaleko giroa ere biziberritu nahi da.

Jaione Isazelaia alkatea Goiena telebistan datorren martitzenean

M.B. | BERGARA

Bergarako alkatea Goiena telebistan izango da datorren martitzenean, martxoaren 4an. Izan ere, *Harira* saioa hasi da berriro ere. Aurreko astean Arrasaterekin hasi zen bailarako alkateen erronda eta zerrendan hurrengoia Bergarako izango da. Gori-gori dauden kontuen berri emango du Jaione Isazelaia, hala nola hiri hondakinak, udal aurrekontuak, aurten egingo dituzten inbertsio nagusiak eta beste hainbat gai.

Alkateaz gain, baina, oposizioan dauden bi alderdiek ere ahotsa izango dute saioan, eta, hala, Aintzane Oiartzabek eta

Mari Carmen Barrenetxeak –E.A.J.-ren eta PSE-EEren bozeramaileak hurrenez hurren– Bildu-Aralarren gobernu jardueraren balorazioa egin ahal izango dute.

Herritarren galderak

Horretaz gain, herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera: posta elektronikoa erabiliz (harira@goiena.com), Twitter bidez (#*harira*), Whatsapp eta Telegram aplikazioak erabilita –idatzizko zein ahozko mezuak– edota erantzungailu automatikoan ahozko mezua lagata. Azken hiru aukeretak telefono zenbaki bakarra erabili beharko da: 688 69 00 17, hain zuzen. Beraz, ani-



Jaione Isazelaia alkatea. | GOIENA

matu, parte hartu eta galdetu Isazelaia alkateari, jakin edo argitu nahi duzen herriko gai horren gainean.

Saioa martitzenetan, 22:00etan, ematen da eta Eneko Azkaratek aurkezten du.



ARATUSTEAK BERGARAN
ondo pasatu!

Kayak
Azpeitxi
Etxagi
Irish Pub Galways

Bule
Euxebio II
Toki Ona Bodegoia
Usoa

Ariznoa
Kai
Iraho
Pol Pol taberna

Alkatearen jakinarazpenek hartu zuten bilkuraren zati handi bat

- Isazelaiak argibideak eskatu zizkion EAJri zenbait adierazpenengatik
- Horrez gain, etxez etxeko laguntzen gaineko mozioa aurkeztu zuen EAJk

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ohiko osoko bilkura izan zen astelehenean. Luze jo zuen eta gai-zerrendaren hasieratik izan zen eztabaidatsua. Bigarren puntuan, alkatearen jakinarazpenetan bi egin zituen Jaione Isazelaiak.

Batetik, hondakin organikoa batzeko poltsa konpostagarrien harira EAJko udal taldeko bozeramaile Aintzane Oiarbideri komunikabide batek bere ahotan argitaratutako adierazpen batzuen gaineko argibideak eskatu zizkion, eta baita zuzenketa publikoa ere: "Poltsak saltzen diren dendak *a dedo* izendatu ditugula ulertzero eman duzu, ezker abertzaleko kordakoei, eta baita dendariak hortik negozioa atera nahi dutela ere". Horren aurrean Oiarbidek azaldu zuen berak ez zuela adie-

razpenik egin. Argitu zuen EAJk poltsa konpostagarrien harira prentsa ohar bat kaleratu zuela, eta gehitu zuen: "Gure alderdiak ez du sekula esan dendari batzuk negozioa egiten ari direnik. Negozioa egitekotan, Mankomunitatea egiten ari da. Edozein dendatan eta merkatuko edozein poltsa konpostagarri homologatu saltzeko aukera egon beharko litzatekeela uste dugu". Argudio horiek entzunda, Isazelaiak galdetu zion ea komunikabideari zuzenketa eskatu dion; Oiarbidek erantzun zion baietz, baina ez dutela zuzenduko erantzun ziotela.

Bestetik, aurrekontuei buruz, zehazki udal politikarien soldata eta liberazioei buruz, aurreko astean egindako beste adierazpen batzuen gainean ere eskatu zizkion azal-

penak Oiarbideri, baina aurretik esandakoa berretsi zuen hark: "Gobernu taldeko soldatak igo egin dira eta gastu igoera egon da".

Jaione Isazelaiak, bestalde, hori horrela ez dela azpimarratu zuen: "2004tik 2014ra arteko urtez urtekoa udal webgunean dago kontsultagarri eta bertan ikus daiteke 2004an baino txikiagoa dela gaur egungo politikarien gastua, lau liberatu egon arren". Hain zuzen, politikarion gastuei dagokienez, aurrekontu osoaren %1,4 da; 279.307 euro, guztira. Hiru lan-jardun ordaintzen dira kopuru horrekin: alkatearen %100; alkateordearen % 95; bigarren alkateordearen % 75; eta zinegotzi baten %30 -Isazelaia alkate izendatu ostean onartutakoa-. Guztira, hiru lan-jardun.

Azalpenok emateaz gain, Udaleko kontu-hartzaileak egindako txostena ere aurkeztu zuen alkateak, "non ezeztatzen diren Oiarbidek egindako adierazpenak".

Etkez etxeko zerbitzua

Bestelako gaien artean, etxez etxeko laguntzei buruzko mozioa aurkeztu zuen astelehenean EAJk, baina ez zuen aurrera egin. Izan ere, EAJren eta PSE-EEren aldeko bost boto eta gobernu taldearen kontrako zortzi jaso zituen.

Mozio horrekin EAJk nahi zuen Udalak Aldundiari eskatzea "bertan behera laga dezala" etxeko laguntza zerbitzura egiten duen ekarpena %15ean murrizteko erabakia. Ander Alberdi zinegotziak azaldu zuenez, murrizketa horren arabera, gurean "39.000 euro gutxiago jasoko dira eta horrek eragingo die hainbat herritarri".

Ongizate zinegotzi Jabi Bengoak azaldu zuen erabakiak ez diola "kalterik egingo inori. Txosten berean jasotzen duen moduan, Mizpirualde egoitza Aldundiaren eskumenera igarotzen hasi da eta ondorioz, 90.000 euro murriztu da egoitzari egin beharreko transferentzia. Beraz, bi kopuruen arteko ezberdintasuna aldekoa da".



Aurreko bertso afaria. | GOIENA

Bihar bertso afaria egingo dute Txuringo tabernan

I.G. | BERGARA

Urteroko ohiturari eutsiz, bihar Santu Martirixen eguna dela-eta Osintxun bertso afaria izango da, auzoko herri batzarrek antolatuta.

Aste bukaeran Aratusteak ospatuko direnez, eta urteroko afari horri umore puntu bat jartzeko, mozorrotuta joateko dei egin du Jon Olivares auzo-alkateak.

Bertsolari ezagunak

Aurten, Igor Sarriegi eta Jon Maia bertsolariak egongo dira, bertso afarira joaten diren guztiekin batera gau ederra pasatzeko. Afaria 21:00etan izango da eta txartelak Txuringo eta Euskalduna tabernetan daude salgai. 23 eurotan langileentzat eta 20 eurotan ikasle eta langabeentzat.

Mozorroez gain, aurtengo afariak beste berritasun bat izango du: berezitasun moduan, herritarrek gaiak proposatzeko aukera izango dute. Horretarako, Txuringo tabernan kutxa bat jarri dute, nahi duenak afarirako gaiak proposa ditzan.

OHARRAK

79KOEN KINTADA

Martxoaren 8an egingo dute kintada. Deportibo tabernan batuko dira eguerdian poteoa egiteko eta ondoren bazkaria Zumelagan izango dute. Joan nahi dutenek 35 euro sartu beharko dituzte Bankoako IBAN:ES 38 01 0039 13 1066 5469 kontu zenbakian martxoaren 4a baino lehen.

GURE ESKU DAGO DINAMIKAREN BATZARRA

Gure Esku Dago dinamika datorren asteke bilera astelehenean egingo du Irizar jauregian 18:30ean. Bada, bertan, Erramu Zaturako ekintzak zehazten joateko euren proposamenak azalduko dituzte taldeek.

Bihar ekingo diote sexuen arteko berdintasuna aldarrikatzeko asteari

Datozen egunetako ekintzen artean, erakusketak, hitzaldiak eta liburu baten aurkezpena daude

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Emakumeen Nazioarteko Eguna Martxoaren 8an ospatzen den arren, biharko, berdintasuna aldarrikatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte herrian.

Espainiako gerra: erakusketa

Ekin Emakume Elkarteak sortutako *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan* erakusketa martxoaren 24a arte ikusgai egongo da Aroztegin: Espainiako gerra eta diktadura bizi izan zituzten emakumeak omentzeaz gain, bereziki emakumeek bizi zuten errealitatea islatzen duten argazkiak egongo dira.

Gaztetxean ere bai

Kartzela zaharrean ere ekintza ugari egingo dituzte astean zehar, Martxoaren 8arekin bat egiteko. Martxoaren 6an *Emakumeok kazetarion agendan: euskal emakume adituen biltoki digitala* hitzaldiarekin hasiko dute astea. Egun bat geroago, bailarako bertsolari gazteek doako saioa eskainiko dute 22:00etan.

Martxoaren 8an, 17:00etan autoestimua lantzeko tailerra egin ostean, poteo feminista izango dute. Eguna kantu-afariarekin borobilduko dute. Afarira joan nahi dutenek martxoaren 7a arte eros dezakete txartela Pol-Pol eta Arrano tabernetan. Mar-



Aurkeztuko duten liburuaren azaleko irudia. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOKO BILDUMA (L.M. LONBIDE)

txoaren 11n, aldiz, Auzoko ekimeneko emakume taldeak topaketa irekia egingo du, 17:00etan, kultura etxeko ganbaran.

Bergarako emakumea eta lana

Udaleko I. Berdintasun Planaren testuinguruan kokatzen da *Lan eta lan, emakumea Bergaran* liburua. XX. mendearen lehen erdian Bergarako emakumeen bizimodua nolakoa zen aztertzen duen liburua aurkez-

tuko dute bihar Juan Martin Elexpuru eta Idoia Etxeberrira egileek. Eguerdiko hamabietan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, duela ia bi urte hasitako lanaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Liburua egiteko orduan *Ahotsak.com* proiektuan jasotako testigantzak ardatz izan direnez, liburuarekin batera izen bera duen ikus-entzunezkoa ere aurkeztuko dute.

Jardun elkarteak gitarra ikastaroa antolatu du eta martxotik maiatzera izango da

I.G. | BERGARA

Jardun elkarteak haurrentzako eta helduentzako hiru hilabeteko gitarra ikastaroa antolatu du; nahi dutenek instrumentu ezagun hori jotzen ikasteko aukera izango dute martxotik aurrera.

Ikastaroa, non eta noiz?

Eskolak Zabalotegi aretoan eman go dira zapaturo, 11:00etatik

13:00etara. Ikastaroan parte hartu nahi duten Jarduneko bazkideentzako ikastaroak 10 euroko kostua izango du; bazkide ez direnek, aldiz, bi euro gehiago ordaindu beharko dituzte.

Izena eman eta argibideak jasotzeko: Jarduneko egoitzan, 943 76 36 61 telefono zenbakian eta *jardunkultura@topagunea.com* helbidean.

Erregetxo plazako etxe tasatuetan izena emateko epea zabalik

Bergarako Erregetxo plazan Ortelbar Promociones SLk eta Lotzen SLk eraiki behar dituzten 13 etxebizitza tasatuak osteraz zozketatuko dituzte. Etxebizitza tasatu horien zozketa Bergarako Udalak egingo du, eta bertan parte hartzeko izena emateko epea datorren egubakoitean, martxoaren 7an, amaituko da.

Seme-alaben harremanei buruzko ikastaroa

Mariaren Lagundia ikastolak antolatuta, Nerea Mendizabal adituak seme-alabekin komunikazio egokia izateko baliabideak eskainiko ditu *Nola lagundu seme-alabei beraien harremanetan* hitzaldian. Bada, joan nahi dutenek egunean 18:30ean Mariaren Lagundia ikastolara bertara joan besterik ez dute.



Shotokaneko karatekak bikain

Shotokaneko karatekek lan bikaina egin zuten joan den zapatuan Eibarren jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Hainbat mailatan aritu ziren neska-mutilak eta postu bikainak lortu zituzten. Hain zuzen ere, alebin, infantil eta benjamin mailetan aritu ziren Bergarako kirolariak eta lehen hiru postuak lortu zituzten maila batean baino gehiagotan. Bada, Shotokaneko arduradun eta kirolariak egindako lanarekin oso pozik bueltatu ziren etxera.

Soraluze Bergara saskibaloit taldeak etxean jokatu du

Don Jabugo Ensanche Erroi-bide taldearen aurka jokatu-ko du zapatuan, 16:30ean, Labegaraietan. Aurreko aste-buruan hamaika puntugatik galdu ondoren, etxekoek dena eman beharko dute. Sailkapen nagusian hiru puntura daude; horrenbestez, partidu garrantzitsua da.

Ez da eskubaloi partidurik izango asteburu honetan

Inauteriak direla-eta deskan-tsua izango dute etxeko mutilek. Joan den astean, bergararrek eta datorren astean aurkari izango duten Txiki Polit taldeko kideek berdinketarekin amaitu zituzten euren partidua, eta, beraz, irabazteko gogoz irtengo dira datorren partiduan.

Arteaga, Artola eta Altuna hurrengo fasera pasatuko dira

Soraluze Bergara Hiria pilota txapelketako final-laurdenak jokatu ziren martitzenean

ANE ETXEBERRIA | BERGARA
Martitzenean, Soraluze Bergara Hiria Pilota txapelketako final-laurdenak jokatu zituzten Udal Pilotalekuan.

Gazte mailan, Bakaikoaren eta Arteagaren arteko partidua zen jokatzekoa, baina Bakaikoak eskuan min zuela-eta ezin izan zuen jokatu eta haren ordeza Peña izan zen kantxan. 37 minutu iraun zuen lehiak eta 14-22 atera zen garaile Arteaga. Peña ere ez zen horren gaizki aritu eta ezker eskuarekin fin ibili zen, baina ezin izan zuen ezer egin azken txanpan Arteagaren aurka; zenbait momentutan berdinketa izan zen markagailuan. Edozelan ere, azken tantoetan akats asko egin zituen Peñak eta, azkenean, Arteagak lortu zuen garaipena.

Nagusiei dagokienez, berriz, Artola eta Urbietari aritu ziren aurrez aurre. Ordu erdi iraun zuen norgehiagokak eta Artolak pasada ederra eman zion Urbietari, erraz gailendu zitzaion.

Hasiera-hasieratik errimoa hartu eta tanto asko egin zituen segidan Artolak. Besteak beste, 5-3, 12-3, 12-5 eta azken 22-5 emaitzak izan ziren Bergarako Udal Pilotalekuko markagailuan. Artola bikain aritu zen, jokaldiak ongi amaitu zituen eta Urbietari aukera gutxi eman zizkion frontoi beltzean.

Altuna, bikain

Altunak Dorronsoro ordezkatu zuen; izan ere, azken horrek ere eskuan min zuela-eta ezin izan zuen partidua jokatu. Hala, amezketarrak pilotari ona dela erakusteko aukera izan zuen.

26 minutu iraun zuen lehiak. Beraz, guztiak ere nahiko motzak izan ziren. Aizpirik ez zuen ezer egiterik izan, Altunak bere indarra erakutsi baitzuen. Hasiera-hasieratik eta momentu oro, Altuna gailendu zen markagailuan (1-6, 3-14, 5-16, 6-21). Hain zuzen, azken emaitza 7-22 izan zen; partidua, beraz, erraz atera zuen aurrera Altunak.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

T.C.C. - Poteo Izarrak	6-7
Brunet - Irama Elgeta	9-9
Minimou Taldie - Irama Elgeta	8-2
Komando Piperrak - Birgerias	8-3
Minimou Taldie - Komando Piperrak	9-4
Diego Valor - Red Piranhas	Bertan behera
Diego Valor - Beti Jai	Bertan behera
Red Piranhas - Birgerias	Bertan behera

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Poteo Izarrak	40	15
2 Minimou Taldie	39	15
3 Diego Valor	34	13
4 T.C.C.	21	15
5 Red Piranhas	18	13
6 Brunet	17	15
7 Komando Piperrak	15	15
8 Irama Elgeta	14	15
9 Beti Jai	12	14
10 Birgerias	3	14

PARTIDUAK

MARTXOAK 1, ZAPATUA
10:30 Komando Piperrak - Red Piranhas / Birgerias
11:30 Red Piranhas - Birgerias / T.C.C.
12:30 T.C.C. - Minimou Taldie / Red Piranhas
MARTXOAK 2, DOMEGA
18:00 Birgerias - Irama Elgeta / Diego Valor

ATZERATUTAKO PARTIDUAK

Diego Valor - Beti Jai / **Irama Elgeta**
Diego Valor - Poteo Izarrak / **Beti Jai**

Neguko BEHERAPENAK



Martxoak 7 eta 8



*Martxoaren 8an, larunbata,
Bergarako Musika Eskolako Txarangak
Bergarako kaleak alaituko ditu*

'Atxabalta.5.Alde'-k 5. edukiontzia bultzatzeko eskatu du

Alkateak dio negoziazorako garaia pasatu dela eta orduan ez zutela akordiorik gura izan

M.A. | ARETXABALETA

Bosgarren edukiontzia alderantzizko kideak eta Udal Gobernuak ordezkariek udal txean elkartzeko ziren eguaztengatik. Hondakinen bilketa sistema izan zuten bilerako gai.

Atxabalta.5.Alde plataformako kideek jakinarazi dute udaletxeko ateak zabalik dituztela esan ziela Udal Gobernuak komunikabideen bitartez, eta aukera hori aprobetxatu beharra zutela. "Eztabaidarako jarrerarekin joan ginen eta eskatu genuen atez atekoaren ezarpena atzeratu eta bosgarren edukiontzia bultzada irmoa ematea", eta gaineratu: "Udalaren erantzuna zurrana izan da: gaia itxita dago, erabakia hartuta eta ez dago ezer eztabaidatzeko".

Hala, batzar horren balorazio ezkorra egin dute: "Udal honen jarrera da hondakinen gaikako bilketa inposatzea eta herritarrei ez entzutea. Uste dugu hasieratik zegoela erabaki hori hartuta eta gainerako guztia antzerkia bakarrik izan dela". Eta bi dei egin dituzte. Bata, Udalari; esanaz, ez sartzeko euren plataformari bideratutako erantzun artikulu batean herritarrei egindako deialdi orokor bat, "hala guztiok hobeto ulertuko dugu". Eta bestea herritarrei; "birziklapenaren alde, ingurumenarekin konprometitu eta atez atekoaren ezarpenaren kontra" dauden herritarrek Arkupera joan eta bosgarren edukiontzia giltza

eta otarrea jaso eta erabiltzera animatzeko.

Gaia politizatzen

Ana Bolinaga alkateak ere egin du bilera horren balorazioa. Ez duela ulertzen zertara joan ziren dio hark, eta gaineratu akordioa lortzeko denbora egon zela. "Negoiazio garaian proposatu genien guk mistoa jartzea, nahiz eta Udal Gobernuak argi izan atez atekoa dela gaia bultzeko hiri hondakin sistemarik onena. Esan genien errefusa eta ontzi arinak atez ate jaso eta organikoa aukeratu uztea -atez ate edo bosgarren edukiontzia- rekin- Legazpin egin duten eran, baina ezetza eman zioten orduan. Eta orain datoz eske? Ez dute nahi akordiorik".

Eta gaineratu du: "Modu boluntarioan jasotzea esatea hipokrisia hutsa da. Atez atekoak bakarrik bermatzen ditu denon eskubideak eta denon betebeharrak".

Era berean, haserre bukatu du: "Taldea honen atzean EAJ dago, batzokian sortutako plataforma da, eta EAJk bultzatutakoa datozen hauteskunderi begira. Eta gaia politizatzen bakarrik dabilta".

'Atxabalta.5.Alde'-k dio herritarrek ez dituela entzun gura Udal Gobernuak

Martxoaren 8ko Fun Dantz! jaialdirako sarrerak salgai daude Arkupen eta hainbat dendatan

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, izango den Fun Dantz! jaialdirako azken sarrerak eskuragai daude oraindik Arkupen, Kioskoan, Belar Meta jantzi-dendan eta Jon harategian. Aurrez erosita 2 euro ordaindu behar dira eta egunean txarteldegian, 3 euro -100 sarrera gordeko dituzte.

Aratuste-domekaren zain daude herriko kuadrillak

Mozorrotutako karrozen eta muntaien desfilea 12:00etan izango da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aratusteak iritsi dira, eta gaur hasi eta martitzen ilunkera bitartean bete-betean sartuko gara ospakizunetan. Leizarra musika eskolako kideek emango diete hasiera, gaur, Aratuste-jaia eginga. Bandak hasiko du ekitaldia, eta ondoren txistulari taldearen emanalditxo etorriko da. Musika ikasleek kantuan egingo dute gero, eta dantzariak agurtuko dute jaialdia. Hori guztia Herriko Plazan izango da (19:30); euria bada, Iturrigorri pilotalekuan.

600 lagun bazkaltzeko

Herritarrek, baina, Aratuste-domekari begira daude, orain arteko lan guztia orduantxe erakutsiko dute-eta. Urtero legez, txistulariek egingo diote ongietorria egunari (10:00), eta ondoren txino-dantzaren txanda izango da Santa Ageda neska-mutilen eskutik (11:45). Kuadrillek gertatutako karroza eta muntaien erakustaldia, hau da, desfilea hasiko da gero (12:00). Beroa taberna inguruan elkartu eta Araba ibilbidetik Mitarte kalera



Kalebarrengo kuadrilla arrantzale jantzita iaz. | JOSETXO ARANTZABAL

joko dute; handik Duranara, eta Errekabarrenetik aurrera, Andramari auzoari buelta egin eta berriro Mitarte eta Duranara; Herriko Plazan bukatuko dute.

Eta tripa-zorriak dantzan hasi orduko kiroldegira joko dute kuadrillek (14:30); 600 lagun inguru elkartuko dira eta herriko Bixxentak taldeak girotuko die bazkalordua.

Arratsaldean Akelarre txaranga lagun joango dira kiroldegitik plazara (18:00) eta mozerro

lehiaketaren sariak banatuko dituzte orduan (18:45). Ondoren, Santa Ageda neska-mutilek azken dantza saioa eskainiko dute.

Martitzenean umeak

Aratuste-martitzenean neska-mutikoak izango dira protagonista. Goiz partean (10:00) plazan elkartuko dira eta gero kalejiran joan. Arratsaldea txarangak eta buruhandiek girotuko dute, eta Txinen hiletarekin (20:00) esango diete agur Aratusteei.

Atez ateko bilketaren gainean argibideak emateko bilera egunak zehaztu dituzte

Arkupeko Zaraia aretoan dira bilerak, euskaraz eta gaztelaraz

M.A. | ARETXABALETA

Udal Gobernuak iragarritako moduan, martxoarekin batera atez ateko hondakin bilketa sistemaren gainean informazioa ematen hasiko dira. Atzo, eguna, landa-guneetako bizilagunekin egin zuten bilera, eta datorren astetik aurrera kalekoen txanda izango da.

Bilera horiek -Arkupen- irekiak dira; hau da, edonorendako dituzte ateak zabalik, baina atarte bakoitzeko ordezkariek batek derrigor joan beharko du, gero gainerako bizilagunak informatzeko. Bertan, argibide orokorrak emango dizkiete: atez atekoaren funtzionamendua, otarre kopurua... Eta atarte bakoitzeko zintzilikarioak non kokatuko dituzten proposamena jasoko dute. Ondoren, 15 bat egun izango dituzte bizilagunek hori eztabaidatzeko, eta, hala iritziz gero, beste proposamenen bat egiteko.

Atez atekoa erakusketa aretoan

Bestalde, Arkupeko martxoko erakusketa atez ateko bilketa sistemaren gainea izango da. Bertan ikusgai jarriko dituzte zintzilikario guztiak kokatzeko Udalak egindako proposamena.

INFORMAZIO BILEREN GAINEKOAK

BIGARRREN BILERA

Eguna: martxoak 5, eguaztena.

Ordua: 10:00ak, euskaraz; 18:30ak, gaztelaraz.

Kaleak eta atarte kopurua: Otalora kalea 32, Guridi kalea 1, Iparragirre kalea 4, Sarasate kalea 1, Lausitta kalea 18, Bedarreta kalea 18.

Guztira: 74.

HIRUGARRREN BILERA

Eguna: martxoak 6, eguna.

Ordua: 10:00ak, euskaraz; 18:30ak, gaztelaraz.

Kaleak eta atarte kopurua: Basabe bidea 1, Durana kalea 35, Iturizar plaza 4, Santa Kurtz kalea 23, Murubide plaza 6, Herriko Plaza 6.

Guztira: 75.

LAUGARRREN BILERA

Eguna: martxoak 10, astelehena.

Ordua: 10:00ak, gaztelaraz; 18:30ak, euskaraz.

Kaleak eta atarte kopurua: Belorrieta auzoa 16, Mitarte kalea 17, Andramari auzoa 12, Errekabarren kalea 12, Ilargi plaza 6, Iralabarri plaza 17.

Guztira: 80.

BOSGARREN BILERA

Eguna: martxoak 11, martitzena.

Ordua: 10:00ak, euskaraz; 18:30ak, gaztelaraz.

Kaleak eta atarte kopurua: Araba ibilbidea 22, Loramendi kalea 12, Solohandi kalea 24.

Guztira: 58.

SEIGARRREN BILERA

Eguna: martxoak 12, eguaztena.

Ordua: 10:00ak, gaztelaraz; 18:30ak, euskaraz.

Kaleak eta atarte kopurua: Bizkaia kalea 3, Gipuzkoa plaza 1, Nafarroa kalea 4, Zaraia kalea 3, Gorbeia kalea 6, Aralar kalea 2, Bainuetxe kalea 8, Markole auzoa 40.

Guztira: 67.

ZAIZPIGARRREN BILERA

Eguna: martxoak 13, eguna.

Ordua: 10:00ak, gaztelaraz; 18:30ak, euskaraz.

Kaleak eta atarte kopurua: Txarapea ibilbidea 59.

ZORTZIGARRREN BILERA

Eguna: martxoak 19, eguaztena.

Ordua: 11:00ak; 15:00ak.

Deituak: Industria, merkataria, ikastetxeak, elkarre gastronomikoak eta mojak.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Lekaixoka eskolako hiru kide Martxoan Bertsoa lehiaketan

Bigarrenez joango dira eta gaur jokatu dute kanporaketa, Urretxun

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hirukotea elkartu, mozorroa jantzi, Urretxuko Motz tabernara jo eta bertsoan egin. Parrandara ko hitzordua ote da? Ez, Zumarraga-Urretxun jokatu dute Martxoan Bertsoa lehiaketarako hitzordua da. Gaur, otsailak 28, jokatu dute lehen kanporaketa, eta bertan izango dira Lekaixoka bertso eskolako hiru kide: Beñat Zamalloa, Martin Berrizbeitia eta Aitor Lizarazu.

Helburua, ondo pasatzea

"Bertsozaleak, bertso eskoletako ikasleak, sasi-bertsolariak... elkartuko gara, parte hartzea eta ondo pasatzea helburu bakarrak dituen lehiaketan", argitu du jatorriz Zumarragakoa izan eta Aretxabaletan bizi den Lizarazuk. Eta mozorroa? "Aratusteak gainean ditugu eta animatzeko da; baina ez dugu argituko zelan jantziko garen", gaineratu du.

Bigarrenez joango dira Lekaixokako kideak Martxoan Bertsoa lehiaketara, eta horixe, "ondo pasatzea" beste asmo barik. Parte hartuko duen hirukotea animatzera, gainera, hainbat aretxabaletar hurreratuko dela



Beñat Zamalloa, Martin Berrizbeitia eta Aitor Lizarazu bertsolariak. | A. LIZARAZU

jakinarazi digute, "bertsoak aitzakia hartuta ondo pasatzeko asmoarekin doaz".

Gaur hasi eta martxoaren 21a bitartean lau kanporaketa izango dira -bakoitzean hiru hirukote-, egubakoitzetan, Zumarraga-Urretxu aldean. Epaila bik jardungo du bertsolarien lana epaitzen, eta puntu gehien lortzen duten hiru bikoteek finala jokatu dute martxoaren 28an, Zumarragako gaztetxean.

Emakumeen Eguneko saioa

Bestalde, Lekaixoka bertso eskolako helduen taldeko kideak, Miren Amuriza irakaslearen gidaritzapean, bertso saioa gertatzen dabilta Emakumeen Nazioarteko Egunari begira. Datorren egubakoitzean, martxoak 7, egingo dute saio hori udaletxe zaharrean. Amurizak berak egingo ditu gai-jartzaile lanak eta eskolako kideek bertsoan jardungo dute.

EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA

Hiru aretxabaletar finalerdietan

Jokatu dituzte final-laurdenak, eta, norgehiagoka bizien ostean, Aretxabaleko hiru bikote sailkatu dira finalerdietarako. Finala datorren zapatuan, martxoak 8, jokatu dute Iturri gorri pilotalekuan, eta gero mokadutxo eskainiko diete txapelketako jokalariei guztiei.



Txapelketako bikote bi. | A. ELKORO

FINAL ZORTZIRENEN EMAITZAK

Maite Fraile - Maite Otxoa / Yolanda Campoy - Idoia Bilbao	25-9
Iratxe Hernandez - Eider Zabala / Rosa Ojuel - Lore Martinez	10-25
Dorleta Elkorobarrutia - Ainhoa Gallastegi / Marina Garmendia - Ane Benito	25-8
Lur Delgado - Lierni Zangitu / Larraitz Iñurrategi - Olatz Padaldai	25-13

BIHARKO PARTIDUAK, MARTXOAK 1

11:00 Maite Fraile - Maite Otxoa / Rosa Ojuel - Lore Martinez
11:30 Dorleta Elkorobarrutia - Ainhoa Gallastegi / Lur Delgado - Lierni Zangitu

Gorputz perkusio ikastaroa antolatu du Jaikik martxoaren 15erako eta 29rako

M.A. | ARETXABALETA

Body percussion edo gorputz perkusio ikastaroa egingo dute Jaiki elkarteko kideek martxo-ko bi zapatutan (17:00-20:00): martxoaren 15ean eta 29an. Sergio Lopez de Landatxe irakaslearen esanetara egingo dute lan, eta gorputz mugimendua

eta musika zelan bateratu irakatsiko die hark.

Izena emateko epea zabalik dago. Hona bideak: jaikielkar-tea@yahoo.es edo 943 53 43 96; azken eguna martxoaren 12a -plaza mugatuak-. Prezioa: 20 euro da -langabeek eta ikasleek, 15 euro.

ondo pasau!!

ara tustea ak

EGUZKIGRAF
inprimategia

**30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura**

Aretxabaleko Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

Zaborra jasotzeko tarifak aldatzea adostu dute

- Askotariko gaiak jorratu zituzten martitzeneko ohiko osoko bilkuran
- Intxaurtxueta kaleko bi lokal alokairuan jartzeko lehiaketa deituko dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA
Ordenantza fiskaletan aldaketak egitearen alde agertu zen udalbatza martitzeneko ohiko osoko bilkuran. Jakina denez, hondakinen bilketan aldaketak datoz, eta horrekin batera tarifa aldaketak. Etxebizitza guztiei, baina bereziki landaguneetan daudenei eragiten diete. Orain arte zabor bilketagatik landagune-

tan ordaintzeko, etxebizitza zer lur-motatan dagoen eraikita eta zaborraren edukiontzia dantzian hartu izan da kontuan. Hobariak eman izan dira horren arabera.

Hemendik aurrera lau tarifa mota izango dira: batetik, arrunta edo herriguneko eskoriatzarrei aplikatuko zaiena dago; bigarrenik, ekarpen gune-

ko erabiltzaileek ordainduko dutena; hirugarrenik, ekarpen guneko erabiltzaile eta gainera konpostatzaileak direnei; eta laugarrenik, frakzio organiko guztia kudeatzen dutenendako tarifa dago.

Bestalde, Udalak Gaztañadui kalean dituen bi lokal alokairuan jartzearen alde ere azaldu ziren, herrian jarduera ekonomiko

berriak sustatze aldera. Aho batez onartu zituzten horretarako baldintza administratiiboak.

Kirol zerbitzuen esleipena

Bestetik, kirol zerbitzuak esleitzeko iaz urrian hasitako prozedura bertan behera uztea erabaki zuten. Pleguetan dagoen akatsak eraginda hartu zuten erabakia. Hori zuzendu ostean, martxoko osoko bilkuran jardungo dute osteraren horren gainean.

Tokiko Autonomien Legea

Betiko moduan, hainbat proposamen eta mozio ere aurkeztu ziren. Ezker Anitzak eskatuta, Espainiako eta Euskal Herriko beste hainbat udalekin batera, Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoa auzotegietara

eramatea adostu zuten. Udalendako "oso kaltegarria" dela-eta horien babesarekin Auzitegi Konstituzionalera erroteko mugimendua sortu da lege horren bueltan. Beheko Errota musika eskolak aurkeztutako mozioak zinegotzi guztien aldeko botoa jaso zuen; hain zuzen, finantzaketaren gainean, bere garaian hartutako akordioa betetzeko eskatzen dio Jaurlaritzari.

Emakumeen Eguna

Martxoaren 8aren bueltan, Ezker Anitzak aurkeztutako mozioa onartu zuten. Ez da horren harira egindako ekimen bakarra. Martxoaren 7rako kafe-tertulia gertatu dute, 18:00etan, Ibarraundin; eta martxoaren 8an emakumeendako defentsa saioa egingo dute pilotalekuan, 10:00etatik 13:00etara.

Urdelarderorekin eman diote hasiera mozorroen jaialdiari

Eguraldiak eraginda umeez aterpean egin behar izan zuten atzo kantuan

M.B. | ESKORIATZA
Urdelarderoren bueltan, aurten ere ezin izan dira umeak kalerik kale ibili, oraingoan ere ez du-eta lagundu eguraldiak. Abestu, baina, abestu zuten. Arizmendiko Jose Arana guneko umetxoak, baserritar jantziak, parrokiako atarira irten ziren, eta han egin zuten kantuan, jakiz betetako ziriak eskuan zituztela.

Luis Ezeizako Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetakoko neska-mutikoek, osteraren urteroko bisita egin zuten herriko zaharren egoitzara. Han bizi direnek pozik hartu zituzten umeak, eta abestu ostean, gozokiz betetako poltsa jaso zuten opari. Jarraian, pilotalekurantz abiatu ziren; zain zituzten han Haur Hezkuntzakoak, denek batera abesteko eta txistorra beroa jateko gertu.

Arratsaldean, pailazoek ikus-kizuna zegoen aurreikusita; Tomaxen abenturak emanaldiarekin barre egiteko aukera izan zuten haurrek zein helduek.

Desfilea eguerdian

Ohiturari jarraituz, Urdelarderorekin eman diote hasiera Aratus-teei; eta bihar, zapatua, egun handia izango da. Eguerdian hasiko dira ospakizunak, mozorroen desfilearekin. Orain arte arratsaldean egin izan da hori, baina aurten aldatzea erabaki dute. 13:00etan hasiko da Huheziko aparkalekutik, eta lehiaketan parte hartu gura dutenek ordu erdi lehenago aurkeztu behar dute toki berean.

Herri bazkaria ere izango da pilotalekuan, 14:30ean; 310 lagun elkartuko dira han. Bazkaldu ostean, 17:00etan, zezentxoetan eta poneyetan ibili ahal izango dira txikitxoak; eta 18:00etan, Egan taldeak giroa du plaza. Lehiaketaren sari banaketa, osteraren 19:00etan egingo dute.



Urtero moduan, zaharren egoitzara joan ziren Luis Ezeizakoak. | MIRIAN BITERI



Jose Aranako mutiko bi, parrokiatarian. | MIRIAN BITERI

'Gurasolaguna' proiektua martxan jartzeko batzarra dago astelehenean

M.B. | ESKORIATZA
Berbalaguna egitasmoaren bueltan, *Gurasolaguna* proiektua jarri gura dute abian herrian, eta horren gaineko azalpenak emateko bilkura irekia egingo dute astelehenean, martxoak 3, 19:00etan, kultura etxean.

Proiektuaren helburua da gurasoak elkarrekin euskaraz berba egiten jartzea asteen ordubetez. Egunerokotasunean euskaraz mintzatzeko aukerarik

ez dutenei edo ohituraz gazte-larazko harremanak egin dituztenei euskarazko harreman berriak sortzeko aukera ematea da asmoa.

Parte hartzeko bideak

Bilkurara joaterik ez dutenek baina proiektuan parte hartzeko interesa dutenek eskoriatzatopagunea.org helbidera mezua bidal dezakete, edo 661 74 63 76 zenbakira deitu.

Olazarrek zuzendaritzarako hautagaiak behar ditu, eta bidaia gertatu du

M.B. | ESKORIATZA
Olazar erretratuen elkarteak batzar orokorra egingo du martxoaren 12an. Bilkura horretan, besteak beste, zuzendaritzarako kide berriak izendatuko dira. Boluntarioek, martxoaren 6a baino lehen, martitzenetan eta eguenetan 11:00etatik 12:30era joan behar dute elkartearen bulegora, edo, bestela, egungo zuzendaritzako kideei esan.

Bidaiarako izen-ematea

Bestalde, Olazarrek Algarvera (Portugal) bidaia antolatu du maiatzetarako; hain justu, 4tik 12ra bitartean. Elkarteko bazkideek martxoaren 11tik 25era eman ahal izango dute izena martitzen eta eguen goizetan, erretratuen bulegoan; eta gainerakoek, martxoaren 27tik apirilaren 10era. Bidaiak 490 euro balio du.

Eguaztenean izango da 'Aulki hutsak' ikus-entzunezkoa Ibarraundin

M.B. | ESKORIATZA
Eskoriatzara ere helduko da *Aulki hutsak* izeneko ikus-entzunezkoa. Hain justu, eguaztenean, martxoak 5, ikusi ahal izango da, Ibarraundi museoan, Iñaki Peña medikuaren zuzendaritzapean Arteman Komunikazioak doluari buruz ekoiztutako dokumentala. 19:00etan hasiko da emanaldia eta Peña-ekin batera ikus-entzunezkoan parte hartu duten hainbat lagun ere izango dira. Esan bezala, heriotzari buruzko ikus-entzu-

nezkoa da *Aulki hutsak* eta egungo gizartean tabu bihurtu den gaia mahai gaineratzeko asmoa du.

Horretarako, galdera argia proposatzen du: *Maite ditugunak hiltzean zer?* Heriotzaren aurrean sentitzen diren mina, haserrea, tristura, burumakurtasuna eta bakea islatzen ditu lanak. Edukia hainbat ikuspegitatik lantzeko, profesionalen eta norbait galdu duten senideen elkarriketak batu ditu Iñaki Peña medikuak.

Denetariko ekintzak izango dira asteburuan Inauteriak ospatzeko

Afari parte-hartzailea, herri bazkaria, sorgin-dantza eta mozorroak, asteburuko ekintza nagusiak

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Eguen Gizen egunaren ostean Egubakoitz Argal eguna da gaur eta gaztetxean afari parte-hartzailea eginda emango diote hasiera asteburu luzeari. Hala ere, domekan ospatuko dute Inauterietako egun bereziena herrian: asteetan entseatutako Luzaideko dantzak aurkeztuko dituzte herriarren aurrean, baita Antzuolan egiten den sorgin-dantza ere.

Biak elkarrekin

12:30ean dantza talde biak herriko plazan elkartuko dira; hau da, sorgin-dantza eta Luzaideko polkak dantza egin behar dituztenak. Eta herritarren aurrean dantza egingo dute. Hauxe da programa: umeen saioa, aurrean dantzan hasi direnek orduan egingo dute estreinako emanaldia. Luzaideko dantzak eta sorgin-dantza egingo dituzte ondoren. Horretaz gain, 14:30ean herri bazkaria izango da herriko plazan.

Kultura Sailetik aditzera eman dutenez, "Antzuolak Inauteriak ospatzeko ohitura eta gogoia betidanik izan ditu". Ez dakite sorgin-dantza noiz egin zen herrian lehenengo aldiz; 1922. urte inguruan dantzatu zuen dantza talde batek. Aldiz, badakite dantzari horiei 25-30 urte gehiago zituen Nikomedes Letek irakatsi ziela dantza hori; beraz, hortik ondoriozta daiteke 1885. urte ingururako dantzatzeko zela Antzuolan sorgin-dantza.

Garai hartan, goizean goiz atera eta baserriz baserri ibiltzen ziren txanpon edo sari bila. Gero, kalera itzuli eta eguerdi aldera bazkaldu egiten zuten; arratsaldean jaiarekin segitzen zuten.

1990ean berreskuratu zuen dantza hori Oinarin dantza taldeak eta hurrengo urtean irten ziren hartza, tximinoa eta hezitzailea, Inauterietako pertsonaiak.

Kikirixon mozorro tailerra

Astelehen eta martitzenerako, Kikirixo aisialdi taldeak mozorro tailerra antolatu du. Zabor-poltskin mozorroak egingo dituzte eta txiki-txokoa goiz eta arratsaldean egongo da zabalik: 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era. Martitzenean, aldiz, mozorroekin jarraitu eta jaialdia egingo dute arratsaldean.

Umeak mozorrotu ahal izango dira egin dituzten mozorroekin edo Kikirixon bertan egongo diren oihai, ileorde, txano eta bestelako osagarriekin. Makillatzeko aukera ere egongo da, eta baita musikarekin dantza egiteko ere.



Hartza hezitzailearekin kaleetan barrena. | ANTZUOLAKO UDALA

Beraz, ez dago aitzakiarik ez mozorrotzeko.

Erretiratuek, afaria

Erretiratuek ere euren urteroko festa ospatuko dute martitzenean; izan ere, afaria egingo dute elkar-

tean. Urteroko ohiturari eutsiz, mozorrotu eta afaldu ondoren dantzaldiaz disfrutatzeko aukera izango dute herriko nagusiek. Beraz, denetariko ekintzekin disfrutatzeko aukera egongo da asteburu honetan.

INAUTERIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA

Gaztetxean

20:00 Poteoa.

21:00 Afari parte-hartzailea.

00:00 Jaia.

DOMEKA:

Herriko plazan

11:30 Luzaideko polken azken entsegua.

12:30 Sorgin-dantza eta Luzaideko polkak.

14:30 Herri bazkaria.

ASTELEHENA

Kikirixo txiki-txokoan

11:00-13:00 Mozorro tailerra.

16:30-19:30 Mozorro tailerra.

MARTITZENA

Kikirixo txiki-txokoan eta erretiratuenean

11:00-13:00 Mozorro tailerra.

17:00 Inauteri jaia.

20:00 Erretiratuen afaria.

Afari ostean dantzaldia.

Erregional mailako mutilek, indartuta, liderra bisitatuko dute asteburuan

A.E | ANTZUOLA

Erregional mailako mutilek tentsioz betetako partidua jokatzen zuten joan den astean, eta, norgehiagoka banakoarekin amaituko zela uste bazen ere, azkenean, hiru puntuak etxean geratu ziren. Bada, poliki-poliki puntuak batu eta mailari eutsita lasaia jokatzeko hasi-ko dira laster etxeok; hori nahi dute, behintzat, bai eurek

eta baita zaleek ere.

Asteburu honetan, baina, Inauteriak ondo ospatzeko indarrak batu eta Berio taldea bisitatuko dute. Berio liderra da eta ez ditu gauzak erraz jarriko. Talde donostiarrak, gainera, garaipena lortu zuen bere azken partiduan; beraz, indartsu hartuko ditu antzuolarrak. Partidua zapatuan jokatuko dute, arratsaldeko lauretan.

Gure Esku Dago dinamikaren barruan Antzuolako 'kilometroaren' aurkezpena bihar eguerdian

Bihar, zapatua, Antzuolako *kilometroa* aurkeztuko dute Olanen etxean, 12:00etan. Gure Esku Dago dinamikaren barruan ekainean egingo den giza katean, antzuolarrak non eta nola egon behar duten argitzeko balioko du aurkezpenak. Halaber, ekitaldiaren ondoren, herritarrekin batera argazki erraldoia aterako dute herriko plazan, dinamikari babesak aurkezteko. Ekainaren 8ko giza kateak Iruñea eta Durango lotuko ditu.

Elkarretaratzea, triki-poteoa eta afaria antolatu ditu Udalak Martxoaren 8a ospatzeko

Emakumeen Eguna ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu Antzuolako Udalak. Hala, 19:00etan elkarretaratzea egongo da herriko plazan. Ondoren, triki-poteoa egingo dute eta 21:00 aldera afaria egingo dute Olalde elkartearen. Afarira joateko txartelak salgai daude 8 eurotan liburutegian, gaztetxean eta udaletxean. Martxoaren 6ra arte egongo dira salgai. Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu ekintzetan parte hartzera.

Odol Emaileen Elkarteko kideek diru bilketa egingo dute domeka honetan kaleetan barrena

Antzuolako Odol Emaileen Elkartek aditzera eman duenez, Inauterietako domekan urteroko diru bilketa egitera irtengo dira kalera. Domeka goizean aterako dira, 11:00etatik aurrera, "herritarrek kalean dabilzan orduan". Izan ere, lehen egun arruntetan ateratzen ziren diru-eske, baina ez zutela ezer batzen adierazi dute elkartetik. Hala, domekan, herrian giro polita izaten dela aprobetxatuta, dirua biltzeari ekingo diote. Batzen den guztia odol-emate egunetan luntxa jartzeko erabiliko da.



GAZTE TXOKOA

Abentura parkean poz-pozik

Herriko gazteek primeran pasatu zuten Abentura parkeko ekintzetan; ia hiru orduz jardun zuten gora eta behera zuhaitzetan. "Arnesarekin lotuta, tirolinan, sareetatik eskalatzen eta zirkuituko oztopoak pasatzen ibili ginen. Gaztetxoak oso pozik ibili ziren, asko gustatu zitzairen eta ekintza batzuk errepikatu ere egin zituzten. Beraz, gu ere pozik eurekin", adierazi dute gazte txokoko begiraleek.



EFT teknika ikasteko saioak eskolan; gorputzeko puntu batzuk ukituz eta "hizkuntza positiboa" erabiltzen. | SAN MARTIN ESKOLA

Emozioak askatzeko teknikak eskolan lantzen

Eskolaz kanpoko orduetan hasi dira EFT delakoa lantzen, 35 ikaslerekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Emozioak askatzeko teknika, EFT moduan ezaguna (*Emotional Freedom Techniques*). Izen hori du San Martin eskolan lantzen hasi diren teknika berriak. Zer den? Labur esanda, akupunturak jasotzen dituen gorputzeko puntu zehatz batzuk ordena bat jarraituz ukitzen dira. Eskuetako, aurpegiko eta bularreko puntuak lantzen dira bereziki. Beste gako bat da "hizkuntza positiboaren" erabilera. Puntu horiek ukitzen diren bitartean autoestimua hobetzeko esaldiak erabiltzen dira, norberaren arazoei aurre egiten laguntzeko.

Akupuntura eta hizkuntza positiboa oinarri hartuta, azken helburua da teknika jasotzen duen pertsona hori ondo sentiaraztea. Batetik, min fisikoak kentzeko balio du eta, bestetik, emozionalki hobeto prestatuta egoten laguntzen du. Eskolakoek ikasle baten amaren bidez izan

zuten teknikaren berri: "Oso ondo joan zitzaionez, eskolara ekarri gura izan zuen teknika. Batzorde iraunkorrean aurkeztu zuen eta ondo iruditu zitzaigun".

Eskolaz kanpoko, oraingoz

Eskolaz kanpoko jarduera da, hasierako fasean dagoena: "Ikusiko dugu teknika honi zein jarraipen ematen diogun". Ikasleekin praktikan jarri baino lehen, gurasoei teknika berria azaltzeko hitzaldi bat egin zuten urtarrilean. Ondoren, teknikan sakontzeko, zortzi orduko saio bana egin zuten Iñaki Figueiredo hezitzailearekin batera, otsailaren 15ean eta 22an: "Oso balorazio positiboa egiten dugu. Guraso eta irakasleen artean 17 lagun elkartu ginen. Oso gustura irten ginen eta, izan zuen harrera ikusita, ziur beste ikastaroren bat edo antolatu beharoko dugula". Teknika ez da bate-

re ezaguna gurean: "Gurekin egon zen hezitzailea EAEn dagoen bakarra da. Estatu osoan bederatzia dira. AEBtik dator eta Ameriketara, Perun eta Ekuadorren adibidez, teknika hori aplikatzen dute eskola orduetan".

Ikasleen artean ere harrera ona

Eskolaz kanpoko jarduera horretarako 4 eta 12 urte arteko 35 ikaslek eman dute izena; eurekin otsailaren 17an hasi ziren eta ordubeteko saioa egingo dute astero, bost astean zehar.

Ikasleen artean ere harrera ona izan zuen saioak; orain arte bakarra egin dute: "Teknika aurkeztu zigun ama da ikastaroko irakaslea. Harekin hitz egin dugu eta oso gustura dago. Era berean, guraso batzuekin ere egon gara eta haurrak ere oso gustura dabiltzala esan digute". Talde txikitan elkartzen dira, adinen arabera, eraginkorrakoak izateko.

Herri osoa mozorrotuko da bihar urteko egunik koloretsuena ospatzeko

J.B. | ARRASATE

Badatoz Aratusteak. Aramaio-ko Gazte Asanbladak, Itur-Zuri emakume elkarteak, Alaiak erretiratuak elkarteak eta herriko trikitilariak egun oso-rako egitaraua antolatu dute, Udalarekin elkarlanean.

Aurten ere ez da mozorro lehiaketarik faltako. Gaia librea da eta hainbat sari egongo dira. Taldekakoen artean lau lagun gutxienez haurrendako bi sari eta 14 urtetik gorakoendako beste bi egongo dira: lehen saria 90 eurokoa izango da eta bigarrena 36 eurokoa. Orijinaltasunaren saria ere egongo da, banaka zein taldeka; lehen saria 48 eurokoa da eta bigarrena, berriz, 30 eurokoa. Gaur da izena emateko azken eguna.

BIHARKO EGITARAUA

MARTXOAK 1, ZAPATUA

12:00 Poteoa Bizente Goikoetxea plazatik irtenda.

14:30 Herri bazkaria frontoian. Txartelak salgai tabernetan, hamar eurotan.

17:00 Kalejira pilotalekutik.

18:00 Mozorro lehiaketa Bizente Goikoetxea plazan. Ondoren umeendako tailerrak egingo dituzte. Mozorro lehiaketan izena emateko gaur da azken eguna, liburutegian.



2012an Aramaio bisitatu zuen Sevillako lagun kuadrilla batek. | GOIENA

Udal aurrekontuaren gainean eztabaidatzeko parte hartze prozesuarekin pozik agertu da Udala

Auzoz auzo azaldu eta herri batzarra egin ondoren, udal aurrekontuaren gaineko parte hartze prozesua dela-eta pozik agertu da Udala. Egin diren bilera guztiak aintzat hartuta 160 bat lagun elkartu direla diote eta hori "oso pozik" egoteko modukoa dela uste dute. Ogasun batzordean asteen landu ostean, martxoaren 5eko osoko bilkuran onartuko da behin betiko aurrekontua.

Mendi irteera eta sagardotegian bazkaria antolatu ditu Orixol elkarteak martxoaren 15erako

Mendira eta sagardotegira joateko aukera egongo da aurten ere Orixol elkarteari esker. Aurten, martxoaren 15ean joango dira Oiartzun aldean dagoen Urdaburu mendira. Izena emateko azken eguna martxoaren 9a da eta interesatuek 3035 0161 28 1611005178 kontu korrante zenbakian egin beharko dute ordainketa, izen-abizenak kontzeptu moduan jarrita. Orixol elkarteak bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek, berriz, 40 euro.

Txirritola euskara elkartearen ipuin lehiaketan parte hartzeko aukera dago martxoaren 17ra arte

Urtero antolatzen den Txirritolaren ipuin lehiaketan San Martin eskolako ikasleek hartzen dute parte bereziki, baina euskara elkarteak helduengana ere heldu gura du. Epaimahaiak baloratuko du ipuina euskaraz zuzen idatzita egotea eta orijinaltasuna. Lanak martxoaren 17a baino lehen entregatu behar dira liburutegian eta sari banaketa maiatzaren 9an egingo dute. Hainbat sari egongo dira, adinen eta mailen arabera.

Emakume Astea antolatu dute Itur-Zuri emakume elkartekoek martxoaren 7an hasi eta 12ra arte

J.B. | ARAMAIO

Urtero moduan, Martxoaren 8aren bueltan, Emakume Astea antolatu du Itur-Zuri emakume elkarteak. Martxoaren 7tik 12ra hainbat ekintza antolatu dituzte. Hilaren 7an, egubakoitza, bingo afaria egingo dute; martxoaren 4rako eman behar da izena. Antolatzaileek honako telefono zenbakia eman dute gura duenak izena eman dezan: 665 72 86 73 (Ana).

Martxoaren 8an, zapatua, *La maquina del dueño* antzezlanak ikusteko aukera egongo da kultura etxean (19:30) eta hilaren 9an, Donostiako Lilatoia laster-

ketan parte hartuko dute. Egun osoko irteera izango da. Hilaren 11n bideo-kafe saioa egingo dute kultura etxean (19:00), *Criadas y señoras* pelikularekin.

Emakume Astea amaitzeko, martxoaren 12an, Aramaio-ko Sustrai taldeak kontzertua eskainiko du Sastiñan (19:00). Ondoren, luntxa egongo da.

Batzar orokorra hilaren 5ean

Bestalde, Itur-Zuri elkartekoek urteroko batzar orokorra egingo dute martxoaren 5ean. Kultura etxean izango da, 18:00etan. Landuko diren gaien artean daude,



Bingo afaria. | GOIENA

besteak beste, iazko balorazioa egitea, diru kontuen berri ematea eta 2014rako ekintza planaren gainean informatzea.

Galdera eta eskaeratarako tartea ere egongo da.

ELGETA



Udalbatza Maria Angeles Elkororen idazkariarekin martitzeneko bilkuraren ostean. L.Z.

Maria Angeles Elkororen azkeneko bilkura izan zen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Maria Angeles Elkororen elgetarrak 37 urte eman ditu Elgetako Udaleko idazkari lanpostuan. Erretiroa hartuko du martxoaren lehen, eta martitzenekoa haren azken osoko bilkura izan zen. Urteotan Elgetari emandakoa eskertu zion Oxel Erostarbe alkateak, "lana aurrera ateratzeko orduz kanpo ere egindakoengatik".
Osoko bilkuraren amaieran hartu zuen hitza Elkorok. Gogoan izan zuen 1977ko urtarrila, laguntzaile moduan Udalean sartu zenekoa. "Azken urteotan aldaketa handiak izan dira administrazioan: erakunde berriak sortu dira, teknologia berrietan eguneratu beharra izan dugu... Eske-

rrak eman nahi ditut jasotako laguntzagarritatik eta nirekin izandako pazientziagarritatik. Elgetarra izateak indarra eman dit, eta hemen izango naiz aurrerantzean ere", esan zuen. Idazkari berria izendatu bitartean, Juan Ramon Irazabalek hartuko ditu idazkari eta kontu-hartzaile ardurak.

Azken erabakiak
Alkatearen erabakien artean nabarmenenak dira eskolako frontoian saskibaloia saskiak ipintzeko 152 euroko gastua onartzea (gehi BEZa), gerra zibileko ibilbidean bisitak egiteko lan-poltsa zabaltzea eta ekainean aire konprimatuzko karabinen tiro txapelketa antolatzeko baimena ematea.

Aurten aterpean ospatuko beharko ditugu Aratusteak

L.Z. | ELGETA
Eguraldi iragarpenek huts egingen ez badute, neguko giroa izango dugu aste bukaeran, eta aterpean ospatu beharko ditugu Aratusteak, barikuan. Eskolak erabakita dauka mozorro desfilea eta dantza emanaldia frontoian egitea. Txokolate-jana eta umeendako jolasak ere bertan izango dira. DJ festa, berriz, kafe antzokian.

Gaztetxean afaria
Barazki-paella eta solomoa izango dute afaltzeko. Prezioa zortzi euro da eta Haizea tabernan eman behar da izena. Goizalderako abilezia probak iragarri ditu gaztetxeak.

ARATUSTEAK

OTSAILAK 28, BARIKUA

15:00 frontoian, eskolako umeen mozorro kalejira eta dantza emanaldia.

16:00 frontoian, txokolate-jana, Maala guraso elkartearen eskutik.

16:30 frontoian, umeendako jolasak, ludotekak eta gaztelekuak antolatuta.

17:30 Espaloian, DJ festa Amaia Txintxurretaren eskutik. 20:00ak arte.

22:00 Gaztetxean, afaria eta abilezia jokoak.

Astuan Villa eta Jaitxo taldeak finalera

L.Z. | ELGETA
Martxoko bigarren aste bukaeran jokatuko dituzte areto futboleko txapelketako finalak. Gizonezkoetan, Astuan Villa eta Jaitxo sailkatu dira. Finalerdietan bi taldeok, hurrenez hurren, La Kokotxa (9-3) eta Txapela (8-7) kanporatu zituzten.
Asteburuan emakumezkoen ligaxkako azken norgehiagoka jokatu da. Etxaon—liderra— eta Bandleira—iazko txapelduna— izango dira aurrez aurre bihar, zapa-tua, 16:30ean. Asmoa da emakumezkoen finala ere datorren aste bukaeran jokatzeko.

Mursego eta Napoka Iria domekan, 19:00etan, Espaloian

Napoka Iriak *Arnasten ikas-teko berriz* diskoko abestiak aurkeztuko ditu Elgetan eta lagun izango du Mursego—Maite Arroitauregi—. Sarrerak salgai daude *kultura live-n* eta antzokian bertan. Prezioa da zortzi euro leihtailan eta sei euro aurrez. Ikus 32. orria.

Fruta-arbolen gaineko hitzaldia egunean, arratsaldeko zazpitan

Elgetako nekazaritza kooperatibak antolatuta, fruta-arbolen zainketaren inguruko hitzaldia egingo du Xabi Aki-xu arrasatearrak martxoaren 6an, eguna. Nekazaritza ingeniaria da Aki-xu. Kultura etxeko bigarren solairuan egingo du hitzaldia, 19:00etan hasita. Sarrera libre da.

Txokolate-jana eta urteko batzarra dituzte erretiratuek

Martitzenean, martxoak 4, Aratusteetako txokolate-jana eta bingoa egingo dituzte erretiratuek. 17:00etan elkartuko dira Ozkarbin. Barikurako, berriz, urteko batzar orokorra deitu dute. 17:30ean hasita, balantze ekonomikoa, urteko ekintzak eta gainerako gaiak aztertuko dituzte.

LEINTZ GATZAGA

Eugenio Otsoa | Leintz Gatzagako alkatea

"Bideragarritasun plana lantzen gabiltza gatz museorako"

2014ko aurrekontuan hainbat proiektu iragarri ditu Udal Gobernuak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA
Aurtengo aurrekontua onartu berritan, xehetasunak azaldu ditu Eugenio Otsoa alkateak. **Zela lortu duzue iaz baino 80.000 euro gehiago aurrekonturako?** Zati bat diru laguntza bitartez; beste zati bat mendi aprobetxamenduen bitartez; Turismo Bulegotik ere jasotzen dugu... **Inbertsio nagusien artean, base-rietara ura eramango duzuela iragarri duzue; noiz egingo da hori?** Aurten. Eguraldia apur bat lehortzen denean hasiko dira. **Hemendik [herrigunetik] bideratuko da kanalizazioa?** Ez, goitik. Gaztainuzketara eramanda dago ura. Aprobetxatuz Gaztainuzketara bidean Gipuzkoako Urek biltegia dutela eta Gatzagaindik gora beste biltegi bat dagoela, bada, handik eramango da. **Horrekin bukatu egingo duzue herriko kanalizazioa?** Ez, proiektu luzea izango da. Goierriko partetxo bat egingo da, San Martinerraino... baina lauzpabost baserri geratzen dira.

Beraz, faltako dira Olaungo guztia, Goierriko batzuk eta Inurrieta-eta. **Beste inbertsio garrantzitsu bat Gaztainuzketa izango da. Lehen fasea beteko da aurten, ezta?** Bai. Wi fia eta ziburu-zaburuak jarriko dira. Aprobetxatuko da, baita ere, mendiko laginak-eta hartzeko, ibilbide txikitxo batzuk egokitzeko, Arlaban erreka hor dagoela aprobetxatuta. Aizkorri-Aratzeko proiektuaren moduan, pago motzak, arruntak, haritzak, sendabelarrak, perretxikoak... erakusteko ibilbidea. Baita inguruan dagoen karobi bat ere. Hori guztia, seinaleak-eta ipinita. **Noiz egingo da hori?** Aurten eta datorren urte artean. Auzolanean egingo da. Aurten, wi fiaz eta ziburu-zaburuez gainera, ingurua txukunduko da. **Turismo zerbitzua Udalera bueltatzen da. Gatz museoa zeuek kudeatuko duzue?** Nahi dugu herri ekimenaren bitartez erabaki zela kudeatu. Nahi dugu ikusi herriko taldeak-eta noraino sartuko liratekeen, denon

arteak kooperatiba bat egingo dugun edo zer formula erabiliko dugun. Gazteei aukera eskaini nahi zaie hor jarduteko. Gurako gureku lanpostuak sortu. **Zenbat?** Ez dakigu. Apurka-apurka ikusi egin behar da proiektuak berak ze aukera ematen duen. Turismoarekin lotuta, gurean badago sektore bat, jatetxeena: Soran, Arrate, Gatzagain, Gaztainuzketa eta Gure Ametsa. Hor lanpostuak-eta sortzen dituzte. Baina Debagoieneko sinergiak edo erakargarritasunak aprobetxatu nahiko genituzke bisitariak Debagoienera erakartzeko. Hona etorri izan dira gatz museora, hemengo ibilbideetara edo Deba ibaia- ren sorburura, berez, etorri

"Turismo bulegoa zela kudeatu herri ekimen bitartez erabaki gura dugu"



Eugenio Otsoa alkatea udaletxeko bulegoan. | UBANE MADERA

direlako Oñatira, Bergarara edo Arantzazura. Eta helburua da gu bakarrik ibili beharrean turismo erakartzen guztiok batera jardutea. **Leintz Gatzitzen izeneko proiektua aipatu duzu. Zer da hori?** 1965ean egunean 2.500 kilo gatz egiten zituen gatz fabrika itxi egin zuten. Elikagaiak-eta kontserbatzeko zen gatz saltzen zen, baina gero itsasoko gatzarekin eta hozkailuak fabrikatzen hasi zirenean hemengo gatzak ezin zuen horiekin lehiatu. Itxi egin zuten fabrika. Orain, bideragarritasun plan bat lantzen hasi gara Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako aukera aprobetxatuz. Saiolan, Garapen Agentzia eta Udala gabiltza elkarlanean. Nahi duguna da ikusi ea bertako

batzuendako adinako jarduera atera daitekeen. Hasi berri gara bideragarritasun plana egiten; ezin dugu gehiago aurreratu. **Txakur-kakekin sentsibilizazio kanpaina egiteko asmoa duzue...** Denok maite ditugu txakurrak, baina herri txikietan, batez ere, arazoa konplikatu egiten da. Umeak ziburuetan dabiltzan lekuetan txakurrak ere ibiltzen dira; eta haien kakak batu ezean arazoak sor daitezke; zikinkeria horri aurre egin behar zaio. Pape-rontzi berezi batzuk jarri eta txakurrak solte ibil ez daitezen ahalegindu nahi dugu. Herri ekimenaren bitartez jendea motibatu gura dugu arau batzuk ateratzeko beharraren aurrean. **Badu datarik herri ekimenak?** Egunik ez, martxoan izango da.

KIROL ARGAZKILARITZA

Aritz Gordo | Argazkilaria

"Bakarrik egiten ditudan saioetan gertuagotik ezagutzen dut kirolaria"

Arrasateko argazkilariaren Flickr-eko galeriak 763.000 bisita baino gehiago izan ditu dagoeneko; kirol argazkien gainean egin dugu harekin berba

XABIER URZELAI | ARRASATE

Aritz Gordoren (Arrasate, 1980) erretratuak geroago eta oihartzun handiagoa izaten dabilta. Bai bailaran, eta baita sare sozialen bitartez Debagoieneko mugetatik haratago ere: "Sekulako tresna dira sare sozialak, ondo aprobetxatzekoak", diosku. Paisaiak ateratzeko zaletasuna du: "Gurean industria bai, baina parajeak ere ederrak ditugulako", baina, akaso, kirol argazkietan nabarmendu da gehien. Erretratuetako protagonista gehienak ibarrekoak dira, eta ez, argazki horiek ez dira edozein momentutan ateratakoak. Ondo zaindutako prozesu baten emaitza dira, denak.

Zergatik kirol argazkiak?

Kirolzale amorratua naizelako. Gainera, edozein kirol dut gustuko; hankan lesio bat izaten badut, lasai, zaletuko naiz beste zerbaitekin [Barre].

Erretratu batzuk kirol hitzordueta-koak dituzu: lasterketak, partiduak... Berezienak, baina, aparte egiten dituzun saioetakoak dira.

Kirol hitzorduetara joaten banaiz, gehienetan, beste argazkilari batzuekin egotearren izaten da, eurekin berba egin, esperientziak partekatu, euren gaitasunak ikasi... Baina bai, gusturago ibiltzen naiz aparte egiten ditudan saioetan, kirolariak hitzordua egin, egin nahi dudana azaldu, eguna aukeratu, pertsona ezagutu...

Eguna aukeratzea diozu, ez dira bat-batean egindako erretratuak.

Ez, ez, eta jendea kosta egiten zaio ulertzea [Barre]. Norbaitek esaten didanean arratsaldean gera gaitzkeela erretratu batzuk egiteko ezetz esaten diot, ez bada egun aproposa. Argazkilaritzan argia funtsezkoa da, eta harekin jolastea gustatzen zait. Goizean goizeko argia, arratsaldeko azken orduan egoten dena, kontraste handiko zerua egon dadila, lainoekin... Detaile horiek zaintzea gustatzen zait, eta baita, noski, argazkia non aterata ere. Esaterako, bizikletako salto eder baten atzean elektrizitate kableak ikusten badira, bada, ez dit balio.

Pazientzia handia behar da, baina, horretarako. Eta denbora izatea.

Bai, behin baino gehiagotan utzi behar izan dugu saioa bertan behera, eta tabernara joan trago bat hartzera. Gaur ez da egun aproposa, eta kitto. Hori du hau guztia zaletasun moduan hartzeak, presarik barik lan egiteko aukera ematen duela, ez dudala aste amaierarako lan bat entregatzeko beharrik.

Erretratuetan azaltzen direnak aspaldiko ezagunak dira?

Askok ez, argazkilaritzaren bitartez ezagutu ditut. Esaterako, Markel Uriarteren berri Goienan izan nuen, eta, kasualitatez, ondo-

ren, gure lantegian hasi zen praktikak egiten. Iñaki Uribe-Etxebarria, berriaz, mendi lasterketak jarraitzen ditudalako ezagutu nuen. Sailkapenean aurrean ibiltzen den horietakoa da, eta mendiko lasterkari bat behar nuen buruan nituen erretratu batzuk ateratzeko. Gero, Nothing Without -eko lagun bitartez ere hainbat saio egin ditut, skatekoak, Xabi Abasolorenak...

Zeuretako erretratuak dira, zaletasun hutsa da.

Bai, bai. Lagun horiekin hartu eman berezia izaten dut. Eurek

euren denbora eskaintzen didate nik nahi dudana gauza bat egiteko, eta trukean, erretratuak oparitu egiten dizkiet gero. Horregatik diot elkarri ematen diogula zerbait. Bada, norbaitek erretratuei esker babesleren bat edo laguntzaren bat lortzen baldin badu, bejondeiola!


Ez duzu profesional modura jarduten hasteko tentaziorik?

Ez, ez... Benetan. Kirol argazkilaritzak ez du dirurik ematen, ez bazara Red Bull taldeko argazkilari bat. Oso gutxi daude bertatik bizi direnak, argazkilari



ARITZ GORDO

ESTIBALIZKO SANTUTEGIAN "Elurretako erretratuak ateratzeko eguraldiari begira egoten gara adi-adi, ordurako aukeratuta izaten dugu-eta erretratuak non aterata nahi ditugun".



ARITZ GORDO

IÑAKI URIBE-ETXEBARRIA "Nahiko lan artista hau harrapatzeko! Hemen baino denbora luzeagoa egiten du Pirinioetan. Iñakik oso gustuko du Kurtzebarriko tramu hori; ekaitz lainoak zetozela aprobetxatu genuen".



ARITZ GORDO

JOSU ETA IÑAKI VIEJO "Bi hauekin ederto moldatzen naiz, beti gauza berriak egiteko gertu! Besaidetik Anboto hartu nahi nuen, baina zerbait berezia eginda. Gutxi behar izan zuten baietz esateko!".



Aritz Gordo, aste barruan, Goienako egoitzan. | X.U.

mordoa dagoelako, eta lanbidea oso txarto baloratuta dagoelako. Profesionalak diren lagunekin egon naiteke egun baten Mundakan surfeko erretratuak egiten eta hurrengo egunean bataio batekoak aterata behar dituzte, edo ezkontza batekoak. Bestela, ezinezkoa da hilabete bukaeran soldata duina izatea.

Onartu behar duzu, baina, bideoak ere indar handia daukara. Vimeoan zintzilikatu dituzun bideoek ere arrakasta izan dute.

Bai, argazki bakoitzaren atzean dagoen istorioa azaldu dut bideo horietan, zelan ibiltzen garen, eta jendeak gustuko ditu. Aurten bideoari garrantzi handiagoa eman nahi diot.



ARITZ GORDO

'RAYO'-REKIN ETA IKERREKIN "Pertsona batekin baino gehiagorekin lan egiteko gogoia nuen [Landa egindako erretratuak dira]. Furgonetatik aterata nizekien asko, eta behe-lainoa sartu zenean egin genituen hauek".



ARITZ GORDO

MARKEL URIARTE "Saio honetan arratsaldeko azken argiekin lan egin nahi nuen, eta urtaro horretan basoak duen kolorea aprobetxatu. Antzuolan egindako erretratuak dira; arratsalde borobila izan zen".



ARITZ GORDO

XABI ABASOLO "Araban egindako saioa. 06:30ean irten ginen lokalizazio berriak bilatzeko gertu, eta, kilometro batzuk egin ostean, 10:00etan lanean ari ginen. Zorionez, argia oraindik ez zen gogorregia".

PILOTA

Gatzagako pilota txapelketako bigarren jardunaldia domekan

Afizionatuendako Gatzagako pilota txapelketako bigarren jardunaldia domekan jokatu-ko dute. 10:00etan hasita, zazpi partidu jokatu-ko dituzte: senior mailako hiru eta ben-jaminetako lau.

Urtero moduan, oihartzun itzela izan du Gatzagako pilo-ta txapelketak: Iparraldeko pilotariek ere eman dute ize-na. 117 partidu jokatu-ko dituz-te 24 domekatan. Finalak irail hasieran jokatu-ko dira, Gatz-a-gako jaietan.

TXIRRINDULARITZA

Zirauna Infisport taldea aurkeztu zuten atzo Gasteizen

Amateur mailan lehiatuko den Zirauna Infisport taldea Lakua hotelean aurkeztu zuten atzo, eguena. Once-Eroski taldean ibili zen Gorka Belo-kiren aginduetara 18 ziklista egongo dira, tartean Unai Mendikute (Aretxabaleta), Alex Aranburu (Arrasate) eta Iker Eskibel (Eskoriatza) deba-goiendarrak. Euskalduna eta Lehendakari Txapelketetako lasterketetan eta Espainiako Kopan parte hartuko dute. Otsailaren 15ean hasi zuten denboraldia.



Unai Uribetxeberria erdiraketa egiten Ostadarren kontra. | GOIENA

FUTBOLA

Aloñak eta UDAk etxean jokatu-ko dute eta Antzuolak eta Bergarak, kanpoan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Gure taldeek Ohorezko Erregio-nal Mailako 24. jardunaldia joka-tuko dute aste bukaeran. Aloña Mendik eta Aretxabaletak etxean jokatu-ko dute; Bergarak eta Antzuolak, etxetik kanpo.

Oñatiarrek Hondarribiaren bisita jasoko dute domekan (dome-ka, 16:30). Aurreko astean Her-nanin aise galdu ostean, eta lehenbailehen maila ziurtatzeko, irabazi beharra dute Azkargor-taren mutilek. Aurreko astean Zubipen izan zituzten baja guztiak berreskuratu dituzte.

Zortzigarrenaren bila
Aretxabaletak, aldiz, Anaitasuna izango du aurrez aurre Ibarra-n.

Gorka Vallerren mutilek bolada onarekin jarraitzen dute eta zortzigarren garaipena jarraian lortu gura dute, sailkapenean gora egiteko (zapatua, 16:30).

Etxetik kanpo jokatu-ko dute Bergarak eta Antzuolak; azken horrek liderraren zelaian, Berio-ren kontra (zapatua, 16:00). Ez da erraza izango, donostiarrek bi partidu bakarrik galdu dituz-te-eta liga osoan. Baina antzuo-larrek erakutsi dute edozein talde estu hartzeko gai direla.

Mahoneroak Touringen kon-tra lehiatuko dira (zapatua, 16:30); berriro ere sailkapeneko azken lekuan dagoen talde bat. Zarautzen kontra puntu bat galdu ostean, irabazteko beharra dute.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA		
EMAKUMEZ. BIG. MAILA Mondra-Athletic Zapatua. 11:00. Mojategi.	OHOREZKO GAZTEA, IGO. Bergara-Amara Berri Zapatua. 11:30. Ipintza.	MAILA AUTONOMIKOA Urdaneta-Natra Oñati Zapatua. 18:00. Loiu.
OHOREZKO ERREGIONALA Berio-Antzuola Zapatua. 16:00. Berio.	KADETEAK 1. MAILA, IGO. Martutene-Aloña Mendi Zapatua. 12:30. Martutene.	SENIOR BIGARREN MAILA Soralue BKE- Don Jabugo Zapatua. 16:30. Labegaraleta
Touring-Bergara Zapatua. 16:30. Fanderia.	ARETO FUTBOLA	Aloña Mendi- Internacional Zapatua. 16:00. Zubikoa
Aloña Mendi-Hondarribia Domeka. 16:30. Azkoagain.	EUSKAL LIGA Debabarrena-Eskoriatza Zehaztu barik.	MU A-Oiartzungo Saskilagunak Egubakoitza. 20:00. Musakola.
Aretxabaleta-Anaitasuna Zapatua. 16:30. Ibarra.	SASKIBALOIA	PILOTA
LEHEN ERREGIONALA, IGO. Idiazabal-Aretxabaleta UDA B Zapatua. 16:30. Arizkorreta.	LEHEN NAZIONAL MAILA MU-Goierri Verkol Gaur. 20:00. Iturripe.	GATZAGAKO TXAPELKETA Seniorrak Benjaminak Domeka. 10:00. Gatzagan.

MENDI LASTERKETAK

Aloñako X. Igoerarako eta Kilometro Bertikalerako izen-emate epea zabalik

M.B. | OÑATI
Maiatzaren 2an jokatu-ko dute Kilometro Bertikala eta maia-tzaren 4an Aloñako X. Igoera. Bietarako izena emateko epea zabalik dago. Interesatuek www.rockthesport.com atarian eman dezakete izena. Igoerarako 300 pertsona onartuko dituzte eta Kilometro Bertikalerako, 150.

Hamargarren aldia izanik, hainbat aldaketa izango ditu Aloñako Igoerak. Luzeagoa izango da: 22,6 kilometrokoa. Aloñara igo ostean, Kresterian barrena ibiliko dira korrikala-riak. Ibilbidearen gaineko infor-mazioa gura duenak www.txantxiku.net atarian begira dezake.

goienagida™
2014

DEBAGOIENeko MERKATARITZA GIDA

DATORREN ASTEAN
ETXEAN IZANGO DUZU!



- OÑATI
- BERGARA
- ANTZUOLA
- ELGETA
- ARRASATE
- ARETXABALETA
- ESKORIATZA
- LEINTZ GATZAGA
- ARAMAIO



OSATUAGOA, BERRITUA, HOBEA

WWW.GOIENA.NET/GIDA

Sarean, mugikorretan, tabletetan eta paperean

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, beheka, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, beheka / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, beheka / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, beheka / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arteka 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 beheka ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 beheka

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, beheka / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, beheka / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, beheka / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, beheka esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, beheka

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA

Hala bazan edo ez bazan...

Debagoieneko herri guztietan daude ipuin kontaketak; haurrentzako dira gehienak

A. ARANBURUZABALA | DEBAGOIENA

... atera dadila Debagoieneko plazan. Ahozko tradizioa eta irakurzaletasuna sustatzeko, ipuinekin gozatzeko, liburutegirako bidea erakusteko; horiek dira Debagoieneko liburutegiekin antolatzen dituzten ipuin kontaketen helburuetako batzuk. Horrez gainera, kontalariak bertara ekarriaz, liburutegia ikasteko lekua baino gehiago dela erakutsi eta ipuinekin gozatzeko ez dagoela adinik demostratu gura dute. Gurean, herri guztietan egiten dituzte, maiztasun zehatz edo egun edo ospakizun berezien aitzakian. Liburutegiekin antolatutakoez gainera, badira elkarteek bultzatutako kontaketak ere.

Ia 30 urte dira Arrasaten lehenengo kontaketak egin zituztela. "Euskal Herriko lehenengoak egin ziren Debagoienean. Liburutegien eta beste hainbaten elkarlanarekin sortu ziren eta beste eskualde batzuetara zabaldu ziren gero", azaldu du Pello Añorga ipuin kontalari, idazle eta alorreko irakaslea denak.

Egutegia, herri herri

Biblioteca berria zabaldu zutenean (2003) hasi ziren kontaketeekin Eskoriatzan. Urritik apirilera egiten dituzte, salbuespenak salbuespen, azkeneko egunetan. Haurrentzako izaten dira eta doako sarrera dute.

Egun berean dira Oñatin ere. Atzo egin zuen Saioa Aizpuruak 6-10 urteko gazteendako. Konta-



Ines Bengoak aurreko egubakoitzean haurrentzako kontaketa egin zuen Bergarako haur liburutegian. | IMANOL SORIANO

lariak aldatuz eta adin tartea txandakatuz doaz; hurrengo 3-6 urtekoendako izango da. Doakoak dira, aurrez gonbidapena hartu behar bada ere. Urte askotako eskarmentua dute Oñatin ere, baina iaz finkatu zuten hileroko maiztasuna. Helduentzako hiru saio dira urtean: otsailean Beatriz Egizabal izan zen eta hurrengoak apirilean eta urte amaieran izango dira. Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez egin dituzte.

Urtarrila ezker, hilean birritan egiten dute Bergaran: azken

ostiraletan haurrentzako haur liburutegian; eta azkeneko martitzenetan helduentzako osoko bilkuren aretoan. Oihulari Klownek prestatzen ditu Bergarako saioak, hemengo eta kanpoko kontalariak aukeratuta.

Aretxabaletan, hilean behin zapatueta izaten dira. 4 urtetik gorakoendako eta doakoak, liburutegiko txiki-txokoan.

Gainontzeko herrietan ez dute hileroko saiorik, guztietan egiten badituzte ere, besteak beste, Liburuaren Egunaren bueltan. Aipa-

tzekoa da haur eta helduentzako Arrasateko bibliotekaren *Munduko ipuin kontalariak* ekimena. Horrez gainera, herriko ikastetxeekin elkarlanean eskola orduetan ere egiten dituzte.

Askotariko kontalariak

Profesionalez gainera, badira amateurrak ere. Oihulari Klownen eskolakoak dira batzuk. Elgetan, berriz, liburuzainaren ekimenez, zazpi gurasok hartu dute hamabostean behin ipuinak kontatzeko konpromisoa.

SAROA BIKANDI
IPUIN KONTALARIA

"Ama moduan lagungarri izan ditudan tresnak partekatuko ditut saioetan"

Hitzak eta masajeak batzen dituen *Azalerako* ipuinak ikastaroa egingo du datozen asteetan Bikandik Elgetako, Arrasateko eta Oñatiko biblioteketan.



L. ZEBERIO

Zer dela-eta masajeak eta ipuinak batzeko ideia?

Garai baten haur masaje irakaslea nintzen, eta ipuinak kontatzen ere jarduten nuela -eta, konturatu nintzen haur txikiekin (0-3 urte bitartekoen) ondo funtzionatzen zuen formula zela gorputza erabiltzea ipuinak kontatzeko.

Zein da ikastaroetan erabiltzeko metodologia?

Masajea oinarrituz, haur txikietan ukimenak duen garrantziaz jarduten dut hasteko; ukimena da 0-3 urte bitarteko haurretan zentzumenik inportanteena. Ahozkotasunari dagokionez, abesti txikiak, ipuinak, poemak eta horrelakoak irakasten dizkiet eta horiek aurkezteko proposamenak egiten dizkiet gero. Hau da, karakolaren ipuina kontatzen badugu, esaterako, hauraren gorputzean karakolaren mugimendua irudikatuko dugu...

Ze helburu ditu ikastaroak? Norentzako da, bada, ikastaroa onuragarria?

Guraso, hezitzaile... orokorrean, haurrekin daudenentzako da, aitona-amonendako ere bai, zergatik ez. Haurrek arreta lantzen ikasiko dute, besteak beste, eta horien zaintzaileendako, berriz, besteak beste, segurtasuna hartzeko baliagarria da oso.

Ipuinak sarritan gauarekin lotzen dugu. Bat zatoz?

Ikastaroaz horren gainean ere jarduten dugu. Oheratzeko kontatzea ez dut gaizki ikusten, baina zergatik une horretara mugatu? Beste tarte batzuk aurkitu beharko genituzke.

Ipuinak, Pello Añorgaren ikuspuntutik

Asko dira ipuinen onurak, ipuin kontalari moduan urteetako eskarmentua duen Pello Añorgaren iritziz: "Konprobatuta dago kontaketeak lotura afektiboak sortzen dituztela horiek egiten diren tokiarekin eta bertako jendearekin eta baita kontaketa egiten diren hizkuntzarekin ere; gure kasuan, bada, euskararekin batik bat. Bestetik, gaur egun horren garrantzitsua den adimen emozionala lantzeko ezinbesteko tresna dira ipuinak, informazioa emateaz gainera, entzuleak hunkitzea eta emozioak partekatzea dute-eta helburu. Azken finean, zenbat eta gehiago entzuteak erantzuteko gaitasuna garatzeko bidea emango digu".

Ipuinek ez dute adinik

Kontaketa gehienak haurrei zuzendutakoak badira ere, helduok ere ipuinen beharra dugula dio Añorgak eta ipuinek, beraz, ez dutela adinik, eta gaineratu du sarritan idatzi dituela helduek entzuteko modukoak diren haurrentzako ipuinak.

Kontaketak ugaritu badira ere, gazteen esparruan hutsunea ikusten du Añorgak: "7-12 urtekoendako apenas antolatzen dira; beste era bateko ipuinak, kontatzeko modua eta testuingurua behar dute gazteek. Gehienbat, haur txikiak dauden saioetan lekuz kanpo sentitzen dira, eta, beraz, nahiago dute ez joan.



Chati Calvo kontalaria iaz apirilean Oñatiko liburutegian. | MARINA ETXEGOEN

Imanol Artola | Basozaina eta eskultorea

"Egurrarekin salto bat emateko beharra izan dut"

'Egurra eta Natura' erakusketa dauka Oñatiko kultura etxean martxoaren 2a arte

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Antzuola eta Oñatiko basozaina da Imanol Artola (Zegama, 1958), baina zuhaitzak eta egurra hortik harantzago maite ditu. Horren erakusgarri da daukan bilduma eta 1.500 lagineko xiloteka. Orain eskultore lanetan hasi da; *Egurra eta Natura* izeneko erakusketa dauka Oñatiko kultura etxean martxoaren 2a arte (18:00-20:00). **Basozaina zara baina lanbidea baino zer bait gehiago duzu.**

Gustuko baduzu ofizioa beti gura duzu gehiago ikastea eta hortik dator; zuhaitzak eta zuhaixkak ahal den guztiak ezagutu, bildumak egiten hasi eta orain arte munduan sartu naiz.

Zelatan etorri da salto hori?

Lehenengo zuhaitzak eta zuhaixkak kanpotik ezagutu nahia izan zen: hostoa dela, adarra dela... Gero barrutik: enborra, egur motak... Eta orain hirugarren pausoa etorri da enbor hori lantzen hastea.

Erakusketan zelako lanak daude? 65 bat eskultura daude, eta koardroak enbor zatiekin. Egindako lanak sinpleak dira, baina ez dut konplikatu nahi izan.

Lan ordu batzuk sartu dituzu...

Urte eta erdian egin ditut. Arantzazuko lagun batek asko animatu nau, eta hark esan zidan behin hasiz gero harra sartzen dela barruan eta ezin dela utzi. Nik, berriz, ezetz, nire burua ezagutzen nuela eta bi hilabetera nekatuta egongo nintzela, baina bai zera! **Eskultura batzuek forma zehatzak dute eta beste batzuek ez; arrazoi-
ren bat badago?**

Ez, ez naiz itxura baten bila joaten. Neure lanean jarduten dut nik, basoan gora eta behera, eta



Imanol Artola eskultura baten alboan Oñatiko kultura etxean. | A. ARANBURUZABALA

"la ukitu gabe jarri dut 1.000 urtetik gorako haritz zatiak dituen lana"

zerbaitek atentzioa emanez gero hartu eta egiten hasten naiz, baina neu bila joan gabe. Batzuetan ateratzen dira nahiko forma garbiak eta ikusten da zer den, eta beste batzuetan ez. Gustuko dudana pieza bat topatzean jolastu egiten dut horrekin: egurrak elkartu, forma dela, kolorea dela...

VII. mendeko haritz zati batekin egindako eskultura ere baduzu erakusketan, ezta?

Haritz hori oparitu egin zidaten, Bizkaia aldekoa da, eta kalkulatu dute 1.000 bat urte edo gehiago izango dituela. Ia ukitu gabe jarri

dut, harritxoren bat gainean jarrita baina ia ez dut lanik egin horrekin. Oso zaharra denez beltza da, ia fosilizatzen hasia, eta ebanoa ematen du. Bere sinpletasun horretan oso polita da.

Ezjakintasun handia dago zuhaitzen gainean, hortaz, erakusketa honekin zer bait bilatu gura izan duzu?

Jendea egurrera hurbiltzen bada oso ondo, baina ez da asmoa. Neuri barrutik sortu zaidan zer bait da, egurraren inguruan pauso bat gehiago emateko beharra izan dut; eta egindakoa jendearen gustukoa bada, hobeto.

Zegaman 1.500 lagineko xiloteka daukazu ikusgai, ezta?

Bai, Aizkorriko ataria museoan; orain itxita dago baina laster zabalduko dute. Hor daude batetik 173 enbor erditik moztuta, ikusteko egurra zelakoa den barrutik; eta bestetik 1.500 lagin xiloteka bezala.

Mursego eta Napoka Iria taldeak domeka iluntzean Elgetako Espaloian

Pop estiloko doinu goxoek eta leunek bat egingo dute kontzertu intimoa eskaintzeko

M.A. | ELGETA

Mursego eta Napoka Iria taldeen doinu goxoek eta intimistek beteko dute domeka iluntzean (19:00) Espaloia kafe antzokia –sarrera, aurrez, 6 euro; egunean, 8 euro.

Eibarko Maite Arroitauregi bakarlariak, Mursegok, *Hiru* diskoa aurkeztuko du, betiko legez biolontxelo lagun duela. Batez ere, tropikoko, Afrikako eta euskal doinuen ukituak dituzten abestiak direla jakinarazi du, baita cumbia melodiak dituztenak ere.

Napoka Iria bikoteak –Miren Narbaiza eta Ander Muxika– *Arnasten ikasteko berriz* diskoko kantuak ekarriko ditu Espaloira, aurreko lanetakoe-



Mursego. | MURSEGO

kin batera. Bada, gitarra akustikoa eta Narbaizaren ahots biluzia uztartuta, kontzertu intimoa eskaintzera etorriko dira, pop doinu suabe eta ilunak tartekatuta.

'La gallina vasca-Euskal oiloa' aldizkaria aurkeztuko dute gaur

M.A. | BERGARA

La gallina vasca-Euskal oiloa aldizkari satirikoa aurkeztuko du Bergarako gaztetxeako Angiolillo liburutegiak gaur, otsailak 28, gaztetxean bertan (19:00).

Hamabostean behin argitaratzen duten aldizkari bizkaitarra da, euren esanetan "aldizkari satirikolari, ironiko, sarkastiko, umoretsu, superonanistiko eta surrealistikoa". Batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan –Debagoieneko herri handienetan– banatzen den aldizkaria da, eta sarean ere badu tokia: *gallinavasca.blogspot.com.es*.

'Grupos Autonomos', 21ean

Martxoaren 21ean, oster, Joni D-ren *Grupos Autonomos. Una crónica armada de la transición democrática* liburua aurkeztuko dute. "Trantsizio demokratikoa deritzon gezurrari aurre egin zioten talde autonomoetako kide izan ziren gazteen inguruko liburua", laburtu dute.

Liburu aurkezpenaren ondorena girotzeko Reves taldearen kontzertua iragarri dute gaztetxean. Sant Feliu de Guixols (Girona) herriko taldea da, 2008an sortua eta Seven Times y Aside From Me taldeko kide ohiek osatutakoa.

'Ta oain ze?' antzezlanak zabalduko ditu martxoko Kooltur Ostegunak

Napoka Iria, Keu Agirretxe eta Sonido Vegetal taldeek osatuko dute egitaraua

M.A. | ARRASATE

Antzezlanarekin bukatu ziren otsaileko Kooltur Ostegunak eta antzezlanak zabalduko du martxoko egitaraua. *Ta oain ze?* eskainiko du Ttak teatroa konpainiak egunean, martxoak 6, Arrasateko Gaztetxean (22:00).

Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktore beterranoen azken antzezlanak izango da Gaztetxe-ko taula gainean. Guztiok ditu-

gun barne ahotsen kanporaketa du ardatz lanak: "Argiaren eta itzalaren arteko dantza amai-gabea: bizitza, heriotza, maitasuna...", diote Ttak konpainiak kideek.

Andaluziarrak bukatzeko

Ondorengo egunetan kontzertuak itzuliko dira Gaztetxera. Lehenengoa Napoka Iria Debarreneko bikoteak eskainiko du, martxoaren 13an. Miren

Narbaizak eta Ander Muxikak osatutako bikoteak pop doinu leun eta ilunak uztartuko ditu gitarra akustikoa lagun.

Martxoaren 20an beste bikote bat izango da. Keu Agirretxea musikari ondarrutar beterranoak azken diskoa, *Behe presioaren erdigunean*, aurkeztuko du biko formatuan Mikel Arakistainen laguntzarekin. Pop-rocka, folka eta sentsibiltate handia izango dira taula gainean.



Ta oain ze?eko pasartea. | TTAK TEATROA

Hilabetea bukatzeko, martxoaren 27an, Sonido Vegetal talde handia etorriko da Andaluziatik. Sona handia hartzen ari den talde hori gipsy punk moduan definitu izan dute. Amparanoia eta Gogo Bordelorengandik hurbil, mestizaia lantzen dute, ukitu oso Balkanikoarekin.

Otsaileko balorazioa

Kooltur Ekintzak antolatzen dituen Kooltur Ostegunen laugarren ikasturteak bete du erdia. Taldeko kideek esan digute pozik daudela. "Iaz igarri genuen publikoaren nolabaiteko beherakada, baina aurten publikoa berriro hazi egin da. Ez da ohikoa, leku guztietan publikoak beherantz egin duelako, eta horrek are eta positiboagoa egiten du gure balantzea".

Argia, musika eta antzerkia batzen dira *Zazpi aldiz elur* ikuskizunean. | TANTTAKA TEATROA

Atxagak Laboaren heriotzaren ostean idatzitakoak, oholtzara

Gaur 'Zazpi aldiz elur' ikuskizuna Oñatiko Santa Ana antzokian (22:30)

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Bizitzako pasarte txikiak uste-kabeen istorio handi bihurtzen dira: elurra mara-mara ari zuen; ume batek Mikel Laboa hil zela jakin eta, umeek bakarrik duten naturaltasunarekin, hau bota zuen: "Polita da honelako egun batean hiltzea". Pasarte txiki hark Bernardo Atxagaren irudimen itzela piztu, eta lan hori idazteari ekin zion. Bertan, Emily Dickinson bezalako sortzaile ezagunak aipatu arren, Laboaren letra eta idatziak dira hari nagusia.

Diziplina askotako ikuskizuna

Gaur gauean, definitzen zaila den ikuskizun batek betekoa du Santa Ana antzokia. 22:30ean, musika, poesia, antzerkia... guztia nahastean duen ikuskizunak jendearen irudimena asebate eta arimari ere jatekoa emango dio. Oñatiko antzokira gerturatzen direnek, 10 euroren truke, XX. mendeko euskal sortzaile profikoenetako baten espiritua gertutik ezagutzeko aukera paregabea izango dute.

Ikuskizunak Gasteizko eta Donostiako ikusleen txalo eta lausengak jaso ditu. Izaeragatik ote, istorioagatik akaso, oholtzan gertatzen den ikuskizunagatik baliteke, baina ikusle askok bereganatu eta gutxi batzuek ezagu-

tu zuten artista baten ondareaz gozatzeko aukera izango dute.

Omenaldia bai, nostalgia ez

"Poetikoa eta gertukoa da; nostalgikoa, berriz, ez". Horrela azaltzen du Mireia Gabilondo bergararrak berak zuzentzen duen ikuskizuna. Mikel Laboaren aztarna oso agerikoa da: "Hura askea zen, eta haren lanek ere izaera bera zuten, eta guk hori guztia errespetatu dugu", dio.

Askatasun horri esker, Laboaren lanek beste bizitza bat dute. Artistaren kopia eta musikarekin jolasten du Iñaki Salvador konpositoreak. Laboak sortutako letrak testuingurutik ateratzen ditu Salvadorrek, ikusleek euskal kulturaren erreferente izandako koplak beste doinu batzuekin gozatu ahal izateko. Laboak egiten zuen antzera, emozioak hitz bihurtu beharrean, hitz horiek kontakizun bisual bihurtuko dira Santa Ana antzokiko oholtza gainean.

Nabari da ikuskizuna lagunaren artean egina dela. "Argi bero eta txiki bat piztuko dugu eta elkarrekin egoteko gogoia sentitzen dugu", azaldu du aktoreetako batek.

Hiltzeko bezala, antzerkia ikusteko ere egunak eta egunak daude. Elurra edo euria egin

dezakeen gau honetan, zazpi aldiz damutzea baino hobe da *Zazpi aldiz elur* ikustera joateko gonbidapena onartzea. Laboak maite zuen txoriaren antzera, irudimenak egingo du hegan.

Andoni eta Miriam Moñux, pauso bat aurrerago musikan

GOIATZ ARANA | BERGARA

Miriam Moñux Euskal Ikasle Gazteen Orkestran parte hartzeko aukeratu dute; biolina joko du orkestran. Andoni Moñux, berriz, Euskal Ikasleen

Orkestran tuba-jotzaile izateko aukeratu dute. Bergarako Musika Eskolako ikaslea da lehenengoa eta oraingo ikasturtera arte bertan ibilitakoa bigarrena.

Urtarrilean egin ziren proben ostean, Miriam Moñux biolina jotzeko aukeratu zuten; Euskal Ikasle Gazteen Orkestran parte hartuko du, 10-14 urte bitarteko Euskal Herriko 90 gaztetxorekin batera.

Rafaella Acellaren zuzendaritzapean, Gasteizen, Donostian eta Bilbon emango dituzte kontzertuak ekainaren 26an, 27an eta 28an, hain zuzen ere.



Miriam Moñux. | JAVIER BIZENTE



Andoni Moñux. | VALEN MOÑUX

Andoni Moñux, nagusiekin

Andoni Moñuxek, berriz, Euskal Ikasleen Orkestran tuba joko du. Iker Sanchez izango da 14 eta 18 urte bitarteko 70 ikasle osatutako orkestra horretako zuzendaria.

Bada, bigarren orkestra horrek agenda luzeagoa izango du. Lehenbizi, Donostiako Orfeo Gaztearekin egitarau sinfoniko korala prestatuko dute. Eta udaberrian, Gasteizko Kontserbatorioa, Donostiako Kursala eta Bilboko Euskalduna bisitatu eta gero, Madril eta Zaragozan kontzertu bana eskainiko dute.

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Ikasketen ardatza praktika denez, ikasleok lanerako prestatuago gaude"

Ingeniari tekniko topografiko moduan lan egin ondoren, David Rodriguez langabezia geratu eta berriro ikasten hasia erabaki du. Bergararra da, eta Diseinua Fabrikazio Mekanikoan zikloan dabil Miguel Altuna Institutuan. Ikasketa horiek eginda lanpostu bat aurkitzea errazagoa izango den esperantza dauka.

Zerk bultzatu zaitu Lanbide Heziketa ikastera?

Orain dela urte bat lanik gabe geratu nintzen, eta ordutik hona ez dut nire profilarekin bat datorren lanik aurkitu. Autonomo izaten ere saiatu nintzen, baina diru laguntza eskasak zirenez, berriro ikasten hasia erabaki nuen.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Aurretik, marrazketarekin zerikusia duten ikastaro batzuk egin nituen hemen. Lagunek eta familiakoek ere hemen ikasi dute, eta, haien esperientzia onaren berri izan ostean, hona etortzea erabaki nuen.

Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren artean alde handia dago?

Teoriari garrantzi txikiagoa ematen diote hemen, praktikoagoa da eta lan esparrura zuzenduago dago. Unibertsitatearekin alderatuz gero, hemen gutxiago ikasten da, gogorragoa da unibertsitatea, baina horrek ez du esan nahi bata bestea baino hobea denik.

Lanbide Heziketa lan esparrura bideratuago dago?

Bai. Ikasketak amaitu eta lanean hasi arteko denbora tartea motzagoa da hemen.



Hemen praktikari garrantzi handiagoa ematen zaio, eta ikasleok lan mundurako prestatuago gaude. Badut hemen ikasi eta lana aurkitu zuten lagun eta familiarrek; horrek bultzatu nau, besteak beste, hona etortzera.

Gustura zabilta?

Egia esan, pozik nago. Aurreko ikasketekin zerikusirik ez duen zerbait hasia erabaki dut, ahalik eta ate gehien zabaltzeko. Lan esparruan ezin zara gelditu. Hasieran, beldur apur batekin hasi nintzen, baina gustura nabil eta gomen datu egingo nuke, gainera.

Lanbide Heziketak lanerako ategia- go irekitzen ditu?

Eraikuntzak bizi duen egoera ikusita, eta hemen lan egiteko asmoa dudala kontuan izanik, bai, hala uste dut. Oraingo egoeraren egoteko nahiago dut ikasi eta aurrera egin. Atzerrira joatea ez dago nire planen barruan.



GOIAZ! 2014
Lanbide Heziketaren Azoka
Martxoak 26 eta 27an;
Kulturaren, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV
lehiaketa antolatuko du.

Pentsatu, grabatu eta bidali
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:
www.debagoiena.net



www.facebook.com/goiazdebagoiena



www.twitter.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Barikuntza, Lanbide Heziketa eta Enpleguaren Departamentua

Gipuzkoa ekintzailea

La Josek Victor Iniesta eta David Cobo musikarien laguntza izango du gaur gaueko emanaldian

Flamenkoa, kopia, sefardi doinuak... hegoaldeko doinu eta koloreek pop, soul edo rock doinuekin bat egingo dute gaur Bergarako Etxagi tabernan. Kontzertu itxura duen emanaldi horrek kultura elkartruke baten zantzuak izango ditu. La Joseraren ahotsak duen koloreak eta bi musikarien eskuek balioko dute gurean hain ezagunak ez diren doinuak deskubritzeko. 23:30ean Etxagin izango den proposamen apurtzaile hori, gainera, doakoa izango da.

Andrea Garcia,
eskubaloiko baloiekin,
infantilen entrenamendua
hasi aurretik.



Andrea Garcia | SHEEko ikaslea eta eskubaloijokalaria

"Entrenatzaile izanda, psikologo lana egitea tokatzen zait, baina oso aberasgarria da"

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Asturiarra jaiotzez. Arrasaten bizi da, Gasteizen dihardu SHEE ikasten eta Oñatiko Aloña Mendiko eskubaloijokalaria da, senior mailan. Gainera, infantil mailako nesken B taldeko entrenatzailea da. Andrea Garcia (Candas, 1994) da hura. "Eskubaloiaz maiteminduta" dagoen emakumea. 2013ko irailean heldu zen gurera.

Asturiarra zara eta Arrasaten bizi zara, baina zure amamarekin. Bitxia.

Bai. [Barre] Aita asturiarra da eta ama arrasatearra. 6 urterekin eskubaloian jokatzen hasi nintzenetik, garbi nuen kirolarekin zerikusia zuten ikasketak egingo nituela, eta SHEE lurralde batzuetan bakarrik dago. Horietako bat EAE da. Hori horrela, Gasteize-

rako bidea hartu nuen, eta, etxe bat alokatu ordez, amamaren etxera joatea erabaki nuen, Arrasatera.

Arrasatera heldu eta eskubaloitailerik ez.

Hona etortzea erabaki nuenean, Asturiasen nuen entrenatzaileak lehen hartu-eman egin zuen Aloña Mendirekin. Ainhua Unamunok, orduko entrenatzaileak, eurekin lan egiteko aukera eman zidan, eta oso gustura nago.

Zein ezaugarri dituzu eskubaloijokolari moduan?

Eskuineko lateralean jokatzen dut eta oso lasaia naizela esango nuke. Taldekako kirola izanda, gainerako taldekideak laguntzeko prest dagoen jokalaria. Kantxan inoiz haserratzten ez dena, eta besteenganako hitz gozoak ditue-

na. Horrelakoa naiz ni, eta besteek ere antzerako jokabidea izatea gustatuko litzaidake.

Nola hartu zintuzten Aloña Mendiko seniorretan?

Oso ondo. Ez da erraza ezagutzen ez duzun talde baten sartzea. Zorionez, ondo hartu ninduten. Kantxa barruan ondo moldatzen gara; kantxatik kanpo, hobeto ezagutzeko, askotan elkartzen gara: afaltzeko, tragoak hartzeko...

Asturiasen jokatzen zenuen mailaren eta hemengoaren artean alde handia dago?

Bai. Asturiasen maila bat gorago jokatzen nuen, baina hango eskubaloijokari maila hemengoa baino txikiagoa da. Hemen emakumezkoen talde askoz gehiago dago, eta jokalaria on gehiago. Asturiasko Selektzioako kide izan naizenetan,

Euskal Herriko Selektzioaren kontra galdu egin dugu beti. Halako txapelketetan oso nabaria zen bi taldeen arteko aldea.

13 daramazu eskubaloian jokatzen.

Zer dauka kirol horrek?

Batez ere, taldekako kirola dela. Beste jokalaria batzuekin hartu-eman izatea aberasgarria da. Kirola egin eta lagunekin egon.

Jokalaria izateaz gain, infantil mailako nesken entrenatzailea zara. Ez da erronka makala izango 14 urteko neskek entrenatzea!

Irailean hasi nintzen, eta oso gustura nago. Oso aberasgarria da. Betidanik izan dut entrenatzaile lanak egiteko gogo. Nire jokalariei eskatzen diedana niri eskatu izan didate entrenatzaileek. Gazteagoa nintzenean ez nion garrantzirik ematen. Orain konturatu naiz inportanteak direla. Askok ematen didate jokalariek, eta, hain zuzen, horrekin geratzen naiz.

Psikologo lana egiten duzu eurekin?

Motibazio lan handia egin behar izaten dut. Adin zailean dauden jokalariai dira, kontzentratuta egoteko arazoak izaten dituzte eta jarrera asko landu behar dute. Euren entrenatzailea baino askoz gehiago izan gurako nuke: triste edo pozik daudenean, arazoren bat dutenean...

Hizkuntza erronka izango zen zuretzat...

Hizkuntza eta beste hainbat gauza. Familia eta lagunak Asturiasen utzita etorri nintzen 18 urterekin eta hori oso gogorra da. Hasieran, kosta egin zitzaidan, baina esfortzu berezia eginda ondo integratu naiz.

Ikasketak bukatuta Asturiasera itzuliko zara?

Ez daukat garbi, baina SHEE bukatu ostean Enpresagintza ikasi gurako nuke. Badaukat pentsatzeko denbora. [Barre]

PERTSONALA

Debagoieneko txoko gustukoena:

Urkulu. Leku ederra paseatzeko eta kirola egiteko.

Bete gura duzun ametsa:

Minusbaliatuendako gimnasio bat edukitzea.

Egindako azken bidaia: Londresera.

Eskubaloitalde bat: Bera Bera.

Eskubaloijokari bat: Eli Pinedo.

Kantu bat: Momentuaren araberakoa.

Orain, Dani Martinen azkena: La vida.

Janari gustukoena: Pizza. Yorkeko urdaiazpiko, gazta eta ananarekin.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aita Gabirel Jauregi kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Garaje eta ganbararekin. 198.000 euro. Errentan hartzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638 21 63 39

Aramaio. Toki argitsua. 105 metro koadrokoa: hiru logela, egongela, sukaldea etabikomun. Sukaldea eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metro koadroko garajea etxe azpian. Erabilgarriak diren 15 metro koadroko ganbara. Interesa izanez gero deitu zenbaki hauetara: 652 72 83 60 edo 945 44 53 52

Bergara. 40 metro koadroko apartamentua salgai Zubieta kalean. Eguzkitsua. 45.000 euro. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62

Donostia. Hiru logela eta bi komuneko etxebizitza salgai. 8. solairua, dena kanpokaldera begira eta eguzkitsua. 300.000 euro. Garajea aukeran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 08 24 17

Oñati. Pisu berria salgai Kurtzebide kalean. 90 metro koadrokoa. Trasteleku eta bi garajerako aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 70 92 57

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, baikoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. 656 00 84 92

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Kurtzebide leane etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi bainugela. 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa, gutxienez. Partikularren artekoa. 603 21 91 32

Bergara. Bergara erdialdean etxebizitza hartuko genuke errentan. Bikotea gara. 550 euro ordain dezakegu gehienez ere. Garajea baldin badu, 600 euro baino gutxiagotan ere hartzeko prest gaude. 675 70 06 96

Bergara. Logela bakarreko etxebizitza errentan hartuko lukeen mutil bergarar gazte bat naiz. Gehienez ere 300 euro ordainduko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 83 82 15

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza erretan hartu nahi dut. 631 36 17 62

Bergara. Emakume bat eta bi alaba txiki gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean. Urgentea da. Ana. 673 70 79 15

Debagoiena. Bi edo hiru logelako etxea alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest nago. 669 30 16 89

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Arrasate erdialdean, logela bat alokatzen da. 693 80 64 18

Arrasate. Pisukide bat behar dugu Arrasaten etxea osatzeko. Lau logela eta bi komun ditu, eta oso argitsua da. Berokuntza eta leiho bikoitzak. 230 euro hilean, gastuak barne. Animatu eta etorri ikustera! 665 71 69 10 edo 608 57 97 70

Arrasaten logela ematen da errentan. . 200 euroen truke logela ematen da errentan Arrasaten. 632 29 77 31

Oñati. Logela ematen da errentan duplex berri bat osatzeko. Erdigunetik oso gertu. Sukaldea eta egongela erabilgarri. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

2. GARAJEAK

202. EROSI

Autokarabana gordetzeko. tokia erosi edo alokatu egingo nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 64 90 94

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bi plazako garaje bat Bolun eta plaza bakarreko bat lbargarain. Itxiak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 73 98 32

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan lbargarain, autobus geltoki parean. Apalategiak dauka. 688 69 76 11

4. LANA

401. ESKAINTZAK

